

Kirol

Irakaskuntzak

35.zk
2010eko abendua

IDEA

NAFARROAKO ESKOLA KONTSEILUAREN ALDIZKARIA

XI. Jardunaldia Kirol Ikaskuntzak

Iruñeko Planetarioa 2010eko maiatzaren 26.

Topaketaren irekiera ofiziala eta ongietorria

3

Alberto Catalán Jn., Nafarroako Gobernuaren Hezkuntza eta Erakundeekiko Harremanetarako Kontseilaria

Teresa Peña And., Kirol Kontseilu Gorenaren idazkari nagusia

Orrialdea

Carmen Maestro And., Estatuko Eskola Kontseiluaren lehendakaria

Teresa Úcar And., Nafarroako Eskola Kontseiluaren lehendakaria

6

Honako txosten hau aurkeztuko da: Kirol arloko irakaspenak Nafarroan

Teresa Úcar And., Nafarroako Eskola Kontseiluaren lehendakaria

Orrialdea

Yolanda Salinas And., Nafarroako Eskola Kontseiluaren mahaikidea

9

Kirola, gizartea eta hezkuntza

Alberto Undiano Jn., 2004tik, nazioarteko futbol-epailea, Hegoafrikako Futbol Mundu Koparako hautatua izan zena. Soziologiako lizentziatua da Nafarroako Unibertsitate Publikoan eta Zientzia Politikoetan lizentziatua Urrutiko Hezkuntzarako Unibertsitate Nazionalean (EHUN).

Orrialdea

Carmelo Paniagua Jn., Espainiako Batzorde Olinpiarraren lehendakariordea. Espainiako Patinaje Federazioaren lehendakaria .

Moderatzailea: Jesús María Ezponda Jn., Nafarroako Eskola Kontseiluaren mahaikidea

Badut galdera bat: prestakuntza, kirola eta bizitza. Ba al da horiek ezkontzerik?

Aurkezlea eta moderatzailea, Javier Saralegui, kirol kazetaria. Nafarroako 'Onda Cero' irratikoa.

Ruben Beloki Pilotaria. Buruz buruko txapelduna 1995ean, 1999an eta 2001ean. Binakako txapelduna 1996an eta 2003an.

Laura Uhalte Gimnasta. Espainiako banako txapelduna 2003an eta taldeko txapelduna 2004an; brontzeko domina taldeko gimnasiaren arloan 2009an. Gimnasiako epaile nazionala eta Arkitekturan lizentziatua.

Josu Goñi Eskubaloia. 6. postua Munduko Eskubaloï Txapelketan.

Laura García Judoka. Ikusmen urrikoentzako Espainiako Judo txapelduna 2010ean eta Beijingeko Olinpiadetako partaidea.

Ana Casares Atleta. Espainiako Maratoi txapelduna 2010ean; atletismo eta triatloi arloetako goi entrenatzailea eta jarduera fisiko eta kirol zientzietan lizentziatua.

Nieva Larraya Judoka. Espainiako txapelduna 52 kiloko kategorian 2008an eta 2009an; zilarrezko domina 57 kiloko kategorian 2010ean eta ikus-entzunezkoen komunikazio arloan lizentziatua.

Jon García Golf-jokalaria, Unibertsitate arloko munduko txapeldunordea 2008an. Unibertsitate arloko Espainiako banako txapelduna 2007an.

24

Ekitaldiaren amaiera :

Orrialdea

Carmen Maestro And.,Estatuko Eskola Kontseiluaren lehendakaria

IDEA 35.zk. 2010eko abendua

Diseinua, errealizazioa eta edizioa: Nafarroako Eskola Kontseilua / Hezkuntzako Batzorde Nagusia

Azala: Iker Fernández Flamarique. Corellako Arte Eskola

LEGE-GORDAILUA: NA-1482/2006

Alberto Catalán, Hezkuntzako Kontseilaria

Zeharo funtsezkoa da Nafarroan **prestakuntzaren arloan eskaintzen diren aukerak diseinatzen, hobetzen eta hedatzen** jarraitzea, eta hori erdiesteko urrats egokiak eman behar ditugu araubide bereziei dagozkien kirol-irakaskuntzak ezartze aldera



Arratsalde on guztioi. Pozgarria da zuek guztiak agurtzea, Nafarroako ikastetxeetako kontseiluetako kide zareten horiek, eta lan-jardunaldi hau ofizialki hastea.

Nafarroako Eskola Kontseiluko presidente den Teresa Úcar andreari eskerrak eman nahi dizkiot, bai eta kontseiluko kide guztiei ere, hamaikagarren jardunaldi interesgarri hau antolatu izanagatik. Interesgarria dela esaten dudanean, edukiari buruz ari naiz, kirol-ikasketei buruz hain zuzen, bai eta kirolari ezagunen parte-hartzeari buruz ere, izan ere, hobekuntza, arrakasta profesionala eta ahalegina islatzen duten istorioen ikurrak dira, eta euren bizitza kirolarekin eta hainbat diziplinetako prestakuntzarekin lotzen dute.

Kirola aisialdirako eta jolaserako bidea da, hari esker gure gaitasun fisiko eta mentalak partekatzeko aukera dugu, gutxi badira ere, eta baikortasuna, asetasuna eta atsegina sortzen digu, gustura hartzen dugu eta indarbertitzen gaitu. Azken finean, kirola, neurrian egindako zaletasuna den heinean, aparteko balioa duen eta osasun fisikoa eta mentala eskaintzen duen iturria da.

Baina kirola, gainera, hezkuntza ere bada, izan ere, kirola egitean gizarteak gaur egun inoiz baino gehiagotan gure hezkuntza-sistemarako eskatzen dituen hainbat balio helarazten dira: besteak beste, ahalegina, merezimenduak onartzea, taldeko lana, nork bere burua hobetzea, zuzentasuna, etab.

Nafarroako ikastetxeetan, Lehen Hezkuntzan, DBHn eta Batxilergoan kirol heziketa-

rako bi ordu ematen dira eta oso ongi erabilitako bi ordu direla esatea besterik ez daukat, ikasgai horrek haur eta gazteen hezkuntzan dituen ondorio positiboak kontuan hartuta.

Gainera, azken urteetan kirolaren sustapenak garrantzi handia lortu du gure erkidegoan foru administrazioa, toki-erakundeak, kirol-klubak, ikastetxeak, gurasoen elkar-
teak eta beste erakunde publiko eta pribatu batzuk elkartu direlako eta laguntza eskaini dutelako. Horiek guztiek kirolaren onurak erabiltzen jakin izan dute eskola-hezkuntza integrala hobetzeko, norbere eta talde garapenerako eta osasun alorreko ohiturak hartzeko.

Ahalegin horri esker, hainbat lorpen erdietsi dira, besteak beste:

- kirol-jokoetan eta eskoletako kanpainetan milaka ikaslek parte hartzea
- ikastetxeetan eta herrietan kirola egiteko eremu eta azpiegitura hobeak eskura izatea
- hainbat kirol modalitate sustatzeko ehunka jarduera garatzea
- herritarren % 10,2 gaur egun dauden 41 kirol-federazioetakoren batean federatuta egotea. Datu horrek Espainiako eskualdeen artean toki bikainean kokatzen gaitu.
- kirolaren parte-hartze indizeari dagokionez, Espainiako lehen postuetan egotea
- kirolaren alorreko biztanle bakoitzeko gastuari dagokionez Espainian buru egotea.

Gaur azalduko dugun agiri hau, gure erkideko kirol-ikasketen uneko egoeraren eta Nafarroako ikasleek egiten duten kirolaren argazkia izateaz gain, kirolera heltzeko zailtasun gehien dutenengan jarduera hori zabaltzeko eta, bestalde, horrelako ikasketak eman nahi dituztenen prestakuntza berezitua eta kualifikatua eman ahal izateko jarraitu behar dugun bidea azaldu ere egiten du.

Guztion artean eskola uzten dutenen tasa gero eta txikiagoa izan dadin beharrezkoak diren ahalegin guztiak egin behar ditugu. Nafarroan % 16koa da aipatu tasa eta Espainiako batez bestekoa, berriz, % 30ekoa, baina EBak % 10 finkatu du 2020rako helburu gisa. Ildo horri jarraiki, ezinbestekoa da Nafarroan ematen den prestakuntza eskaintza diseinatzen, hobetzen eta handitzen jarraitzea, erregimen bereziko kirol ikasketak ere ezartzeko urrats egokiak emanda.

Ezin dugu ahaztu hezkuntza funtsezko oinarria dela planifikatzen ari garen Nafarroarako, etorkizuneko Nafarroarako, eta giza kapitalaren prestakuntzari arreta handiagoa eskaintzen badiogu, Nafarroako garapenean eta ongizatean laguntzen jarraituko dugula.

Hori guztia dela eta, zorionak eta esker onak eman nahi dizkiet eskola kontseiluko kideei lan on hau egin izanagatik. Eta, nire aldetik, besterik ez: **ESKOLA KONTSEILUEN HAMAIKAGARREN TOPAKETA-JARDUNALDIARI HASIERA EMAN DIOGU "KIROL IKASKETAK"**.



Teresa Ucar **Nafarroako Eskola** **Kontseiluaren Burua**

Arratsalde on guztioi, ongi etorri Nafarroako Eskola Kontseiluak antolatutako jardunaldien hamaikagarren ediziora. Hain zuzen ere, aurtien kirol-irakaskuntzak jorratuko ditugu.

Hezkuntza-sistemaren xedeen artean, garrantzitsuenetarikoa, lanbide-jarduerak gauzatzeko gaitasuna da. Eta azken hamarkadetan neurri handian profesionalizatu den sektorerik nabarmenena, zalan-tzarik gabe, Kirola izan da.

Arestian, Espainian lehen mailako futbolariak, eta beste gutxi batzuk bakarrik ziren kirolari profesionalak. Gaur egun, profesionalizazioa kirol guztietan orokortu egin da, ez bakarrik kirolariari begira, baita entrenatzaileei, kirol-teknikariei, kirol-epaileei, zuzendariari eta beste hainbat lanbide espezializatuari begira ere.

Bestalde, kirolean profesionalei gero eta prestakuntza handiagoa eskatzen zaie, hots, prestakuntza teknikoaz gain, prestakuntza kulturala eta pertsonala, bederen. Kirola orain nazioartekoa da eta erabat mediatikoa da. Hori dela medio, ez da nahikoa ikuspegi teknikoak on izatea, beharrezkoa da hitz egiten jakitea, gizartearen trebea izatea eta hezkuntza irmoa izatea. Hezkuntza-sistema ezin da egon gure errealitateetik urrun, orain dela hamarkada batzuetako kirolaren kontzeptuarekin gertatzen zen bezala, eta gaur egun erronka berriak ageri dira: kirolaren inguruan hezte eta kirolariak lanbide-eraketak gauzatzeko gaitzea.

Jardunaldi hau antolatu dugu, batik bat, gai horiei buruz mintzatzeko. Bada, gutxi eza-gutzen den hezkuntza-sistema-ren alderdi bat nabarmendu na-hi dugu, hots, kirol-irakaskuntzak, eta irakaskuntza horiei behar besteko garrantzia emateko nahia agerian utzi nahi dugu, bai eta gure erkidegoan horien hobekuntza bultzatu ere.

Gai ezberdinak jorratu nahi ditugu, besteak beste, hezkuntza eta kirola, elitezko kirolariaren prestakuntza, entrenatzailea, kirol-epailea edo kirol-teknikaria izateko modua, familiak, seme-alabak talde batean jokatu edo eredu batean nabarmentzen direnean aurkitzen dituzten zailtasunak-laguntzak, eta bereziki, eztabaida orokorra bultzatu nahi dugu, askotariko parte-hartzaileekin: interesdunak, kirolariak, zuzendariak, teknikariak, familiak eta politikoak, eta oro har, alor horretan hobetzeko egin dezakeguna aztertuko dugu.

Arratsalde honetan, lehenengo esku-hartze-an, Eskola Kontseiluak kirol-irakaskuntzei buruz egindako txostena aurkeztuko dugu, eta ostean, irabazleak gure artean izango ditugu zenbait gai interesgarri buruz hitz egiteko.

Bigarren mahai-inguruan, Alberto Undianok eta Carmelo Paniaguak, oso goi mailako bi kirolari garrantzitsu, Kirolaren munduak gaur egungo gizartearen dituen gakoak nahiz hezkuntzak unibertsoan duen garrantzia aztertuko dituzte.

Bigarren mahai-inguru horretan, kirol-mota ezberdinetako garailuekin hitz egiteko aukera izango dugu; kultuak, kosmopolitak, arduratsuak, antolatutak eta kirolaren elitea unibertsitateko prestakuntzarekin, lanarekin edo familiako erantzukizunarekin bat egiteko gaiak dira, kirolarien belaunaldi berria ordezkatzeko dute, nahiz gure seme-

alabentzat idoloak dira.

Eskerrak eman nahi dizkiet, bereziki, mahai-inguruetan parte hartuko duzuen pertsona guztiei. Badakigu kirol-, lan- eta familia-konpromiso garrantzitsuak bete behar dituzuela. Horregatik, gaur zuek hemen egotea, erabat modu altruistan, guretzat oso adierazgarria izan da. Gure lana zuen kirolari eta gizarteari begira garatzen dituzuen esfortzuaren, motibazioaren eta konpromisoaren maila berean egongo dela-koan gaude.

Eskerrik asko guztioi hitzordu honetan parte hartzeagatik eta ongi pasatuko duzue-elakoan gaude.

Teresa Peña **Kirol Kontseilu** **Gorenaren** **Idazkari Nagusia**

Kaixo, arratsalde on guztioi,

Kirolaren arloko irakaspenei buruzko jardunaldi hauetara, Kirol Kontseilu Gorenaren ordezkari gisa etorri naitzaizue, eta zehatzago esanda, Kontseiluaren burua den Jaime Lissavetzky Kirolaren arloko Estatuko Idazkariaren ordezkari legez. Hark ezin izan du jardunaldi hauetan egon, eta arlo honetan duen interesa zuoi jakinarazteko eskatu dit, Kontseilua erabat murgildurik baitago kirol irakaskuntzaren erretzean.

Denok dakizue, Kirolari buruzko Legearen kariz, Gobernuak bere gain hartu zuen kirol teknikarientzako irakaspenak arautzea, halako moldean non Kirol Kontseilu Gorenak zuzen-zuzenean eta buru-belarri

ekin baitio titulazio horiek garatzeari. Laburpen gisa, zenbait titulazio dagoeneko araupeturik daudela adierazten ahal di-
zuet; ondoko hauek dira araupetu diren sei modalitateak, zehatz-mehatz: futbola, sas-
kibaloia, eskubaloia, atletismoa, neguko kirolak eta mendiko kirolak. Halaber, duela denbora gutxi argitaratu da espeleologia titulazioa, eta honako titulazio hauek ere oso aurreraturik daude: bela, hipika, judoa, urpeko igeriketa eta salbamendu eta soros-
pena.

Horiek oro araupetu ondoren, arrunt gar-
rantzizkoa da Estatuko lurralde osoan ezartzea, baina horretarako ezinbestekoa da autonomia komunitate guztien laguntza jasotzea, zeren eta berauek baitituzte ira-
kaspen hauek garatzeko eskumenak.

Kirol arloko irakaspenak gaur egun ia auto-
nomia komunitate guztietan ezarririk dau-
dela esan dezakegu, hein batean edo bes-
tean; izan ere, guztira 89 zentro publikok zein pribatuk irakaspen horiek emateko baimena dute. Lau autonomia komunitate baino ez dira halako zentro baimendurik ez dutenak. Horietako hiruk proiektu bat abia-

razi dute eta ziur gaude Nafarroak ere las-
ter izanen duela bere proiektua ezarbi-
dean.

Kirol irakaspenak araupetzeko ahalegin berezi hauen xedea ondoko hau da: gure sistema akademikoan kirolaren arloko beharrezane-
i aurre egiteko gauza izanen diren teknikariak prestatzea eta berauen prestakuntzaren maila eta kalitatea bermatu eta homogeneizatzea; hain zuzen ere, funtsean, kirol arloko beharrok kirol federazioek estaltzen zituzten egunera arte, zenbait modalitate eta espezialitate-
tan 350.000 entrenatzaile baino gehiago hezi baitituzte.

Gobernuaren asmoa beti izan da kirolaren arloko irakaspenak eguneratzea, kirol sis-
tema gizartearen benetako egoerari egoki-
tzea eta aukera-berdintasuna oinarri duen funtsezko kirol prestakuntza gizarteko kolektibo guztiei helaraztea; hori guztia oina-
rrizat hartuz, Gobernuak zenbait neurri ezarri ditu, kirol sistematik at rebatu diren entrenatzaileek ere prestakuntza akademi-
koari dagokion aintzatespenaren onura jaso dezaten.

Nafarroari dagokionez, 300 bat entrena-
tzailek beren prestakuntzaren aintzates-
pena jaso dute, dela 1999 baino lehen-
goko prestakuntza gisa, dela Nafarroako Kirol Zerbitzuak baimendutako epealdi iragankorreko prestakuntza gisa.

Goi mailako eta goi errendimenduko kirola-
rientzat, irakaspen hauek garrantzi berezia dute, ezik balio akademikoa ematen diote haiek kirolaren arloan izan duten eskar-
mentuari.

Laburbilduz, autonomia komunitate guztie-
tan kirolaren arloko irakaspenak ezartze-
ren xedea prestakuntzarako oinarriak jar-
tzea izan da, betiere geroz eta hedatua-
goak dauden kirol jardueren eskakizunen arabera.

Kirol titulazioei buruzko hitz hauez gain, Jaime Lissavetzky Kirolaren arloko Esta-
tuko Idazkariak berak eman didan gutuna ere irakurri nahi nizueke, ezin izan baitu gaurko jardunaldi honetara etorri. Ondokoa dio:

Adiskideok:

*Lehenengo eta behin, mila esker zuen gonbidapenagatik, eta barkatu arratsalde honetan zuekin ez egoteagatik. Estatuko Idazkaritzak ezarri dituen konpromisoak direla eta, ezin izan dut Kirolaren arloko Irakaspenei buruzko Jardunaldira joan, eta horrenbestez, Jardunaldi honen atal bat partekatze-
ko erarik onena gutun hau zuoi bidaltzea dela begitandu zait.*

*Batik bat, Nafarroako Eskola Kontseiluak "Hezkuntza eta Kirola" binomioa ardatz harturik antolatu duen Jardunaldia gorai-
patu nahi nuke. Honek esan nahi du Eskola Kontseiluak osatzen duten hezkuntza-komunitateak kirolaren arloko gaiak jorratzen dituztela, kirolari hark merezi duen garrantzia ematen diotela eta beren agendetan gai horiek lehenetsi egiten dituztela.*

*Kirola zehar-elementua da, gazteen belaunaldiei baloreak helarazteko tresna ezin baliagarriagoa, pertsona hobeak izaten trebatzeko bitarteko egokia. Kirolak izugarritzko potentziala du, haren presentzia gizartearen gune eta une orotan islatzen baita. Hezkuntzaren arloko komunitateak ezin dezake kirola bazter utz. Aitzitik, kirola ahalik eta gehien baliatu behar da alderdi positi-
boak bultzatzeko eta bizitza osasuntsuari doazkion azturak sorrazteko.*

Kirol Kontseilu Goren honetan lanean jarduten dugu, eliteko kirolari izan nahi duten neska-mutilak ahalik eta baldintzarik onenetan entrena daitezen, kirolbidea eta prestakuntza behar bezala uztartuz. Halaber, bestalde, kirol jarduerak haurren eta gazteen artean hedaratze aldera lan egiten dugu. Espainian, jarduera fisikoak eta kirol jarduerak ez dira inondik ere Europako herrialde nagusi gehienetako jarduera-balioetara iristen.

*Estatu mailan haur eta gazteen obesitateaz egin den azterlanik aipagarrienean adierazi denez, haurtzaroan eta gaztaroan gertatzen den obesitatea zeharo areagotzen ari da egunotan; Espainiako kirolarien emaitza ezin hobeak gorabehera, obesitatea-
ren arazo horrek arreta berezia eskatzen digu.*

*Espainia, gaur egun, bederatzigarren postuan dago goi lehiaketari dagokionez; herri administrazio gisa dugun xedea gure herrialdeak kirol eginere-
i doazkien mailetan ere toki bera izatea da, Espainiako neskato-mutikoen eta gazteek gehiegizko pisua dutela erakusten diguten adierazgarri kezagarriok gutxituz. Halaber, Kirol Kontseilu Nagusiak eta Hezkuntza Ministerioak lan-
kide jarduten dugu, eta lankidetzaren horren emaitza gisa, autonomia komunitate guztietan eskola kirolaz arduratzen direnekin erreferentzia-markoa taxutu dugu, hezkuntzaren alorrean kirol egitarauak modu homogeneoan planifikatzeko oinarriak ezartze aldera.*

Erreferentzia-marko hori heldu den ikasturtean implementatzen hastea aurreikusita dago.

*Ez nioke jardunaldiko egitarauari denbora gehiago kendu nahi. Arratsalde honetako eztabaidak denontzako emankor-
rak eta interesgarriak izatea espero dut. Nafarroako Eskola Kontseiluak bere jarduketara-esparrutik kirola bultzatzen jarraitze-
ra an-
matzen zaituztet; nik neuk arreta handiz aztertuko ditut Kontseiluaren proposamen guztiak, eta ziur nago Nafarroako Gobernuak ere gauza bera egingen duela.*

Jaime Lissavetzky

Kirolaren arloko Estatuko Idazkaria

Kirol Irakaskuntzei buruzko Txostena

Ondorioak

Oharra: Diapositiba batzuk gaztelaniaz agertzen dira iturriak txertatutak daudelako eta ezinezkoak izan da bere tratamendua.

Atsegin handiz aurkezten dizuet Nafarroako Eskola Kontseiluan 2009/2010 ikasturte honetan kirolaren arloko irakaspenez prestatu dugun txostena.

Txosten hori gertutze aldera, Kontseiluan ordezkariak dituzten zenbait sektoreen ekarpenak ere jaso izan ditugu; horiei dagokionez, berebizikoak izan dira Nafarroako Kirolaren Institutuak egin dizkigun ekarpenak, eta aipatzeko modukoak dira, baita, Kirol Federazioek, COLEFNA Elkar-goak (Gorputz Hezkuntzako Lizentziatuen Nafarroako Elkargoa) eta 'Sierra de Leyre' lanbide heziketako ikastetxeak eman ditugun laguntza oparoa.

Horiei guztiei, mila esker egin duten lanagatik eta jaso dugun laguntzagatik.

Txostenaren azken testua atzo onetsi zen (maiatzaren 25ean), eta jende ororen eskura dago gure web orrialdean.


Kontseiluaren funtzionamenduaren berri ez dakitenei ohartarazi behar diet ezen txostenean ez direla jaso diren ekarpen guztiak jasotzen, hezkuntza-komunitateak gehiengoz adostu dituen ekarpenak baino ez baititugu islatu. Hainbestez, muga eta balio hori du. Agian ez duzue bidali dituguen gauza oro aurkituko, baina denok gaude ados txostenean biltzen diren gai guztiekin, eta aski ongi dakigunez, arras garrantzitsuak dira hori.

Zer dela eta txosten hau?

Azken hamarkada hauetan aldatu egin dira kirolak gizartean duen balioa eta esanahia. Kirolaren presentzia zeharo hazi da komunikabideetan, bai eta kirol ikuskizunen kopurua, kalitatea eta ospea ere; ildo horri jarraiki, hiritarrek errazago dute kirol jardueran orotan jardutea eta duela urte batzuk baino baliabide eta material gehiago izaten dituzte eskura.

Kirolariak famatuak dira, eta are, haur, nerabe eta gazteentzako eredugarriak.

Kirola zuzenean loturik dago bizi-baldintza



desiragarriekin, hots, osasunarekin, ongizatearekin, bizi-kalitatearekin, jostetarekin, jolasarekin...

Orobat, gure eguneroko ekintzetan eta elkarriketetan islatzen da; informazioa, iritzia eta komunikazioa eragiten ditu; identitateak eta loturak, mitoak eta errituak sorrarazten ditu; ezagutza, ikerketa, enplegua, teknologia eta aberastasuna sortzen ditu... Badakigunez, gizarte, kultura eta ekonomia alorretan hedatzen ari den fenomeno da.

Nafarroako Eskola Kontseiluak badaki, jakin, kirolak bere alderdi guztietan garrantzi handia duela, eta horrenbestez, txosten honetan bi galdera hauetarako erantzun egokiak bilatu nahi izan ditugu:

Errealitate berri honi begira, nola ari gara etorkizuneko belaunaldiak hezten?

Ba al dugu Nafarroan kirolaren arloko profesionalak trebatzeko eskaintza aski?

Gure interesak askotarikoak ziren, bai, baina gure aukerak mugaturik zeuden; beraz, lehentasunezkoztat jotzen ditugun bi alderdi jorratu ditugu; alderdi horiek txostenak dituen bi zatietan jaso dira:

(Txostenaren testu osoa 25. orrialdean dago)

1. Jarduera fisikorako eta kirolerako prestakuntza gazte-gazterik hazi behar da, hau da, derrigorrezko eskolaratze-aroan. Hala, pertsonaren hezkuntza integralerako

osagaitzat hartu behar da, hots, bizitza osasungarri eta kirol jarduerarako aztura egokiak bideratu eta sustatzeko tresnatzat.

2. Pertsonen prestakuntzaren eretzean hagitx garrantzizkoak diren banako baloreak eta gizarte-baloreak eskuratzeko hezkuntza-esparru egokia ematen du kirolak: esfortzua, uneoro hobetzeko grina, autoestimazioa, autokontrola, diziplina, jokabide etikoa, erantzukizuna, elkartasuna, talde-lana, elkarretaratzea, adiskidantza, lankidetzatza, tolerantzia, begirunea, berdintasuna...

Horren guztiaren ondorioz, eskola-adinean kirol arloko irakaspenak ematearen eta kirol jardueretan murgiltzearen xedea on-dokoa izan behar da, bai eskola-eremuan eta bai eskolaz kanpoko eremuetan ere: arestion aipatu baloreak norberarenganatzatzea eta kirolak prestakuntzaren eta jostetaren alorretan dituen alderdi egokiak lehenestea, lehiaren alorreko alderdien gaitetik. Eskola ez ezik, familiek eta kirol jarduerak antolatzen dituzten erakundeek ere partaide jardun behar dute eskola-adinetan kirol munduan murgiltzeari dagokion ikuspegi honetan.

3. Egun, eskola-umeentzako jarduera fisikoei eta kirol jarduerari dagokien egitarau-eskaintza handia dago. Hala ere, dena delakoagatik, Nafarroako eskola-ume guztiek ez dituzte kirolean jarduteko aukera berak.

Egitarau horiek antolatzen jardun ohi dituzten erakunde publikoek eta pribatuek kontuan hartu behar dituzte kirol jarduerak burutzea eragozten duten inguruabarrak, eta hori oro konpentsatzen saiatu. Bereziki, gomendagarria izango litzateke ondoko egoera hauek konpentsatzeko neurriak hartzea: minusbaliotasunak, baliabide ekonomiko aski ez edukitzea, kirol arloko dinamizatzailek ez izatea eta kirol instalazioak ezin erabili izatea.

4. Kirola da, izan, eskolaz kanpoko eta aisiako jarduerarik ohikoena. Lehen hezkuntzako eta DBHko ikasleen % 75ek kirol jardueraren bat egiten du, astean ia bost ordutan, batez beste. Hala ere, neskek mutilek baino kirol gutxiago egiten dute, eta kirol jarduerak behera egiten dute hamabi urtetik aurrera.

Nafarroako eskola-umeek 12 urtetik aurrera kirol jarduerak uzten joatearen kariak ikertu behar ditugu, eta bai emakumeek kirolarekiko interes gutxiago izatearen zioak ere. Hagitz gomendagarria



izango litzateke sektore horietan kirol jardueren eta jarduera fisiko ororen onurak sustatzeko ekintzak abiaraztea.

5. Ikastetxea bera izan behar da eskola kiroleko egitarauari eutsiko dien ardatz nagusia, betiere bere hezkuntza-egitasmoarekin bat etorritik.

6. Eskola-adineko kirol jardueretan, kirolaren alorrean trebakuntza eta eskarmentu oso diferenteak dituzten pertsona anitz aritzen dira entrenatzaile edota monitore gisa. Behar-beharrezkoa da eskola kirolean beren beregiko prestakuntza-planak abiaraztea, pertsona horien gaitasuna hobetze aldera, bai entrenamendu-atazei dagokionez eta bai eskola-umeen monitoretza eta zuzendaritza alorretako atazei doakienez ere. Bereziki, oso garrantzizkoa da monitore nerabeek prestakuntza hori jasotzea.



7. Hagitz egokia izango litzateke zenbait alderditan eskola-umeentzat kirol arloan xedaturik dauden egitarauen egungo araupeketak garatzea, ondoko gai hauek zehaztuz: egitarauon ezaugarriak, jarduera motak, teknikarien medikuntzaren arloko zaintza, segurtasuna edota trebakuntza.

Prestakuntza hori gauzatze aldera, hezkuntza sistemak bi bide eskaintzen ditu, biak ere derrigorrezko bigarren hezkuntzaren osteko tartean:

Alde batetik, lanbide heziketari doazkion irakaspenak, jarduera fisikoei eta kirol jarduerari buruzkoak (erdi maila eta goi maila).



Eta bestetik, araubide bereziko irakaspenak, kirol modalitate edo espezialitate zehatzei dagozkienak (futbola, saskibaloia, eskubaloia eta abar).

Txostenean, bi bide horietako bakoitzari dagokionez, honako gai hauek jasotzen dira: irakaspen horiek Nafarroan duten ezarpena, irakaspenon egitura, atzitzeko beharkizunak, iraupena, titulazioak, zikloak amaitu osteko aukerak eta baliozkotzeak.

Nafarroan, mugatua da kirol arloko teknikariak prestatzeko eskaintza:

Lanbide heziketaren adarrean hiru ikastetxetan (Irunberri, Lekaroz eta Tuteran) “Jarduera fisikoak eta kirol jarduerak natura-ingurunean gidatzea” izeneko erdi mailako irakaspenak eskaintzen dira, eta ikastetxe batean (Irunberri), berriz, “Jarduera fisikoen eta kirol jardueren animazioa” izeneko goi mailako irakaspenak.



Nafarroan ez dago araubide bereziko kirol irakaspenik eskaintzen duen ikastetxe baimendurik, irakaspen hauen antolamenduari buruzko Errege Dekretuetan araupeturik dagoenaren arabera. Horren ondorioz, gure Komunitatean kirol hauetan ezin da erdi mailako eta goi mailako kirol teknikariari dagozkion titulu hauek eskuratzeko irakaspenik jaso: futbola, areto-futbola, saskibaloia, eskubaloia, atletismoa, neguko kirolak, mendiko kirolak, eskalada eta espeleologia.

Aitzitik, Nafarroako Kirolaren Institutuak eta Kirol Federazioek zenbait modalitatari dagozkien ziurtagiriak jasotzeko lehen maila eskaintzen dute; ondokoak dira modalitateok: taekwondo, karatea, kenpoa, kick-boxing, tenisa, piraguismoa, txirrindularitza eta bela. Hain zuzen ere, modalitate horiek errege dekretu egokien bidez oraindik araupetzeko daude, eta epealdi iragankorrari atxikitzen zaizkio. Logikoaenez, gutxienez kirol modalitateak dira, hots, lanbidean egikaritzeko aukerarik gutxienez dituztenak.

Espainian, araubide bereziko kirol irakaspenen eskaintzak banaketa ezberdina du autonomia komunitateetan. (komentatu)

Nafarroan halako irakaspenik ez dagoenez, gizariek ez daki horien berri eta aski ezezagunak dira hezkuntza sistemaren orientazio-zirkuituetan. Interes edota jarrera berezia duten ikasleek baino ez dituzte irakaspen horiek atzitzen. Ez dakigu Nafarroako zenbat ikasle ari diren beste komunitate batzuetan kirol irakaspenak hartzen; bestalde, ez da zenbatetsi modalitate ezberdinak jasotzeko

eskari potentziala, baldin eta irakaspen horiek guztiak, osorik edo partzialki, Nafarroan jaso ahal izan balira.

Dena den, beste komunitate batzuek emandako datuak eta Lanbide Heziketako goi mailarako eskabide kopurua kontuan hartuta,



irakaspen horiek oro eskari handia dutela begitantzen zaigu.

Nafarroako Eskola Kontseiluaren aburuz, hagitx interesgarria izanen litzateke araubide bereziko kirol irakaspenak eskaintzea; izan ere, egun prestakuntza arloan baden eskaintza zabaltzeko edota ikasle askoren igurikimenei erantzun egokia eman ez ezik, ikuspegi estrategikotik eta aurrerabidearen ikuspegitik begiraturik, herrialde honetan jardura ekonomiko berriak, enplegua eta aberastasuna ere sortuko lirateke.

Horren guztiaren ondorioz,

1. Nafarroako Eskola Kontseiluak honakoa eskatzen die administrazio eskudunei: administraziook modu koordinatuan joka dezatela, ikasle nafarrek kirol teknikariari doazkien prestakuntza-aukera guztiak atzitu ahal izan ditzaten, ahalik eta baldintzarik onenetan, bai Komunitatean bertan, bai beste autonomia komunitate batzuekin lankidetzarako bideak urratuz eta baliabideak errentagarri bihurtuz.

Horretarako, araubide bereziko kirol irakaspenak abian jarri behar dira:

Nafarroari dagokion esparruan, tituluei eta gutxienezko irakaspenei buruzko Errege Dekretuak garatuz.

Ikastetxeen irekiera eta funtzionamendurako administrazio-baimenak jasotzeko prozedurak araupetuz.

Ikasketa horiek jasotzen dituzten ikasleen ebaluazioei, egiaztatze akademikoei eta mugikortasunari dagozkien prozesuak araupetuz.

Bigarren Hezkuntzako eta Batxilergoko Graduatu titulurik gabeko erdi mailako eta goi mailako irakaspenak atzitzeko gaitasun-frogak araupetuz.

2. Azkenik, Nafarroako Eskola Kontseiluaren iritzian, kirolaren arloko irakaspenen balizko plangintza gertutzeko, egungo egoera hartu behar du oinarri; horri dagokionez, irakaspen mota hori jorratu ohi duten ikastetxe eta erakundearen eskarmentua eta baliabideak aprobetxatu behar dira.



KIROLA, GIZARTEA ETA HEZKUNTZA

ALBERTO UNDIANO
Nazioarteko futbol-epailea

CARMELO PANIAGUA
Espainiako Batzorde
Olinpikoko presidenteordea,
Espainiako Patinaje
Federazioko presidentea

Alberto Undiano Mallenco Iruñean jaio zen duela 36 urte. Ezkonduta dago, bi seme-alaba ditu, NUPen Soziologia Lizentziatura egin zuen eta UNEDen Politika Zientziak.

Albertok Iruñeko Udaleko Gizarte Ongizate arloan egin du lan. Hala eta guztiz ere, Alberto ez da bere gaztarogatik ez eta bere prestakuntza akademikoagatik ere ezaguna gure herrialdean. Adibidez, norbaitek kuriositatez Interneten bere izena eta bi abizen idazten baditu, Googlen 50-50.000 sarrera inguru dituela ikusiko du eta, gizarte sareren baten kide ere badela.

Alberto Undiano arbitroa da 14 urte bete zituenetik. Lehenengo Mailan 2000. urtean hasi zen arbitratzen. 2004. urtean nazioartekotasuna lortu zuen. Mundu arbitralean duen ospea azpimarratzekoa da. Aipa dezakegu, besterik gabe, aurren Barça-Real Madrid klasikoa arbitratu zuela eta, azken jardunaldian, baita Málaga-Real Madrid partidua ere. Lehen Mailako arbitroek, aurren, Espainiako ligako Lehen Mailako arbitrorik onentzat jo dute. 2007an Sub-20 Mundialeko finala arbitratu zuen, Kanadan, eta 2008an Errege Koparen finala. Nafarrok harro sentitzen gara ekainaren 11n hasiko den Hegoafrikako Mundialean egongo den Espainiako arbitro bakarra izango delako. Egun hauetan, komunikabideek zioten Javi Martínez izango zela Mundialean egongo zen Nafarroako ordezkari bakarra, baina, gutxienez, bi izango dira: Javi eta Alberto Undiano.

zalea den lankide batek esan zidan moduan, arazo bakarra nafarra izatea da, horregatik ezin baitu gure Osasuna maitea arbitratu.

Alberto Undianoren hitzaldia

Arratsalde on guztioi. Lehenik eta behin, eskerrak eman nahi dizkiot Nafarroako Eskola Kontseiluko presidente andeari jardunaldi hauetan parte hartzera gonbidatu izanagatik. Oso pozik nago hemen egoteagatik, atsegin handiz etorri naiz, egun hauetan lanpetu samar nagoen arren, berehala Hegoafrikara joango bainaiz.

Jardunaldi hauetan emango dudana ekarpena beharbada ez da izango eskola ordue-tan egiten diren jardueren ikuspuntutik, izan ere, argi dago zertxobait ahaztuta ditudala, baina arbitro gisa lan egiten dudanean eta erkidego honetan horrenbeste egiten diren eskolaz kanpoko jardueren ikuspuntutik maiz ikusten ditudan hainbat gauza gainera ditzaket.

la ezinezkoa da gaur egungo gizartea kirolrik gabe ulertzea. Hezkuntza kontseilariak aipatu duenez, herritarren % 10 baino gehiago dago Nafarroako kirol federazioren baten barnean, baina ez dugu zertan datu hori ezagutu, izan ere, Gazteluko Inguruna oraintxe bertan ateratzen bagara, agerikoa da adin guztietan kirol asko egiten dela. Argi dago kirola ez dutela osatzen lehiaketa handiek, olinpiadek eta futbol mundialek bakarrik, kirol parte-hartze indizirik handiena adin gazteenetan aurkitzen dugu.

Aurreko hitzaldietan entzun dudanez, badirudi 12 urteetan dagoela inflexio-puntua kirola egiteari uzten dioten gazteen ehunekoan. Nire ustez, hortxe egon daiteke gazteak erakartzen saiatzeko gakoetariko bat, kirola egiten jarrai dezaten eta gaur egun gazteek dituzten beste arazoei lotutako jardueretara jo ez dezaten (alkohola, drogak...).

Kirol hezkuntzaren mundua eta gazteenen kirola hainbat sektorek osatzen dute.

Lehenengo, heziketa fisikoko irakasleen eremua dugu. Jardunaldi honetan halako irakasle ugari zaudete, eta dagoeneko zuen kezka azaldu dituzue. Arestian entzun dut asteroko 2 orduen aldarrikapena eta ikusten dudanez, duela urte asko genuen egoera berean jarraitzen dugu, orduan ere asteroko 2 ordu baikenituen. Egia da onuragarria litekeela ordu gehiago izatea, baina eztabaida zaila da. Heziketa fisikoko irakasleak abantaila bat dauka, ikasle gehienentzat ikasgairik gogokoena baita, eta klase horretara joatean

Albertok duela gutxi Futbol Federazio Nazionalaren web orrian egin zioten elkarrizketa batean adierazi zuenaren arabera, bere ibilbidea harekin batera dauden marrazain taldeari esker bakarrik izan da posible, eta arbitrajeak pertsona gisa hezten laguntzen dio.

Eskola Kontseiluak eskerrak eman nahi dizkio hona etorri izanagatik, Hegoafrikara bidaiatzeko zorian dagoenean. Nire antzera nahiko futbol-

Aurkezlea :

Jesús M^a Ezponda
Nafarroako Eskola
Kontseiluaren mahaikidea :



ingurunea, jarduera aldatzen dutelako eta, orokorrean, beste ikasgaiak baino askoz ere modu baikorragoan hartzen dute, askoz ere lasaiago daude eta euren gogo guztia jartzen dute kirol-jarduera hori egitean, zenbaitetan eginkizun zaila ere duten arren. Beste ikasgaiekin parekatuz, besteak beste, zientziak, matematikak, printzipioz ahalegin handiagoa eskatzen baitute, heziketa fisikoko klaseetan lasaiago egoten dira ikasleak. Irakasleen zeregina oso ona da, oso garrantzitsua, ez baita kirola bakarrik sustatzen, beste balio batzuk ere badaude, sakrifizioa, adiskidetasuna, etab. Eskola utzi eta urte asko igaro badira ere, heziketa fisikoko irakasle guztien izenekin oroitzen naiz, eta datu hori zerbaitengatik dela uste dut.

Eskolaren eremutik kanpo, eskolaz kanpoko jarduerak ditugu. Edozein ikastetxetik eskola-orduetatik kanpo pasatzea besterik ez dugu, jarduera horietan parte-hartze oso handia dagoela ikusteko. Hemen entrenatzailearen, prestatzailearen papera sartzen da, oso paper garrantzitsua dauka eta gero eta zainduago dago. Arestian euren prestakuntzaren gaia atera da, oso garrantzizkotzat jotzen dudana. Askotan haurrak uzten ditugu benetan prestatuta egon behar duten pertsonen eskuetan, izan ere, astero ordu asko igaroko dituzte haiekin batera. Entrenatzaileak, prestatzaileak, heziketa fisikoko ikasgaian sustatzen diren balio berak sustatu behar ditu, futboleko, saskibaloian edo gimnasian ongi aritzen irakasteaz gain. Adiskidetasuna, arbitroekiko errespetua, etab. bezalako balioak sustatzea funtsezkoa da, batez ere gazteen artean, etorkizuna zehaztuko baitute.

Kirola egitearen kontuan dagoen hirugarren arloa gurasoak dira. Talde horretan, gurasoak, osaba-izebak, aitona-amonak... hartzen ditut barne, entrenamenduetara eta asteburuetako partiduetara joaten direnak, eta oso eginkizun garrantzitsu eta erabakigarria dutenak.

Duela urte asko futboleko arbitro bat eza-gutu nuen eta esaldi bat esan zidan, benetan gogorra dena, baina nolabait egia dena: "Ez nuke karrera amaitu nahi umezurtz talde bat arbitratu gabe". Batez ere gurasoen esku-hartzeekin oso nekatuta zegoelako esaten zuen. Orokorrean, eta gero eta gehiago, gurasoak gero eta paper zuzenagoa dauka eta bere gain hartzen du. Partidua irabaztearren haurrei presiorik sartu ezin zaiela ulertzen goaz, haurrei ezin diegula euro bat eman gol bat sartzeagatik, ezin dugu onartu haurra etxera heldu eta gurasoek aurpegi txarrez hartzea taldeak partidua galdu duelako. Haurra, adin horrekin, ez daki benetan partidua irabazi edo galdu duen. Zenbaitetan bideo-kamera bat aterako nuke eta gurasoen jarrerak grabatuko nituzke (gurasoak diodanean senideei


buruz ari naiz: gurasoak, aitona-amonak, osaba-izebak, lagunak...), gero etxean ikus zezaten, ziurrenik lotsatuko baitziren euren buruak ikustean. Hobetzen ari garela uste dut, eta eskolaz kanpoko jardueretan hainbat egoera gertatzea, arbitroari, kontrakoei oihu egitea adibidez, haurrentzat kaltegarria dela. Haur horiek, lehenago edo beranduago, gurasoek egiten dutena egingo dute, arbitroari oihuka edo irainak botatzen dizkiotela ikusten badute. Arrunta bailitzan ikusiko dute eta gauza bera egingo dute.

Gauza asko ikusi ditut zelaietan eta egia esan, aski da liburu bat idazteko. Ikusi dudana azkeneko gauza, eta bitxikeria gisa kontatuko dizuet 7 urteko haurren futbol partidu batean izan zelako. Txapelketa amaitzeaz zegoela, gurasoak ikusi nituen 7 urteko haur taldearen atzetik heltzen xanpain botilak zituzten poltsekin, euren semeek irabazten bazuten, txapelketako irabazleak izango zirela ospatzeko. Ez dut uste 7 bat urteko haurrek irabazle izatea zer den dakitenik, nahiz eta dagoeneko lehiakorrak izaten hasi, baina xanpainak esan nahi duena eta halako ospakizunak urruti samar dituzte. Haien zoritxarrerako, aipatu gurasoen semeek 12-2 galdu zuten, ez dakidana da xanpaina non geratu zen. Bitxikeria horrek egiten ari garenari buruz pentsarazi beharko gintuzke.

Kirola egiteak duen alderik garrantzitsuena, zalantzarik gabe, haurra da, nerabea, kirola egiten duen pertsona, bai eskola orduetan bai eskolaz kanpokoetan. Haurrak hautatu behar du egin nahi duen kirola, betiere, gurasoen baliabideak, ordutegiak... kontuan hartuta. Izan ere, ezin dugu onartu haurrak futbola, taekwondo... egin

nahi duela esatea eta gurasoek ezin eraman izatea, jarduera egiteko dirurik ez izatea edo denborarik ez edukitzea. Ezinbestekoa da gurasoen eta haurren artean adostea. Garrantzitsua da gurasoek ez ezartzea haien semeak edo alabak egingo duen kirola, haurren gustuen edo gaitasunen kontra.

Gizarte hau hain lehiakorra izanik, eta haurrek "irabazteak" duen garrantzia oso goiz antzematen dutela kontuan harturik, zaila da haurrei helaraztea jolasteak daukala garrantzia, ongi pasatzeak eta, batez ere, hasierako urteetan, adiskide ona izatea, hobetzea, errespetua... zer den ulertzen



joateak. Zaila da, baina nire ustez, guztion artean (gurasoak, entrenatzaileak, heziketa fisikoko irakasleak) lor dezakegula. Adin horietan etorkizunaren oinarriak finkatzen ari dira, eta oso garrantzitsutzat jotzen dut hori guztia lortzea.

Amaitzeko, esan nahi dizuet, askok dakizuen moduan, kirola “gozamina” dela, haurrek, nerabeek, kirola egiten duten bitartean ez dute beste ezertan pentsatzen. Gaur egun garai zailak bizi ditugu, gero eta arrisku gehiago daude, eta gazteak eskolako patioan edo gimnasioan dauden bitartean, ez dira beste gauzetan pentsatzen arituko, nahiz eta horrek ez digun bermatzen % 100ean norabide osasuntsuak eramango dituztenik. Nafarroan parte-hartzea oso handia bada ere, handitzen saiatu behar gara.

Nire hitzaldiaren amaierako zati gisa, aldagela askotan omen dagoen eskutitz batekin gogoratu nintzen, ziurrenik zuetariko askok dagoeneko irakurriko zenuten horrekin. Sinatu gabeko eskutitza da, ez dakigu nondik atera zion, batzuek diote ikasle batek aitari egin zion idazkia dela, beste batzuek eskutitzaren egiazkotasuna zalantzan jartzen dute, baina nire ustez, irakurtzea merezi du, benetako istorioa delako. “Aita, zertan zabilta?” izeneko eskutitza da. Zera dio,

“Ez dakit nola azaldu. Segur aski nire onerako egiten duzula uste duzu, baina eten-gabe arraro, deseroso, gaizki sentitzen naiz. Baloi bat oparitu zenidan ibiltzen hasi nintzenean bertan. Oraindik ez nindoan eskolara eta taldean nire izena eman zenuen. Asteazkenean entrenatzea gustatzen zitzaidan, lagunekin txantxetan ibiltzea eta larunbatetan jokatzeko, talde handiek egiten duten moduan, baina partiduetara joaten zaren... Ez dakit. Jada ez da lehen bezala. Orain ez didazu zaplata ematen partidua amaitzen denean eta ez nauzu freskagarri batera gonbidatzen. Harmailara zoaz guztiak etsaiak direla pentsatuz, arbitroak, entrenatzaileak, jokalariek, aurkako taldeko gurasoak... iraintzen dituzu.

Zergatik aldatu zara? Sufritzen duzula uste dut eta ez dut ulertzen. Hoberena naizela esaten didazu behin eta berriz, gainontzekoek nire alboa ez dutela ezer balio, kontrakoa dioena oker dagoela, irabazteak bakarrik balio duela.

Zure ustez traketsa den entrenatzailea nire laguna da, jokatzeko dudanean ongi pasatzen eta kirol hau maitatzen erakusten didana.

Aurreko egunean nire ordeza atera zen muti-larekin gogoratzen?, bai gizon, arratsalde guztian zehar kritikatu zenuen hori, zuk diozunaren arabera, poltsa eramateko ere

balio ez duen hori. Mutil hori nire klasean dago. Astelehenean ikusi nuenean lotsa eman zidan.

Ez dizut huts egin nahi. Batzuetan pentsatzen dut ez dudala kalitate nahikorik, ez naizela profesional izatera eta milioiak irabaztera helduko, zuk nahi duzun moduan.

Nekatzen nauzu. Taldea uztea ere pentsatu izan dut, baina horrenbeste gustatzen zait... Mesedez, ez nazazu derrigortu ni ikustera etor ez zaitezten eskatzera”.

Bitxikeria hutsa besterik ez da eta, aipatu dizuedan moduan, ez dakit zehazki nondik etorri den, baina badakit aldagela askotan dagoela, eta beharbada gogoetarako balioa zaie kirol jardueretan gero eta gutxiagotan ikusten diren “ardi beltz” horiei. Zorixarrez, uste dut futboleko topatzen ditugula halako “ardi beltz” gehienak, haurren artean zabalduen dagoen kirol-jardura baita, haur guztiek kirol horretan aritzeko joera izaten dute, eta futbola baino askoz ere kirol gehiago daudela uste dut. Futboletik nator, eta gauza asko zor dizkiot, baina baloreak sustatzen dituzten kirol askoz ere gehiago daude, askotan hau baino onuragarriagoak.

Eskerrik asko.

CARMELO PANIAGUA

Iruñean jaio zen, Alberto Undiano baino urte gutxi batzuk lehenago. Carmelo Paniaguari buruz hitz egitea patinajearen munduari buruz hitz egitea da. Patinen gaineko jockey jokalaria eta entrenatzailea izan da. Nafarroarekin duen loturari esker, San Antonio nazioarteko zirkuitua gure ekarri du gure hirira, garrantzia handiko mundu mailako proba. Espainiako Patinaje Federazioko presidentea da 2005. urteaz geroztik, 2008ko maiatzean berriz ere aukeratu baitzuten. Agintaldian zehar, Espainiak urrezko 3 domina lortu ditu jarraian patinen gaineko hockeyan. 2009an Espainiako Batzorde Olimpikoko Elikadura eta Ohitura Osasuntsuak Kirolean izeneko lantaldeko presidente aukeratu zuten eta, pasa den apirilaz geroztik, Espainiako Batzorde Olimpikoko presidenteordea da, hau da, foru erkidegoko gure ordezkari olinpikoen. Sarean ere bere garrantziaz jabe gaitzke, Albertorekin gertatzen den moduan. Interneten bere izena idatziz gero, 254.000 sarri baina gehiago dituela ikusiko dugu. Hala ere, gizarte-sarearen baten kidea da. Haren lekukotasunak Alberto Undianoren osatuko du, komunikabideetan patinajeak futbolaren oihartzunik ez baitauka, baina badauka kirolaren hezkuntza eta prestakuntza dimentsio hori.

Carmelo Paniaguaren hitzaldia

Arratsalde on.

Alberto Undiano baino gehiagotan egoten naiz gizarte sarean, baina, ziur nago, kirola ez den beste arrazoiengatik.

Nafarroako Eskola Kontseiluari eskerrak

Kirola beti jo da bitartekorik egokientzat pertsona eta gizarte mailan balioak eskuratzen.

... prestakuntza da:
hobetzeko grina,
ahalegina,
nekea,
integrazioa,
besteekiko errespetua,
tolerantzia,
arauak betetzea,
iraunkortasuna,
talde-lana,
diziplina,
erantzukizuna,
zintzotasuna,
leialtasuna,
joko garbia ...

eman nahi dizkiot, Teresari eta Jesús Mariri, hona gonbidatu nautilako eta zuekin une hauek partekatze aukera eman didatelako, guztiontzat emankorrek izango direlakoan bainago.

Proposatu diguten gaia zaila da “Kirola, gizarte eta hezkuntza”, eta orduak eta orduak egon gintezke horri buruz hitz egiten, alderdi eta gai asko hartzen baititu barne. Irakasle askok ikerketak, liburuak... egin dituzte gai honen inguruan, baina nik kirolean dudaren eskarmentutik hitz egingo dut, patinen gaineko hockey kirolari, kirol teknikari, Nafarroako Federazioko kirol zuzendari eta orain Espainiako Federazioko zuzendariorde naizen aldetik.

Nire eskarmentu pertsonaletik hitz egingo dut, urte hauetan bizi izan dudanez, eta hemen lortzen ditugun ondorioak praktikara eramatea gustatuko litzaidake. Errepikakorra izango naiz hainbat gaitan, izan ere, kirolean, hezkuntzan edo gizartearen, alor guztietan berdinak diren baloreak daude.

Kirola gertakari soziala da. Alor guztietan bizi dugu eta, noski, kirolak ondorio handiak dauzka gizartearen. Gure bizitzetan eguneroko kontua da, ia egunero hitz egiten dugu eguneko uneren batean kirolari buruz, kirol gertakariei buruz. Hori ez da gaur

egungo gauza, aspalditik dator. Kirola beti izan da kulturaren, hezkuntzaren, gizakia-
ren parte eta, beraz, gure bizitzan barre-
nean dago.

Hain da garrantzitsua kirola, non datozen ekainaren 1ean eta 2an, Europar Batasu-
nak, Espainiako presidentetza dela-eta, Kirol Goi-batzordearekin batera, Kirolari buruzko Europako Sinposioa egingo du gai horiei guztiei buruz hitz egiteko. Izenburua honakoa izango da: “Kirolean pentsatzea, itxuraldatzea. EBk XXI. mendeko herritarren alde egindako apustua”. Europako Ekono-
mia Erkidegoak, mundu osoko kirolari ga-
rrantzitsuekin, Madrilgo adierazpena ate-
rako du kirolaren etorkizuneko helburuak eta arlo horretan herritarrek dituzten esku-
bideenak zehazte aldera. Guztiak gonbida-
tuta zaudete. Informazioa web orrian aurki dezakezue eta ziur nago oso pozik egongo direla joaten bazarete. Ni bertan egongo naiz.

Eskola-garaiari buruz ari garenez, adin ho-
rretan oso garrantzitsua da haurrak haztea eta eskolaren alor horretan jarriko dut nire hitzaldiaren arreta.

Kirola egiten hastea oso garrantzitsua da. Ikastetxean hasten da eta bertan sustatu behar dira kirol jarduerak, eskola orduetan (nire ustez 2 ordu oso denbora gutxi da kirola sustatzeko) eta eskolaz kanpoko orduetan.

Hemen azaldu den txostena bat dator nik hainbat autonomia erkidegoetako eskole-
tan izan dudan praktikaren ikuspegiarekin. Bertara joaten naizenean errealtate hori antzeman dezaket eta alor hauei buruz asko hitz egiten da. Ehunekoak nahiko antzekoak dira, eta Nafarroan, tradizioz, kirolaren inguruko kultura eta praktika he-
datuagoa dago.

Berriro ere nabarmendu nahi dut ordu gutxi ematen direla eskolan jarduera fisikoak egiten. Badakit zaila dela, baina kirolak hezkuntzan eta gizartean duen garrantzia azpimarratzen ari bagara, garrantzi hori eskola garaiarekin lotu behar dugu eta ordutegia luzatu behar dugu, ondoren aipa-
tuko ditudan baloreak helarazteko. Gai-
nera, eskola orduetan kirol gutxi egiteak ondorio kaltegarriak izango ditu etorkizu-
nean. Horren orde, eskolaz kanpoko jardu-
erak daude, oso garrantzitsuak direnak, izan ere, ehunekoei jarraiki, bertan gara-
tzen dira gehien bat kirol jarduerak gure erkidegoan. Nafarroan kirol klub, polikirol-
degí, instalazio... asko ditugu jarduera ho-
riek egitea errazten dutenak. Gehienak pribatuak dira, baina badaude publikoak ere (udaletakoak). Beharbada hori ere go-
goan izan behar dugu. Gazteluko Ingurunea ez da udaleko instalazioa, baina hari esker kirol asko egiten da kalean, berez instalazio bat ez bada ere. Herritar guztiek kirola egin

dezaten erraztasunak eskaini behar dira, eta horretarako garrantzitsua da instalazi-
oak egotea.

Haurrei kirola erakutsi nahi badiugu eraka-
rri behar ditugu. Hainbat kirolen artean aukeratu dezaten eskaini behar diegu, ongi pasa dezaten, poztasuna senti dezaten, egiten duten kirola gogoko dutelako eta lagunekin elkartzen direlako. Haur hori, kirol instalazioetan kirola egitera erakar-
tzen dion eremu bat bilatu behar da. Lehen urteetan, hainbat kirol egitea komeni da, gehien gustatzen zaiena eta euren ezauga-
rrietara hobekien moldatzen dena aukera dezaten (futbola, badminton, mendia, patinajea...) Garrantzitsua da haurrak hau-
tatzea, Alberto Undianok bere erakusketan adierazi duen moduan. Gurasook seme-
alabentzat guk egin dugun kirola aukera-
tzeko akatsa egiten ohi dugu, hau da, fut-
bolean aritu bagara, haurra futbolari izan dadila nahi dugu. Nire semeari ez zaio pati-
najea gustatzen, tenisa gustatzen zaio. Hemen intrusismo asko dago familiaren alorrean eta hori ez da onuragarria, alde-
rantziz, kaltegarria da haurrak nahiago duen kirola egin dezan. Garrantzitsuena da berak gogoko duen eta ongi pasarazten dion kirola egin dezan.

Beste batzuetan, haurrak komunikabideen, gizartearen, elitezko kirolarien eragina dela-
eta aukeratzen du egin nahi duen kirola, telebistan ikusten dituelako kirol ekitaldiak eta ulergarria da, une honetan, haur askok Rafael Nadal izan nahi izatea, edo Raúl, edo Gemma Mengual igeriketa sinkroniza-
tuan, edo Marta Domínguez atletismoan edo Alberto Undiano, arbitro gisa dugun erreferenterik handiena baita. Ikono horiek dira eragina dutenak haurrak kirol bat edo beste egiterakoan. Bost kirolari horiek ai-
patu ditut, oso ongi ezagutzen ditudanak, guztiek helarazten dituztelako eskola garai-
tik irakatsi behar ditugun kirolaren balioak.

Kirola beti jo da bi-
tartekorik egokien-
tzat per-
sona eta
gizarte
mailan
balioak
eskura-
tzeko.
Gizartean denok dakigu zer no-
lako ga-
rrantzia duen kirolak eta, noski,

kirola bizitzaren errealtatea gainditzeko prestakuntza da: hobetzeko grina, ahale-
gina, nekea, integrazioa, besteekiko erres-
petua, tolerantzia, arauak betetzea, iraun-
kortasuna, talde-lana, diziiplina, erantzuki-
zuna, zintzotasuna, leialtasuna, joko gar-
bia... Balio horiek guztiak helarazi behar dizkiegu kirola egiten duten haur eta gaz-
teei. Balio horiek guztiak kirola egitean lor-
daitezke, batez ere heziketa fisikoko irakas-
leengandik, garrantzi handia duten irakas-
leengandik.

Nire heziketa fisikoko irakasle guztiak ere gogoratzen ditut. Garai haietan klaseak praka motzetan egiten ziren, korrika egin, besoe-
kin 20 flexio egin... eta hori zen dena. Ez zegoen gauza handirik kirolarekin jarrai-
tzera animatzen zintuenik. Gaur egun egi-
ten den heziketa fisikoa egin izan banu!

Lehen aipatu ditugun kirol jarduera horien entrenatzaileok titulazioen garrantzia izan dugu hizpide.

Kirolaren eta hezkuntzaren artean ados jarri beharko dira, izan ere, Nafarroan ba-
dago akatsen bat eta hori konpondu behar da. Ez dakit erruduna hezkuntza edo kirol erakundea den, baina gau hau konpondu behar dugu Nafarroan kezka handia bai-
tago kirol titulazioekiko eta ez gara beti “iragankortasun” horrekin egongo. Goazen behingoz saiatzera.

Baita bereziki familia ere. Hau da, heziketa fisikoko irakasle bikaina daukat, ikaste-
txean entrenatzaile bikaina, baina etxera heltzean senideek kirolak dakartzan balio horiek helarazten ez badituzte, ez gara inora helduko. Balio horiek garapen fisikoa, intelektuala, soziala eta pertsonarena era-
batekoa izan dadin laguntzen dute eta, noski, bizi garen munduan hobe gizartera-
tzen.

Kontuz ibili behar dugu, nik ere bizi baitut



egoera hori, zenbaitetan balio, kirol edo gizarte fenomenoek lagundu beharrean kaltetu besterik ez baitute egiten. Batez ere futboleko ikusten diren eragin txar horiek erlatibizatu behar dira. Futbolak duen gehiegizko balio ekonomikoari dagokionez, izan ere, Mourinhok urtean 10 milioi garbi ko-bratuko zituela entzun nuenean, hori ezin diegu hurrei helarazi, baina etengabe halakoak irakurtzen dituztela, telebistan entzuten dituztela uste dut. Beraz, kontuz ibili behar gara gai horiekin eta erlatibizatu behar ditugu, eta kasu horiek salbuespenak direla azaldu behar diegu, hori kaltegarria baita lehen aipatu ditugun balioak helarazteko. Zuzendariak, gurasoak, irakasleak bakoitzari dagokigun rola geure gain hartu behar dugu eta ahalegin handia egin balio horiek helarazteko. Balio horiek helarazi ondoren, umeari gogoko duen kirola gogoko izatera, mugitzera, irakatsi diogunean, hori guztia onuragarria da gizartearentzat. Eta kirola egiteak gizartean dakarren onura zenbatezina da.

Gaur hizpide dugun alorretik, kirol irakas-kuntzetatik, haurtzaroan, nerabezaroan eta pertsonaren etorkizunaren eraginean, dena izan daiteke onuragarria.

Osasunaren ikuspegitik, denok dakigu ariketa fisikoa osasunerako onuragarria eta egokia dela, ez bakarrik haurrentzat, baizik eta kirola egiten duten pertsona guztientzat. Gainera, badakigu osasun onak laguntzen duela endekapenezko gaixotasunak ekiditen, gaixotasun kardiobaskularrak ez izaten eta pertsona fisikoki eta mentalki garatzen. Halaber, gaur bertan egunkarian irakurri dudako artikuluan irakurri dudako moduan, funtsezko arazo bat dugu, obesitatea, mugimendu gutxi egiteko joera dela-eta larriagotuta, gizartean dugun benetako arazoa da: obesitatea haurtzaroan. Behin eta berriz hizpide dugun gaia da, baina egin behar duguna hori konpontzea da.

Horretarako, kirola egin behar da eta familiar hezkuntza ona eman behar dute. Badago halaber ohitura osasuntsuen gaia. Hain zuzen ere, Espainiako Batzorde Olimpikoko *Ohitura Osasuntsuak Kirolean* izeneko lantaldeko burua naiz, eta nire ustez, haurtzaroan bertan irakatsi behar dizkiegu ohitura osasuntsu horiek, horrela arazoak ekidindo ditugu nerabezaroan eta helduak garenean, eta gizartean aurreztuko dugu.

Sasoi onean egotea osasuntsu egotea da. Sasoi onean egoteko, kirola egiteaz gain, osasuna hobetzeko, haurtzaroan ohitura osasuntsuak izan behar direla irakatsi behar diegu, hala nola, elikadura, ongi jaten irakatsi behar diegu. Aurreko egunean Antonio Escribano doktoreak emandako hitzaldi batean entzun nuen hurrek fruta eta barazki gutxi jaten dituztela. Hurrei euren

gustuko frutak jaten irakatsi behar diegu, adibidez, meloizko mokaduak, eta horretan ere dihardugu batzorde honetan; horrela, haurrak etxera heltzean, bokata bat jan beharrean, meloizko edo sandiazko mokaduak jango dituzte. Ikusiko duzun moduan, irudimena erabil dezakegu haurrak janariaren ohitura osasuntsuak eskura dituzten eta horren bere osasunean eragina izan dezan, buruko eta gorputzeko garbitasuna suspertzeaz gain. Kirolari guztiak, kirola egin duten guztiak, garbienak dira, buruari zein gorputzari dagokienez.

Osasuntsuak ez diren ohituren artean, tabakismoa ere ekidin behar dugu, gizartean guztiz barreiatuta dago eta batzuetan ez gara ohartu ere egiten. Kirol instalazioetan erretzaileak ikusten ditudanean harrituta geratzen naiz. Alkohola gauza bera da, gizartean sartuta dago, drogak...

Telebistan ikusten ditugu kaltegarriak diren eta ekidin behar ditugun kontu horiek guztiak. Argi dago, gizartearen barnean, haurrak kirola egiten duenean harreman pertsonalak hobetzen dituela, inguruan dituen gizarte taldeetan barneratzen ikasten duela, taldean konpromisoak hartzen, solidario eta eskuzabala izaten, azken finean, gizarteak kirola egiten lortzen dituen baliokak dira.

Alderdi ekonomikoa ere barnean dago, eta aurretik aipatu ditugun gaitara gatoz berriro ere. Kirolaren inguruan milaka milioi mugitzen dira, ikaragarria da: kirolari esker bizi diren industriak, kirol-materiala, babesleak, irteera profesionalak, entrenatzaileak, GHINko irakasleak, fisioterapeutak, medikuak, kirol-medikuak, zuzendariak, kazetariak (Espainian zenbait kazetari Real Madrid eta Barça taldeei esker bakarri bizi dira). Badaude kirolari esker bakarrik bizi diren kazetari asko, diru asko mugitzen



duen irteera profesionala da. Espainian gehien irakurtzen den egunkaria Marca kirol egunkaria da. Gainera, badaude beste arlo kultural batzuk gizartean eta kirolaren eremuan eragina dutenak: kirolaren eremutik erreferentzia hartzen duten pintura, argazkilaritza, zinea, arkitektura... bai eta teknologia, ikerketa, soziologia, etab.

Ondorio gisa, zera adieraz dezakegu:

Hezkuntza Saila eta Kirol Erakundearen arteko akordioa entrenatzaileak prestatzeko.

Haurrak kirolarekin goza dezan heztean, bere gustuko kirola aukera dezan eta kirola egitean ongi pasa dezan.

Kirola egiteak dituen balio positiboak helaraztea: osasuna, diziplina, eskuza-baltasuna, ohitura osasuntsuak, nagitasuna kentzen laguntzea... izan ere, zenbaitetan sofak eserita egotea telebista ikusten edo ordenagailuan ez da horren ona. Nagitasun hori gainditzeko lagundu behar diegu, kirola egin dezaten animatuz, jarduera horretan lagunduz, lagunak elkarrekin joan daitezkeen proposatuz



“goaz kirola egitera” bezalako mezu baten bidez. Batzuetan dei baten zain gaude txandal bat jarri eta korrika has-teko.

Familian seme-alabak kirola egitera bultzatzea. Azaldu behar diegu kirola egitea ez dela ikasteari uztea, ez dela ateratzeari, ongi pasatzeari uztea, badakigu gero hemen parte hartuko duten kirolariek ongi pasa dutela... baina planifikatu ere egin dira. Planifikatzen lagundu behar diegu.

Administrazioei eskatu behar diegu kirola egiteko beharrezkoak diren bitarteko guztiak jar ditzaten.

Horrekin guztiarekin, kirolak gizartea eta etorkizuna hobekien izan daitezkeen lagundu dezaten lortuko dugu.

Nacho Arbeloa:

Kirola egiteari esker osasunean aurretzen dena azpimarratu nahiko nuke. Kirolean inbertitzen den euro bakoitzak osasunaren alorrean aurretzea dakar, mugimendu gutxi egiteak dakartzan gaixotasun guztiak direla eta.

Nabarmendu nahiko nuke Iruñeko herritarren % 40 kirol instalazio pribaturen batean harpidetza egin duela, eta Iruñeko Udaleko hiru kirol instalazioek instalazio publikoetatik kanpo geratzen den balizko eskaera horri erantzuna eman behar diotela.

Gainera, zortzi udal-polikiroldegi daude. Guk, NKItik, Iruña eta bere eskualdeko kirol instalazioei dagokienez, horien bideragarritasunari buruzko gogoeta egitea proposatzen dugu, gerta daitekeen handitzea eskatu aurretik.

Gogoeta egin nahiko nuke eta azpimarratu, txostenean heziketa fisikoko klaseei eta titulazioei buruz hitz egin dela, eta eskolaz kanpoko kirol jarduerak tartean utzi direla. Kirolari buruzko III. Batzarrean (2007) adie-

razi zenaren arabera, egungo ereduaren erantzuna ematen ari zen, baina beharbada hutsuneak zituen, batez ere zenbait kirol elkartek gehiegi, goizegi baztertu zutelako kirola ikastetxeetan.

Guk egin genuen plan estrategikoaren diagnosian, eskolako kirolaren alorrean, argi geratu zen gai hori, eta

Kirol Kontseilu Gorenak, bere plan integratuean ere adierazi zuen ikastetxeetan goizegi baztertzeko dela kirola eta, txostenak aipatu ahal izan duen moduan, 12 urtetatik aurrera baztertzeko da, beharbada nabarmenki, kirol-maila zorrotzagoa denean.

Txostenak proposatzen duenaren arabera, ikastetxeak berak garatu behar du eskolaz kanpoko kirola ikastetxearen proiektuaren barnean, kirol eskaerari erantzuna eman diezaien, ikastetxearen proiektuaren barnean konpon dezaten, ikastetxearen proiektuaren zatitzat har dadin.

Zuek bat egin dezakezue diagnosi horretan: hasierako urte horietan kirola ikastetxean bertan bildu dadin eta hortik aurrera ondoren kirol-elkarteetan gara dadin, oinarritzko errendimendua edo talentu gazteen errendimendua bila dezaten, etab., ondoren gerta daitekeen akatsean eror ez daitezkeen kirola goizegi baztertzeagatik.

Carmelo Paniagua

Nik dudak eskarmentua kontuan hartuta, eskolan hasi behar da kirola egiten. Behin haurrak maila jakin bat lortzean, egia da zuk diozuna, klubetara joaten ohi dira eta bertan, askotan umeek ez duten mailako kirolariak nahi dituzte. Une horretantxe uzten da kirola alde batera. 12, 13 eta 14 urtetik gorako haurrentzako osagarri hori bilatu behar dugu, izan ere, garai horretan haurrak nerabegarora heltzen ari dira, eta hockeyan oso onak ez badira ere, niri gertatu zitzaidan moduan, jolasteko aukera izan dezaten. Askotan, eskolako eremutik ateratzean, eskolaz kanpoko jarduerak horrekin aurrera jarraitzeko aukera egon behar litzateke, izan ere, badakigu klubetan lehiakorragoa dela, txapelketak, lehiaketak jokatu nahi dira, eta maila altuagoa garatzeko helburua bilatzen da, ezaugarri fisiko zehatzagoak dituen jendearekin, kirola ongi pasatzeko egin beharrean. Haur batek sas-

kibaloian ongi pasatzearren jokatu nahi duenean, hutsune hori dago, kirolean jarraitzea laguntzen ez duena. Hori guztia kontuan izan behar dugun erronka da, gazteek kirol jarduerarekin jarrai dezaten.

Alberto Undiano

Carmelorekin bat nator, gainera 12 urteetako inflexio-puntu horri buruz hitz egin dugu, eta hortik aurrera gertatzen denari buruz. Gainera, gazteentzat oso garrantzitsua den une zehatz bat da, zenbait ohitura hartzeko arriskuak egon daitezkeelako, hala nola, tabakismoa, alkohola, drogak... Adin horrekin aipatu ohiturekin hasten ohi dira, eta urte horietatik aurrera kirola egiten jarraitzeko modua bilatzea komeni da. Badakigu klubetan adin horretatik aurrera lehiakortasuna sustatzen dutela, baina ongi legoke adin horrekin kirola egin ahal izatea lehiaketarik izan gabe. Baina zaila da, kirola oso lehiakorra da eta.

Pedro Rascón

Bi kontuk izugarri kezkatzen naute.

Gurasoen kontua kirol ekitaldietan. Alberto Undianok egin duen hitzaldiarekin bat nator eta, CEAPAn, Kirol Kontseilu Gorenarekin batera, gurasoak prestatzeko kanpainak egin ditugu, izan ere, askotan prestakuntza behar dute jokalekuetan behar bezala egoteko. “Kirola merkatarizatzeari” buruz ere hitz egin duzue, hau da, futbola dagoen moduan egonda, benetan oso zaila da muturreko lehiakortasun hori alde batera uztea. Adin goiztiar horietan, gurasoak ikusi ditut benetan tamalgarriak eta kezkarriak diren ikuskizunetan. Garrantzitsua liteke babes gehiago izatea zentzu horietan prestatzeko, hau da, euren seme-alabek kirola egiten dutenean motiba ditzaten eta baliokak helaraz diezazkieten. Gainera, administrazioak gehiago esku hartu beharko zukeela uste dut.

Kirola 12 urterekin utzteari dagokionez, nik neure eskarmentua daukat nire semeekin. Ez bata ez bestea ez ziren kirolari on gisa gailendu. Nire semeak erasota sentitu ziren adin horretan taldea utz zezaten. Adin horretara heldu arte jolas zezaketen, baina ordutik aurrera, nolabait kirol-jarduerak joko gisa duen alderdia amaitzen zenez eta lehiaketara igarotzen zenez, nire semeetako batzuk euren entrenatzaileen erasoak jasan zituzten. “Joan zaitez, ez duzu balio eta” esan beharrean, inork ezer esan gabe uztean zetzan. Egia da gurasoen elkarrekin bultzatzen ditugun eskolaz kanpoko jardueretan kirol asko egiten dela Haur eta Lehen Hezkuntzan eta Bigarren Hezkuntzan desagertzen direla, gurasoen elkarrekin dagoeneko ez baitira horretaz arduratzen

eta, gainera, haurrak hazten dira eta curriculumuma beteta dago. Bide batez esan nahiko nuke ongi legokeela curriculumumurriztea, eskolako etxerako lan asko dituztenez, ez baitu tarterik uzten arratsaldeko kirol jardueretarako. Adin horietan kirola egiten denean sakrifizio handia behar da. Nire semeek klub probatuen bidez berreskuratu zuten kirola, baina une traumatiko bat ere igaro zuten, adin horretan dagoen gabezia eta jarraikortasun falta dela eta. Horrek kezkatu beharko gintuen, bai eta zeregina eman ere.

Alberto Undiano

Azaldu duzuna egia da. Dramatismo pixka bat kentzearen, esango dizut 12 urtetik aurrera nik ere jokatzeari utzi niola, inork ez ninduen uztera bultzatu, besterik gabe jokatzeari utzi nion ona ez nintzela"o. Ordura arte futbolearen aritzen nintzen, eta une horretan futbolearekin lotutako beste jardura batean hasi nintzen, arbitrajea. Kirola ez duzu zertan jardura gisa egin, entrena-tzaile edo arbitro gisa ere egin dezakezu. Arbitrajea, ez dakit horrenbestera den, baina galzorian dago, arbitro gisa aritzen diren gazteen falta sumatzen dugu. Izugarri kostatzen zaigu arbitroak erakartzea, eta are gehiago jardura horrek eskatzen duen konpromiso maila mantentzea. Kanpaina asko egin behar ditugu, diru asko balio dutenak, alde guztietatik hitzaldiak eman behar ditugu. Horrekin bat-batean 20 gazte lor daitezke, baina 5 hilabete igaro ondoren 12rekin geratuko zara. Asteburuetan dagoen aisialdirako eskaintza oso handia da eta horiek egiteko aukera handia duzu. Hori dela eta, gazte bat asteburuan 3 partidua arbitratzen egon ahal izateko aukerak murrizten ditu, izan ere, beti ez daude prest jarduerak eskatzen duen konpromiso maila emateko.

Adierazi dituzun bi gaiekin bat nator, eta horien konponbidea guztion artean bilatu behar dugu.

Carmelo Paniagua

Ni ere zurekin bat nator. Alberto bezalaxe, ni ezta ez nintzen oso ona kirola egiten, eta hortik geratu nintzen. Atezaina nintzen eta gol pila bat sartzen zizkidaten, baina atezaina izatea gustuko nuen, partiduan egoitea gustatzen zitzaidan... Nik neuk erabaki nuen nola jarrai nezakeen kirola egiten, gustuko nuen kirola. Gainera, banekien ez nintzela ona, baina ziur nengoen ongi pasa nezakeela. Entrenatzaileari galdetu nion, "zure laguntzailea izan naiteke?". Begiak zabal-zabalik geratu zitzaizkion eta entrenatzen lagundu nion, eta golak sartzen zizkieten atezain bat behar zutenez, ni jartzen nintzen eta, axola ez zitzaidanez,

taldearekin entrenatzen nuen, kirola zer zen ikasi nuen. Hortik aurrera prestakuntza jaso nuen, ikastaroak egin nituen eta, ikus dezakezuen moduan, lehiaketa hutsaz gain, taldeko kidea izateko eta onena izateko beste irteera batzuk daude. Pertsona orok hoberena izan nahi du, baina gutxi batzuk aukeratzen dituzte. Eta oso gogorra da gora heltzea, hurrengo mahaiko kirolariek esango duten moduan.

Fernando Barainca

Alberto Undianori zuzendutako galdera. Argi dago futbola kirola baino askoz ere gehiago dela, negozio bati buruz ari gara, ikuskizuna da, hori begi-bistakoa da, eta negozio/ikuskizun horren barnean, arbitroak ere badaude. Hauexek dira galderak:

Oso zabala izan behar duen arbitroen prestakuntza kontuan hartuta, eta ikuspuntu tekniko, fisiko eta psikikotik, pertsonetik harremanetik:

Nolakoa izan zen zure prestakuntza, zelaie-tan izandako eskarmentuaz gain? Nolakoa izan zen arbitro izateko jaso zenuen prestakuntza?

Esaten ohi dute Espainiako arbitroak beste herrialdeetakoak baino txarragoak direla, hala nola, Calcio, Bundesliga eta Premier lehiaketetakoak baino txarragoak. Mahaien lehen zatian aipatu denaren ildoari jarraiki, zure ustez futboleko edo beste kirol batzuetako arbitro profesionalentzako prestakuntza profesionala egon beharko litza-teke?

Alberto Undiano

Arbitroei zuzendutako prestakuntzak bilakaera handia izan du. Duela hogeitau urte baino gehiago hasi nintzen arbitratzen eta une hartan prestakuntza oso autodidakta zen: batzuei eta besteei ikusten zenienetik bakarrik ikasten zenuen. Zuzendariren batek zer edo zer esaten zizun... Duela urte batzuk arte oso modu autodidaktan egin



dugu lan, batzuetan makilakadetatik ikasiz.

Gaur egun hori guztia asko aldatu da. Toki Batzorde guztietan gazteentzako prestakuntza egitura bat dago, hasten diren unetik bertatik. Hainbat pertsonak maila guztietan prestatzen dituzte: fisikoki, teknikoki eta psikologikoki, eta hori oso garrantzitsutzat jotzen dut. Ez nik bakarrik, baita Lehenengo Mailako nire lankideek ere izugarrizko presioa dugu, eta beraz, ateratzen den gazteak, pentsa ezazue, 14 urterekin, arbitratzeko prest, larunbatean, zelaia atera behar du asko jasateko, eta horretarako oso, oso ongi prestatuta egon behar duzu. Zelaian 22 etsai topatuko ditu, entrenatzaileak, gurasoak... Zelaian ez du inork lagunduko.

Orain asko profesionalizatu da, batzordeen egiturak profesionalizatzen ari dira. Gaur egun arte dena musu-truk egiten zen, ordu asko sartzen ziren. Orain batzorde guztietan maila altuago edo baxuago batean profesionalak diren egiturak daude, arbitroak prestakuntza egokia izan dezan laguntzen dutenak.

Espainiako arbitroei buruzko galderaren inguruan esan diezazuket munduko herrialde guztietan arbitroak tokiko prentsa-rentzat munduko arbitrorik txarrenak direla. Bai eta Espainian ere. Espainiako prentsaren zati batek dio Espainiako arbitroak munduko txarrenak direla, Espainiako talde bat Europako ligatik kanporatzen duten arte, une horretan txarrenak alemanak dira, edo ingelesak edo Txekiar Errepublikakoak. Arbitrajeak oso zailak dira.

Ingalaterrako arbitroekin parekatzen gaituzte. Zera diote: "Ingalaterrako arbitroek hitz egiteko aukera gehiago uzten dituzte..." Egia da Ingalaterrako arbitroak arbitro onak direla, baina abantaila bat

dute: Ingalaterran futbola ezberdina dela. Liga ingeleseko partidu bat ikusten badugu, bi jokalarirekin hitz egiten ari den arbitro bat ikusten dugu, bien artean istiluren bat egon delako, eta biak ari entzuten ari dira. Jokalariek, gainera, eskuak bizkarraren atzean kokatzen ohi dituzte eta entzuten dute, edo behintzat, entzuten daudenaren

itxurak egiten dituzte. Espainian hori ezinezkoa da. Duela urte batzuk horrela jokatzen saiatu nintzen, Lehenengo Mailan arbitratzen hasi nintzenean, oraindik traukila nintzenean noski, eta jokalariai oi-huka: “ez, zuk lehenengo esan didazu...”. Ezinezkoa zen.

Egoera bakoitza bere testuinguruan kokatu behar da. Ez dakit munduko txarrenak garen edo ez, baina munduko txapelketetan, partidu garrantzitsuetan, Espainiako arbitroekin oroitzen dira.



Prestakuntza, Kirola eta Bizitza. Ba al da horiek ezkontzerik?

Goian. Ana Casares (Atleta)

Josu Goñi (Eskubaloia)

Laura Uhalte (gimnasta)

Rubén Beloki (Pilotaria)

Behean. Ion García (Golf-Jokalaria)

Laura Gracia (Judoka) eta Nieva Larraya (Judoka)

Argazkiak: Iban Aguinaga—Diario de Noticias

Aurkezlea eta testuak, JAVIER SARALEGUI:
Kirol Kazetaria
ONDA CERO NAVARRA

Arratsalde on denoi. Kirol Irakaskuntzaren gainera Jardunaldi honen azken zatian, aukera izanen duzue eliteko kirolariekin hitz egiteko. Uste dut aukera polita dela.



Neure burua aurkeztuko dut. Javier Saralegui naiz, kazetari eta kirolaria, eta, lotsa ematen badit ere, nire esperientzia kontatuko dut, lehen kirolari buruz eta kirolaren merkantilizazioari eta kirol irteerei buruz esan denaren harira.

Carmelo Paniaguak prentsa lanpostuen sortzaile dela esan duenean, niri begiratu dit. Carmelo aitabitxia da niretzat. Izan ere, ni kirolari arrunta nintzen, eta hori nerabezaroan onartu nuen. Egia da une gogorra dela eta zeure artean esaten duzula, “ez naiz izanen patinatzaile ona, inoiz ez naiz izanen txapelduna”. Azkenean hilabete gutxi batzuk irauten du, edo karrera gutxi batzuk. Lagunekin eta taldekideekin patinatzen jarraitzea erabaki nuen, eta, horri esker, Espainia ezagutu nuen. Asteburuko bidaiak egin nituen, eta, 14 urterekin, hoteletan egiten nuen lo. Gauetan bihurrikeriaren bat egiten genuen; autobusez bidaiatzen genuen, bost orduz, eta pentsatzen genuen, “zenbat eta luzeagoa izan bidaia, hobe, hartara denbora gehiago lagunekin egoteko”. Ingelesekin nekiela eta, Carmelok Europako eta Munduko Txapelketetarako kontratatatu ninduen, pistan eta txapelketei lotutako bileretan itzultzaile aritzeko, ez baitzegoen

hizkuntzak zekizkien patinatzailearik. Ikasi nuelako, Nafarroako Patinaje Federazioako prentsa bulegoa eramateko aukera eskaini zidan Carmelok, eta, ahoz ahokoari eskerrak, beste federazio batzuetatik ere deitu ninduten, haien kirol probetan esatari aritzeko. Ikus-entzunezko Komunikazioan lizentziaduna izateagatik, Onda Ceron

hasi nintzen lanean, eta kirolari izateagatik, kirole-tan gelditu nintzen, eta hementxe jarraitzen dut. Nire etsenplua jarri dut, ikus dezazuen kirolari arruntek ere aurki dezaketela lana kirolari esker.

Gaur hemen ditugun kirolari handiak aurkeztuko dizkizuet.

Ana Casares, 38 urte ditu, eta duatloi, triatloi eta ironman probetako **atleta** da. Aurten Espainiako maratoi txapelduna izan da, eta internacionala duatloian eta triatloian, Espainiako Federazioarekin. Ana lizentziaduna da Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren Zientzietan, eta atletismoko eta triatloiko goi mailako entrenatzailea da.

Nieva Larraya, **judoka**, Espainiako txapelduna 52 kilotik beherakoetan 2008an eta 2009an, eta Espainiako txapeldunordea 57 kilotik beherakoetan 2010ean. Lizentziaduna da Ikus-entzunezko Komunikazioan, eta prentsa lanak egiten ditu Judo eta Antzeko Kirolen Nafarroako Federaziorako.

Laura Garcia, **judoka**, Espainiako judo txapelduna ikusmen urrikoetan 2010ean. Minusbalistasun bat du, eta interes handia, ez bakarrik ikastetxeetan kirolaz hitz egin dadin, baizik eta, horrez gain, gainerako kirolari guztiak bezala tratatuak izan daitezten, duten minusbalistasuna dutela ere, ikastetxean gainerako ikaskideek ikasten duten gauza bera ikasi ahal izateko. Pekingo Olinpiar Jokoetan parte hartu zuen 2008an, Haurzaintza ikasi zuen, oposizioak gainditu zituen, plaza

atera zuen, eta utzi egin zuen ONCEn lan egiteko, eta hantxe jarraitzen du.

Ion Garcia Avis, **golf jokalaria**, unibertsitate munduko txapeldunordea

2008an, eta Espainiako Unibertsitateko Banakako txapelduna 2007an; Administrazio eta Enpresa Zuzendaritzan lizentziaduna da.

Ruben Beloki, **pilotaria**, denok ezagutzen dugu; esku pilotako txapelduna izan da lau alditan. Esku pilotan inoiz izan den txapeldunik gazteena izan zen, 20 urterekin. Txapeldun olinpikoa izan zen Bartzelonan, 1992an. Haren garaipen zerrenda ia ez dago berdintzerik. UBI arte ikasi zuen, eta, handik aurrera, ikasketak utzi zituen, Olinpiar Jokoak zirela eta. Ondoren, profesional gisa hasi zen. Rubenek kirolari profesionalaren ikuspegia emanen digu, berea eta pilotako bere kide guztiena.

Laura Uhalte, **gimnasta**, Espainiako banakako txapelduna izan zen 2003an, eta Espainiako taldekako txapelduna 2004an; brontzezko domina irabazi zuen taldeka 2009an, eta Arkitekturan lizentziaduna da. Gaur egun, ikasketa amaierako proiektu batean dabil murgilduta. Gainera, Espainiako gimnasia epailea da, eta ahalgin handia eskatzen duten ikasketak batzuekin batera aritzen da lan horretan.

Iosu Goñi, Leongo Ademako **eskubaloia**, **jokalaria**. Gorputz Hezkuntzarako Institutu Nazionalan ari da ikasten, Ana Casaresek egin zuen bezala.

Airean utzi ditut hainbat gauza, eta zuei ematen dizuet hitza, bertaratu zaretenok galderak egin ditzazuen. Izan ere, uste dut aukera handia dela hau, kirolean bizi izan duten guztia kontatu dezaten.

Unibertsitario izatea bide bat al da kirolean arrakasta lortzeko? Hemen badugu unibertsitate munduko txapeldunorde bat.

Zein zailtasun izan dituzue lehiazteko eta aldi berean ikasteko? Bai eskolan eta bai institutuan edo unibertsitatean. Kirolariak beti daude oso kezkatuta gero lan merkatuan sartzeko zailtasunak izanen dituztelako, karreran praktikak egin beharko dituztelako, lana eta kirola uztartu beharko dituztelako.

Zer gertatzen da eliteko kirolariekin lehiazteari uzten diotenean? Hori da kirolariak kezkatzen dituen beste kontu garrantzitsuetako bat. Kirol ibilbidea hogeita hamar urteetan daudenean amaitzen zaie, eta, kasu askotan, prestakuntza badute baina inolako lan esperientziarik ez, ezta praktika moduan ere.

Kirolak laguntzen al du ikasten? Eta laguntzen al dio pertsonari?

Zuek egiten dituzuen kirole-tan, etxetik kanpo egon behar izaten duzue astearen erdialdetik aurrera, txapelketaren batera joateko. Norbait ikasten edo lanean ari

“Ni ere adibidetzat hartzen ahal nauzue; izan ere, nire kasuari erreparaturik, ni bezalako kirolari arrunt batzuk ere lana aurkitzen ahal duela ikus dezakezue”

Javier Saralegui

bada, noiz ikasten du astegunetan entrenatu eta asteburuetan lehiatu egin behar badu? Zer utzi behar izaten da alde batera eliteko kirolaria bazara eta besteen aisialdian lan egiten baduzu?

Laguntzen al dute ikastetxeek? Zer esaten diote kirolariari azterketa bat egunez aldatu behar badu edo ostiral batean eskolara ez badoa lehiatu egin behar duelako? Traba egiten al dio batzuetan eliteko kirolariak ikastetxeari?

Kirolak erakusten al du lan egiten eta ikasten? Kirola eragozpena al da ikasteko? Aukera baduzu kirolari profesionala izateko, hortik bizimodua ateratzeko, ikasketak uztera tentatzen al zaitu horrek? Nor egoten da une horretan esateko: "jarraitu ikasten, ez dakizu-eta zer gertatuko den zurekin etorkizunean"?

Galdera horietako edozein, nahi duzuen moduan, egin diezaiekezue hemen ditugun kirolariei. Esate baterako, **Ana Casares haxe galdetuko diot:** Ana, zein zailtasun aurkitu dituzu eta aurkitzen dituzu ikasketako, lan egiteko, familia edukitzeko, hori guztia errendimendu handiko kirolarekin uztartzeko?

Ana Casares:

Ikasketak urruti samar geratzen zaizkit dagoeneko. 1994an amaitu nituen Gorputz Hezkuntzako ikasketak, Lleidan. Unibertsitateko urteetan, kirolari arrunta nintzen, ez nintzen ezertan bereziki nabarmentzen;

Karreraren, lehenengo urtean zehazki, entrenatzen jarraitu nuen, baina ez modu konstantean. Ni Pamplona Atleticokoa nintzen, eta iraupen probetan eta krosean lehiatzen nintzen. Etetik kanpo nengoen, karreraren ordu dezente eman behar izaten nituen praktikak egiten, ikasten, nekea eragiten zidan, eta ezin nuen denarekin. Ikasketei lehentasuna ematea erabaki nuen, eta kirola egiten jarraitu nuen, baina hainbesteko lehiarik gabe. Lleidan izan nintzen bost urteetan, korrika egiten jarraitu nuen, GHINKo eskubaloi taldean jokatu nuen, futbol taldean ere bai, eskiatu egiten nuen, eta abar.

Ikasketak amaitu nituenean, Iruñera itzuli nintzen, eta Gorputz Hezkuntzako irakasle gisa aurkitu nuen lan, El Huerto ikastetxean.

Arratsaldeetan entrenatzen jarraitzen nuen, krosean, atletismoan, eta triatlloan 1995. urtean hasi nintzen. Kirolak probatzen jarraitzen nuen, eta 2000. urtean egin nuen aurrera duatloian eta triatlloan, eta orduan izan nintzen Espiniako triatlloi txapelduna. Hor egin nuen jauzia. Goizez eta arratsaldez egiten nuen lan, eta asteburuetan entrenatu egiten nintzen. Batera egin nitzakeen.

2002. urtean, nire lehen haurra eduki nuen, eta jadanik ez nuen beste helbururik, pentsatzen nuen ezingo nintzela itzuli maila horrekin. Baina nire bizitzan hainbat zirkunstantzia sortu ziren lanari dagokionez: lanik gabe gelditu nintzen, haur txiki batekin, eta libre nuen tarteetan, korrika egiten eta igeri egiten hasi nintzen; eguneko atsedendia zen hura. Nire sentipenak oso onak izan ziren, lehiatzen hasi nintzen, ikusi nuen indartsu nengoela, eta Espainiako txapelketan parte hartu nuen. 2003an, Espainiako duatloi txapelduna izan nintzen, 5 hilabeteko seme

batekin. Ezin nuen sinetsi. Alde batetik, ez nuen lanaren loturarik, eta izugarri gustatzen zitzaidan gauza batean ari nintekeen, denbora gehiago nuelako, nahiz eta umeak energia eman bezalaxe kentzen zidan.

Ordutik aurrera, lorpenak izan ditut kirolean, eta etapa garrantzitsu bat izan da nire bizitzan, nire enpresa sortzeko ideia sortu baitzitzaidan; orain hortxe egiten dut lan. 2006an, bigarren haurra eduki nuen, Paula, eta urtebetez utzi nuen kirola. Aldi horretan nire ideiak berritzeko aukera izan nuen. Motibatuta jarraitu dut, eta hori izan da, gutxi gorabehera, orain arteko nire historia.

Javier Saralegui:

Anarenak balio du lana eta kirola uztartu dituzten eta uztartzen jarraitzen duten eta elitean segitzen duten kirolarien etsenplu gisa.

Galdera: Francisco Javier Mangado (ADI)

Bigarren Hezkuntzako institutuuetako lanaren ikuspegitik, baditugu hainbat pertsona kirol jardueretara lerratu direnak, are maila profesionalera; zehazki, nire zentroan, Abel Barriolak ikasi zuen, Ruben Belokiren beste kide batek, eta geure buruari galdetzen diogu dopinaren kontua presente al dagoen eliteko kirolarietan. Zuen esperientzia kontuan hartuta, zera galdetzen dizuet, arazo horrekin topo egin al duzue? Zein adinetan?

Javier Saralegui:

Beharbada, kirol olinpiko batean aritzen delako, Nieva Larrayak erantzun diezaguke; izan ere, zuek dopin kontrolak pasatu beharko dituzue.

Nieva Larraya:

Nik neuk ez dut halakorik topatu nire inguruko jendearen artean. Judoan bai, badago arazo hori. Kontrolak egiten dizkizute elite nazionalekoa bazara. Izan dira *porruengatik* eta halako gauzengatik positibo eman duten pertsonen kasuak, baina horiek judoan aritzeko orduan aktibatu baino ge-

2003an Espainiako Duatloi txapelduna izan nintzen, bost hilabeteko haurra nuelarik. Ez nuen sinesten

Ana Casares

umetatik gustatu izan zait izugarri kirola, eta horregatik ikasi nuen Goi Hezkuntzarako Institutu Nazionalan.

goela, eta Espainiako txapelketan parte hartu nuen. 2003an, Espainiako duatloi txapelduna izan nintzen, 5 hilabeteko seme



hiago kalte egiten dizute, jakina. Uste dut hori gertatzen dela jendeak dibertitu egin nahi duelako, lagunekin egon nahi duelako, eta arlo horretan huts egiten du. Batez ere, uste dut ez dutela asko pentsatzen. Ez dute kontrolatzen noiz hartu duten, eta, azkenean, positibo ematen dute dopin probetan. Azkenaldian, japoniar judoka olinpiko baten kasua izan da. Positibo eman zuen substantziaren batengatik, zaldiei ematen zaien gauzaren bat hartzegatik, eta berak erantzun zuen positibo eman zuela txerri txuletak jateagatik. Ez dakit nola ez zen lotsatu halako adierazpenak egiten. Nik neuk ez dut beste kasurik topatu.

Oso garrantzitsua da kirolariok informazioa izatea. Miguel Indurain fundazioak horren inguruan informatzen gaitu eta erakusten digu kontuan hartzen medikamenduren bat hartu behar badugu fundazioan dauden medikuei galdetu behar diegula eta ziurtatu egin behar dugula horrek ez digula inolako arazorik ekarriko.

Francisco Javier Mangado:

Galdera egin dut ikusteko jakinaren gainean ote zaudeten ikastetxeetan kezkatuta gaudela ikasleen eskuetara substantzia mordo bat iristen dela eta; gainera, kirolari begirako substantziak dira: anabolizatzaileak eta abar.

Ion García:

Golfa ez da dopatzeko kirola. Egia da goiko mailetan jendeak lasaigarriren bat hartzen duela lehiatzera doanean eta presio handia duenean eta oso urduri dagoenean... Golfean ez dago dopinik elitean, baina beheko mailetan, ni lehiatzen naizen mailetan, badaude dopin kontrolak, beste edozein kirolariri egiten zaizkionak bezalakoak. Eliteko golf profesionalen orain hasi dira hori kontuan hartzen, kirol olinpiko bihurtu delako. Kasu bat izan da, hala ere: txapelketa batean, bezperan iragarri zuten dopin kontrol bat eginen zutela, eta soil-soilik 60 jokalarik eman zuten izena.

Javier Saralegui:

Iosu, zer jarraibide ematen dizkizute horren inguruan Leongo Ademar talde profesionalen?

Iosu Goñi:

Izan ditugu medikamentuei eta kontsumitu behar ez ditugun substantziei buruzko solasaldiak, eta beti esan digute zein substantzia hartu eta zein ez. Horren inguruan aholkatzen gaituzte. Modu partikularrean esaten digute proteinak hartu behar ditugun eta halako kontuak, baina inoiz ez digute ezer esan positibo ematen duten substantziei buruz.

Nieva Larraya:

Judoko kategoriak kirolaren pisuaren arabera kokatzen direnez, gu beti ari gara kontrolatzen zenbat pisatzen dugu, eta egia da batzuek hartzen dituztela gauzak pisua hartzeko edo jaisteko. Eta izan da kasu bat kirolari nazional batena, diuretikoengatik positibo eman duena.

Nacho Arbeloa:

Bi galdera, denontzat: Ezagutzen duzue Kirol Kontseilu Gorenean ezarri den PROAD (Kirolarien Arretarako Programa)? Hain zuzen ere, programa honen asmoa da errendimendu handiko kirolariei erraztasunak ematea ikasketekin jarraitu ahal izan dezaten, ikasten ari diren fakultatean izendatzen zaien tutorearen bidez. Zuek zuen karreran, zuen lizentziaturan, gehienak lizentziadunak baitzarete, Administrazioaren babesa izan bazenute, errazagoa izanen zitzazuen kirola eta ikasketak uztartzea?

Beste galdera, kirol irakaskuntzarekin lotuta, honako hau da: pentsatu al duzue, goi mailako kirolari gisa duzuen esperientziaren bidez, teknikari gisa horren berri ematea, eta ikusten al duzue aukera goi mailako kirolari gisa duzuen prestakuntzatik kirol teknikarien prestakuntzara pasatzeko?

Laura Uhalte:

Nire kasuan, gimnasian, astero entrenatu arren, lehiaketak asteburuetan izaten dira, eta Espainiako txapelketak 4-5 egun irauten ditu; urtean bi aldiz izaten da, bata banakako kategorian eta bestea taldekako kategorian. Niri ez zait inoiz egokitu azterketarik egun horietan. Egia da unibertsitatean eskolak librexeagoak izaten direla eta nik ez dut arazorik izan alde horretatik. Azterketa bat egunez aldatu beharrik ere ez dut izan orain artean. Askotan gertatu zait, ordea, lehiaketetatik bueltan lanak aurkeztu beharra, eta hegazkinean ordenagailu eramangarriarekin joan behar izan dut; gauez bidaiatzen gendularik, ni lanean aritu izan naiz nire taldekideak lotan zeuden bitartean, eta Barajasen wifia eskatu behar izan dut lanak garaiz bidali ahal izateko.

Unibertsitatean ez dut arazorik izan, azkenean gutxi gorabehera garaiz iritsi bainaiz. Arkitekturan gehienetan lanak egin behar izaten direnez, nik eskuarki lanak beranduxeago entregatzen nituen.

Ion García:

Nafarroako Unibertsitate Publikoan, nik hor ikasten baitut, plan espezifiko bat egin dute niretzat. Ikasten ari garen kirolari guztiei aldatu dizkigute azterketak, lanak geroago entregatzen utzi digute. Oso ongi portatu dira nirekin, eta laguntza handia izan da niretzat kirola eta ikasketak batera egiteko. Badakit beste unibertsitate batzuetan ez

“Egun entrenatzen ditudan haurrak heztean, errespetuari eta ezberdintasunak onartzeari dagozkien baloreak irakasten saiatzen naiz”

Laura García

dagoela halakorik, eta nire lagun batzuk gaizki pastasen ari dira, ezin direlako lehiatu edo ezin direlako azterketetara aurkeztu. Nik zorte handia izan dut eta hemen-dik eskerrak ematen dizkiot Unibertsitateari.

Javier Saralegui:

Bigarren galdera zen ea pentsatu al duzuen zuen esperientziaren berri beste pertsona batzuei ematea. Laura García.

Laura García:

Nik bai, pentsatu dut. Are gehiago, oraintxe bertan Iruñeko Larrabide estadioan ari naiz entrenatzen, eta gurekin entrenatzen diren hurrei —13-14 urte dauzkate— beti saiatzen naiz nik ikasitakoa irakasten, ni bezalako kideren bat badute, urritasunen bat duen kideren bat badute, alegia, beren gisako bat bezala trata dezaten. Nik dudana esperientzia edonori transmititzen saiatzen naiz, izan adindun edo izan adingabe, eta desberdinenganako errespetua eta onarpena oinarritzat hartuz hezten saiatzen naiz, hori oso beharrezkoa dela uste baitut. Denok gara desberdinak, eta beharrezkoa da, diodan bezala, elkar errespetatzea eta baloratzea.

“...nerabeei jarraikortasuna falta zaie. Arras erakargarri eta tentagarria da gauez parrandan irtetea, lagunek egiten dutena egitea, ezertarako ordurik ez izatea, edozein kirolek duen eskakizun-maila hori ez izatea alegia”

Nieva Larraya

Teresa Ucar:

Nire galdera familien gainekoa da, nola laguntzen dieten, batez ere hasieran, beste hainbat gauza egin behar izateaz gain entrenamenduetara eta partidetara joan behar denean. Beste galdera bat: Zer ondorio dakar famak besteekiko harremanetan? Maila jakin batera heltzen zarenean, horrek bizimodua aldatu egiten dizu ala ez?

Ruben Beloki:

Garbi dago pilotarientzat oso garrantzitsua dela familiak laguntzea; izan ere, kirol honetan oso txikitatik hasten zara lehiatzen (7-8 urte). Gurasoek beren gauzak egiteari utzi behar diote asteburuetan, Baztanera, Goizuetara, Tuterara edo Bizkaiko edozein tokitara bidaiatzeko. Semearen eta haren kirolaren aldeko apustua egin behar dute. Uste dut zoragarria dela gurasoek zu eramatea eta hautatu duzun kirol horren aldeko apustua egitea. Ni orain aita naiz, gure semearen eta hark pilotari dion zaletasunaren aldeko apustua ari naiz egiten, eta oso atsegina eta polita iruditzen zait. Bi ikuspegietatik ari naiz bizitzen hori.

Famaren kontua dela eta, nik gauza normal bat bezala bizi dut; debuta egin nuenetik, kalean zabiltzanean jendeak ezagutu egiten zaitu, agurtu egiten zaitu. 18 urterekin profesionala nintzen dagoeneko, eta 20 urterekin txapeldun izan nintzen; ezusteko handia izan zen hori niretzat. Komunitate honetan, pilota asko bizi du jendeak eta oso ezaguna zara, eta, une horietan, funtsezkoa da familiaren eta lagunaren babesa izatea, betikoa izaten jarraitzen duzula esateko eta kirola egiteko, horrekin dirua irabazteko eta bolada batez hortik bizitzeko zortea izan duzula esateko. Politza da zure herrian jendeak ezagutzea eta baloratzea. Urteekin, oso gauza atsegina da. Bada ondo eramaten ez duen jendea ere; batzuei gainez egiten die pixka bat horrek, eta, azkenean, ez dira kirolean zentratzen eta ezin dira 15 urtez aritu bestela jokatu ahal luke ten maila berean. Kosta egiten zaie ondo eramatea fabriketan lan egiten duten lagunek baino askoz ere gehiago irabazte hori. Zaila da, baina zure familia ondoan edukita gaituzten da hori.

Javier Saralegui:

Ruben, esan zerbait gehiago Teresak egin dizun galderari buruz, nolakoa da familia bizitza, esate baterako, udan, txapelketa gehiago daudenean, jarduera gehiago dagoenean, gainerakoan aisialdia zuretzat lan egiteko garaia denean? Nola bizi dute hori etxekoek?

Ruben Beloki:

Beti egin izan dut lan gainerakoak aisialdian daudenean. 18 urteetatik, profesio-

nala naizenetik, Urteberri egunean, Eguberri egunean, Urtezahar gauean, asteburuetan jokutzen dut. Hori badakizu, eta bere prezioa du, lagunekin irteari uztea, familiarekin egoteari uztea. Nire kasuan, kirola izugarri atsegin dudanez, inolako ahaleginik gabe egin dut. Orain hiru seme-alaba dauzkat eta udan jokatzeko jarraitzen dut, eta zail samarra egiten zait dena uztartzea. Emaztea haiekin geratzen da etxean, eta aurrera jarraitzeko indar eta ilusio handia ematen dit haiek ikusteak. Egia da, izugarri gustatzen zaidan kirol bat denez, merezi duela hor egoteko egindako ahalegin guztiak.

Javier Saralegui:

Beste galderaren bat?

Gimnasta gaztea:

Ñabardura bat egin nahiko nuke lonek emandako erantzunaren gainean, hau da, azterketak direla eta unibertsitateak errendimendu handiko kirolarietara ematen dien laguntzaren inguruan. Uste dut oso selektiboak direla kirolarietara; izan ere, nire kasuan, gimnasta izanda, eliteko kirolaritzat daukat neure burua, eta zailtasun handiak izan ditut azterketetan. Gustatuko litzaidake Laurak hausnarketa txiki bat egitea Ana Casaresek egindako galderaren inguruan, hau da, bizitza eta kirola uztartzearen inguruan, uste baitut kontrako muturrak direla. Beharbada Anak egiten duen kirolak utzi dio adin jakin batean ere egiten. Alabaina, Laura-ren kasuan, gimnasia oso kirol mugatua da adinari dagokionez.

Laura

Ikusten duzuen bezala, oso taldekide onak ditut, eta, gainera, lagun handiak dira. Zerbait erantsiko diot Teresak familien inguruan egin duen galderari. Kontuan izan behar da gimnasia oso adin goiztiarretan hasten den kirol bat dela, eta, jakina, ezinbestekoa da ama eta aita zure ondoan izatea, asteburu batean eta hurrengoan bidaiatzeko prest, herrira joateari uztea, eta, gainera, gizarte konpromisoak daukazku: jaunartzeak, urtebetetzeak eta abar, eta horietara joateari uzten diozu lehiaketengatik. Hitz batean esanda, gurasoak funtsezkoak dira kirol honetan.

Beste galderari dagokionez, garbi dago Anak lortu duela ama izatea eta aldi berean kirol karrera bat egitea. Nire kasuan, unibertsitateko karrera eta errendimendu handiko kirolari karrera uztartu behar izan ditut. Ni dagoeneko beterranoa naiz, 23 urte

ditut, eta nire kirol karrera azken fasean dago, behintzat lehiaketei dagokionez. Karrera bat ikasi behar izan dut, zeren, futbol profesionalean ez bezala, gimnasiak ez du modurik ematen modu profesionalean jarduteko, eta arkitekturan arituko naiz etorkizunean. Zaila izan da, zeinbait gauzari uko egin behar izan dieldalako; gauak galdu ditut ikasketekin jarraitzeagatik, baina merezi izan du.

Publikoa:

Galdetu nahi nizueke nola daramazuen balioen kontua: sakrifizioa, ahalegina... Carmelo Paniaguak aipatu dituen balioetako bat da —eta atentzioa eman dit niri— zenbait kirolarik gehiegizko balio ekonomikoa transmititzen dutela. Uste dut hori ez dela zuen kasua, baina zuen iritzia jakin nahiko nuke; izan ere, entzuten dut kirolarietara, batez ere futbolarietara, nolako kontratuak egiten zaizkien eta eskuak burura eramaten ditut. Ez dakit kontzientzia pixka bat sortuz hori aldatzerik badugun. Jendea kontzientziaztea gustatuko litzaidake, eta ikustea hori alda daitekeela.

Javier Saralegui:

Uste dut Ion has daitekeela; izan ere, golfak oso zenbateko handiak mugitzen ditu munduko elitara iritsiz gero

Ion García:

Egia da golfeko elitean kontratuak milioi askokoak izan ohi direla, neurritz kanpoko

“Hegazkinera ordenagailu eramangarria eraman izan dut sarri; izan ere, gauez bidaiatzean, ni lanean aritzen nintzen, taldekideak lo zeudelarik. Hainbat gautan esna egon izan naiz, baina merezi izan duela esan nezake”

Laura Uhalte

kopuruak, futboleko bezala. Hain zuzen ere, gehien irabazten duen lehen kirolaria Tiger Woods zen, 84 milioi euro, eta bigarrena ere golf jokalaria da. Maila horretan, golfak futbola baino askoz ere gehiago mugitzen du. Badut goian dabilen lagun bat eta egia da beste mundu bat dela. Pizgarri handia da hori, baina benetan haiei ez zaie dirua jadanik axola; halako puntu batean daude, lehiatu besterik ez dute egin nahi.

Publikoa:

Egiaz jakin nahi dudana da nola bizi duzen zuek hori, kontuan hartuta gizarteak ikusten dituela maila horietan mugitzen diren neurritz kanpoko zenbateko horiek, eta iruditzen zait ez lukeela horrela izan behar.

Javier Saralegui:

Zuk, Ion, maila horietara iritsi nahi al zenuke?

Ion García:

Nahiko nuke, baina oso zaila da golfean, jende asko baitago. Mundu guztiak egon nahi du goi-goian, baina gutxi batzuek baino ez dute lortzen. Nire ikuspegitik, futbola eta beste zenbait kirol gehiegi balortuta daude eta diru asko mugitzen da, baina haiek mugitzen dute diru hori, milaka eta milaka pertsona mugitzen baitira futbolarekin. Jendea futbol zelaira izar horiek ikustera joaten da, eta ezin diezu esan gutxi edo asko irabazten dutela. Mugitzen dutena irabazten dute, eta asko mugitzen dute.

Javier Saralegui:

Ruben, zu kirolari profesionala zara eta zer deritzozu?

Ruben Beloki:

Azkenean, kirola pasioa da. Milaka pertsonaren pasioarekin jokatzeko duzu; pilotan beharbada ez horrenbeste, gutxiagokoen kirola baita, baina futbolariak pertsona asko mugitzen dituzte, nahiz eta umetan jokatzeko hasi gustuko zutelako, milioiak irabaziko zituztela pentsatu gabe. Haien pasioa da, jende askorena bezalaxe. Azkenean, kirolaria kirol profesionalen makinariaren azken pieza da. Esate baterako, Cristiano Ronaldok jokatzeko jarraituko luke 10 milioi pezetaren truke. Bera zaletasunagatik hasi zen jokatzeko futbolekin, eta makinariak ipini du hor eta horregatik kobratzen

Eta oso tristea iruditzen zait ikustea haurrek profesionalen egitura kopiatzen dutela. Ikustea klubek haurrak futxatzen dituztela, aitzak oihera aritzen direla, haur batek zangozko egiten duela eta besteak lurrera botatzen duela bere burua falta itxura egin... Futbolak dituen balio txarrak kopiatzen dituzte, nahiz eta onak ere badituen. Futbolak iruzurrezko gauza asko ditu.

Javier Saralegui:

Iosu, zure iritzia interesgarria da, futbolaren eta eskubaloien artean egon daitekeen konparaziozko bidegabekeriarengatik. Eskubaloia taldekako kirol handietako bat da herri honetan, eta futbolari batek irabazten duenak ez dauka batere zerikusirik eskubaloiko jokalariei irabazten duenarekin.

Iosu Goñi

Eskubaloia, mugitzen diren zenbatakoei dagokienez, ezin da inola ere konparatu futbolarekin. Eskubaloiarekin dirua irabazteko, oso-oso ona izan behar da. Ikusten dut, nire kasuan, eskubaloitik bizi naitekeela jokatzeko dudaren bitartean, baina aurrerago zer egin ahalko dudaren pentsatzen dut.

Horretarako, ikasten jarraitu behar duzu, zure etorkizuna bilatzen saiatu. Eskubaloiarekin dirua irabaztea oso zaila da.

Laura García:

Ohar bat egin nahi dut. Ustez milioi askokoak diren kontratuak buruz ari zarete hitz egiten, baina, nire kasuan, kirolari paralinpikoa naiz, munduko domina irabazitakoa, hainbat diploma ditut, Europako domina irabazitakoa naiz eta abar, eta, nire kontra-

tuei dagokienez, ez dute ezertxo ere balio, Pekingo zazpigarren postuagatik ez

baitut ezertxo ere kobratu, eta olinpikoak, berriz, kobratzen ari dira. Munduko hirugarren postuagatik 4.000 euro kobratu ditut. Ikusten duzue nolako superkontratuak diren hauek. Gaur egun, Espainiako paralinpiar selekzioan nago. Hau da, alde horretatik, barkatu, baina paralinpikook behe-behean gauzkatu.

Carmelo Paniagua

Lehen egindako galdera azpimarratu nahi dut.

Lehenago, kirola egiten hasi zinetenean, zuek inor hasi al zen 100 milioi pezeta irabazteko? Ez, ezta?

Horregatik azpimarratzen dut haurrei balio horiek helarazi behar dizkiegula. Beharrezkoa da esatea zuek kirola egiten hasi zinetenean ez zinetela hasi dirua irabazteko, baizik eta kirola benetan gustatzen zitzaizuelako.

Beharbada erlatibizatu egin behar dira kontu hauek. Haurrari esan: “Begira, Ronaldok, edo entrenatzaileak, edo dena dela, 100 milioi kobratzen ditu, baina hori bat da bizitzan, eta gainerakoek ez dute hainbeste kobratzen. Eta oso zaila da onenetakoa izatera iristea. Ia ezinezkoa da”.

Ulertzen dut zuek praktikatzen duzuen kirol jarduerak, kirol bakoitzak duen bereizkuntzaren barruan, logikoki errentagarri bihurtu behar dela profesionalizatzeko orduan, ezta?

Ion, zu golfean ibiltzen zara eta beharbada Tiger Woodsek irabazten duena irabazi nahi duzu, baina... Tigerrek benetan gozatzeko al du golfean jokatzeko? Ba, golfean jokatzeko gozatzeko badu, joka dezala debalde. Horrekin lortuko litzateke haur askok ikustea ez duela kirola egiten diruagatik, baizik eta kirola maite duelako; dagoneko nahikoa diru irabazi baitu bizi guztirako, ba orain joka dezala debalde.

Balio horiek transmititu behar zaizkie kirola egiten duten gazteei, ez dezatela pentsa soil-soilik irabazten duen diruan, mezu hori iristen baitzaigu etengabe komunikabideen bidez. Hori da nire gogoeta.

Javier Saralegui:

Gauza bat galdetu nahi diot Iosuri, jakintzat ematen dugun gauza bat, eta beharbada korapilatsua dena. Zenbat urterekin irten zara etxetik Leonera joateko?

Iosu Goñi:

20rekin. Hau dut lehen urtea Leonen.

Javier Saralegui:

20 urte dituzu. Oso gogorra al da etxetik joatea kirola egiteko?

Iosu Goñi:

Egia esanda, kirola amets bat da, horrek mugiarazten zaitu eta horren alde egiten duzu. Uste dut gogorra izan daitekeela etxetik joatea, eta ezagutzen ditut zenbait gazteren kasuak: 14 edo 15 urterekin, Granollersen edo Bartzelonan jokatu nahi dute, eta gurasoek ez dakite joaten utzi edo gelditzera behartu, behintzat batxilergoa edo DBH bukatu arte. Nire kasua beranduagokoa izan da; burua nahiko jantzita edukitzeko zortea izan dut, hala uste dut, eta nahiko ondo moldatu naiz alde horretatik.

Laura Uhalte:

Nik ahizpa taldean daukat, hemen da bera

“Ikasketak eta kirola aldi batera egitearen gakoa norberaren atazak antolatzean datza. Ikasten jarraitu behar duzu, hots, etorkizuna jorratzen ahalegindu. Eskubaloiarekin dirua irabaztea oso zaila baita”

Iosu Goñi

ditu neurritz kanpoko zenbateko horiek.

Ana Casares:

Ni mutilekin futbolekin ibiltzen diren neska tipiko horietako bat nintzen, baina orduan ez zegoen emakumeen futbol talderik. Osasuna ikustera joaten nintzen igandero; asko gustatzen zitzaidan futbola. Orain, heldu beretan, gorroto dut. Senarrak esaten dit, “baina zuri futbola gustatzen zitzaizun eta, Robinson ikustera joaten zinen...”. Mugimendu sozialagoa zen. Orain, heldu naitzela, futbola nola dagoen ikusten dut, eta niretzat ia kirol izateari utzi dio, ez dakit negozio bat den, famatukeria edo zer den.

ere gaur, eta badu zerikusirik gai honekin. Nire ahizpa Psikologia ari da ikasten, Donostian. Bera etsenplu bat da; izan ere, egunero goizeko 6etan jaikitzen zen, 07:00etan autobusa hartzen zuen, 08:00etan Donostiara iristen zen, eta 14:30ean bukatzen zuen. Ondoren, lehenengo autobusa hartzen zuen, 15:00etan, eta Iruñera itzultzen zen, 17:00etan entrenatzeko, eta hurrengo egunean gauza bera. Eta, gainera, milioi askoko kontratuei buruzko galderarekin lotuz, esan behar dizuet gure kasuan ez dagoela kontraturik eta hau pasioagatik egiten dugula. Jasotzen dugun gauza bakarra Miguel Indurain fundazioaren beka da; kontratu moduko bat da, maila jakin batean jarraitzeagatik eta kirola garatuz jarraitzeagatik.

Javier Saralegui:

Lehen esan dugu hemen zaudeten kirolari guztiok, Ruben Beloki ez beste guztiak, bera kirolari profesionala baita, Miguel Indurain fundazioaren beka duzuela. Fundazio horrek badu lan ildo bat kirolariei lan munduan sartzen laguntzeko eta erakunde akademikoekin akordioak lortzeko, ahal den neurrian ikasketak, lana eta kirola uztartzea errazteko edo laguntzeko.

Publikoa:

Mahaiko emakumeentzako galdera da hau: uste duzue emakume izateagatik zailagoa izan zaizuela eliteko kirolera iristea? Ez naiz hainbeste ari sari ekonomikoari buruz, baizik eta zuen inguruan, bai familiaren aldetik eta bai lagunen aldetik, jaso duzuen babesaz.

Ana Casares:

Duela urte batzuk gehixeago nabaritzen zen bereizketa hori; arrarotzat hartzen zen emakumea izanda kirola egitea, lehiatzea. Nik neuk kirola egiteko laguntza handia izan dut inguruan, gurasoengandik hasita, eta erraz iritsi naiz. Inoiz ez naiz sentitu baztertuta mutilen aldean. Ohikoa bai, kalean oihu egitea korrika zabiltzanean, edo ohiko langileak ohiko gauzak esatea emakume izateagatik, edo bizikletan zoazenean denak zirikatuta sentitzea... gisa horretako gauzak bai, baina diskriminazioari dagokionez ez dut inolako esperientzia txarrik eduki.

Nieva Larraya:

Laura eta biok mugitzen garen munduan, uste dut ez dagoela inolako bereizketarik. Duela urte batzuk segur aski bai, mutilak neskak baino lehenago hasi zirelako lehiatzen, baina gaur egun ez. Diruaz ari garelarik ere ez, ez mutilek eta ez neskek ez baitute irabazten; kirol honekin inork ez du irabazten. Beharbada arlo fisikoan bai, neska gihartsu-gihartsuek atentzio handia ematen dutelako, eta batzuek onartzen dute eta beste batzuek ez, batzuei gustatzen zaie eta beste batzuei ez.

Laura García:

Niri judoa familiagandik datorkit, beti praktikatu baitituzte arte martzialak familian, hala nola karatea. Nik, ikusmen urritasuna dudanez, ezin nuen karatea egin. Nire lehengusua Espainiako entrenatzailea da, eta praktikatzera animatu ninduen, baina esan nion karatea egiten nuela ospitalean bonu bat ateratzen bazidan. Esan behar dut ulertu zuela, eta, nire minusbalotasuna dela eta, alde horretatik askoz ere gehiago lagundu naute.

Laura Uhalte:

Gimnasia neskak gara ia denak. Orain mutilak ere hasi dira, dantzariak ere badi-ren bezala, eta araudi bat egiten ari dira, haiek ere praktikatu ahal izateko. Ez dago arazorik, modalitate hau ia-ia emakumeena baita.

Javier Saralegui:

Beste galdera bat edo bi egiteko astia badugu oraindik. Alberto Undiano eskatu du hitza, publikotik.

Alberto Undiano:

Harri bat botako dut nire teilatuaren kontra, futbolaren kontra.

Anarekin askotan egin dut bat Burlatan, entrenatzen. Bera ordu askoan aritzen zen pistari bueltak ematen. Nik 1.000 metroko hiruzpalau serie egiten nituen nire erritmoan, eta alde egiten nuen, eta berak han jarraitzen zuen, ez dakit zenbat denbora gehiagoan.

Mahaia osatzen dute kirolariek futbola bezain mediatikoak ez diren kirolak praktikatzeko dituzte. Epailleok, jakina, ez gaude

futbolarien maila ekonomiko berean, lehen mailako futbol jokalarik baten fitxa izan daitekeenaren %10era ere ez gara iristen.

Uste dut neurri batean komunikabideek dutela hemen ordezkatuta dauden kirolak aintzatetsita ez egotearen errua. Uste dut, Javier, eta ez da losintxa egiteko, zu zarela futbolaz ez ezik beste kirol batzuek ere hitz egiten duten pertsona bakarretako bat. Hartzen dugu irratiko edo telebistako edozein programa, eta ez dira futbolaz baizik ari. Telebistako albistegiak eta irratia jartzen baditugu, Munduko Txapelketak hartzen du kirolez hitz egiten duten denboraren %90. Kazetariek beren burua aldeztan dute esanez haien ustean jendeari benetan interesatzen zaion hori saltzen dutela. Baina futbolaz besterik hitz egiten ez badugu, ezinezkoa da jendeari beste kirol batzuetarako interesa sortzea. Gizartean kirolak ez aintzatetsita egotearen arrazoia estamentu askok daukate, baina, beharbada, komunikabideek, kirolean gertatzen denaren bozgorailuek, ziurra den horren alde egiten dute askotan. Badakite futbolaz hitz eginez gero, batez ere Real Madrilez edo Bartzelonaz hitz eginez gero, ziurtatuta izanen dituztela ikus-entzuleak.

Esate baterako, beldurra ematen die golfaz, eskubaloiaz, gimnasiaz edo beste kirol batzuek hitz egiten den programa bat egiteak. Egia esanda, lotsa handia pasatzen dut Ana entrenatzen ikusten dudanean, eta hori ni izugarri entrenatzen diren setati horietakoa naizela. Zintzo hitz eginda, Anaren prestakuntzarekin konparatuta, ez bakarrik arlo ekonomikoan, baizik eta aintzatespenaren arloan, Ana kalean paseatzen ari dela, kirol horren zaleren bat badago, ezagutuko du beharbada, baina askoz ere ezagunagoa da edozein futbolari. Hori tris-tea da.

Javier Saralegui:

Orain hizpide dugun hori eztabaida polit eta zabal baten parte izan daiteke. *Marca* egunkariko zuzendaria, Eduardo Inda, Iruñean izan zen duela gutxi, kirol marketinaren eta babesaren gaineko kongresu batean, eta esan zuen Real Madrilek irabaztea desiratzen duela *Marca*-k; izan ere, Real Madrilek irabazten duen igandean, astelehenean 30.000 egunkari gehiago saltzen dituzte. Eta Fernando Alonsok zerbait berezia egiten duen egunean, *Marca* egunkariak 25.000 ale gehiago saltzen ditu.

Hortik ondorioztatzen da jendeak Real Madrid eta 1 Formula nahi dituela. Gero egia da telebistak ikusle gehiago izaten dituela Real Madrilez hitz egiten denean.

Ni planteamendu horren beste aldean nago, eta esan nahi dizuet Nafarroa komunitate pribilegiatua dela eliteko talde eta kirolari kopuruari dagokionez eta Nafarroan egiten diren kirol ugariari dagokionez.

“Nafarroako Unibertsitate Publikoan azterketa-egunak aldatzeko eta lanak beranduago aurkezteko aukera eman didate...; hori erabat lagungarria izan da ikasketak eta kirola uztartzeko”

Ion García

“Nire gurasoek beren gauzak uzten zituzten eta astebururo Baztanera, Goizuetara, Bizkaira... eroaten ninduten, joka nezan. Orain, aldiz, neu naiz aita, eta erabat aldeztendu semea eta haren pilotazetasuna. Egun, bi ikuspegietatik ohartzen naiz horretaz guztiaz”.

Rubén Beloki

Espainian inbidia diete Nafarroako kirol jokoei eta Carmelok berretsi dezake hori, gertutik ezagutzen baitu autonomia erkidego guztietako kirola. Bestela, begira zer mahai polita daukagun gaur hemen: gimnasta bat, eskubaloï jokalaria bat, pilotari profesional bat, bi judoka, golf jokalaria bat eta atleta bat.

Alberto Undianok esandakoa beste gai batekin lotuko dut: Zergatik uste duzue uzten dela alde batera kirola lehen aipaturiko adin kritiko horretan, 12-14 urte ingururekin? Zuek aurrera jarraitu duzue, baina adiskide asko izan dituzue 12-14 urterekin kirola egiteari utzi diotenak. Uste duzue nagikeriagatik dela? Lotsagatik? Zein etsenplu dituzue kirola egiteari goiz utzi dioten gertuko gazteenak?

Iosu Goñi:

Adin horretan kirola uzten duen jende askok ona ez delako uzten du, eta adin horretan, kirola egiten baduzu eta ona ez bazara, jadanik ez duzu ondo pasatzen. Beste batzuetan, ikasketengatik uzten dute, bi gauzei eskaini behar zaien denboragatik, eta uste dutelako ezin dituztela bi gauzak aldi berean egin. Egia esan, uste dut antolatzea dela kontua; izan ere, jende askok kirola uzten du eta berdin-berdin jarraitzen du ikasketetan huts egiten.

Laura Uhalte:

Gimnasian bi adin kritiko daude. Lehenengoa hasi berritan izaten da, neskatok amaren edo aitaren eskutik joan behar dutenean, bi orduz han utzi eta bukatzean bila joaten zaizkienean. Horrek ahalegin handia eskatzen dio familiari.

Bestea nerabezaroan izaten da; izan ere, gimnasia oso adin goiztiarretan praktikatzen da, eta, gainera, une gogorrenak bat egiten du lagunak oso garrantzitsuak diren garai horrekin, mutilekin irteten ere hasten zaren garaiarekin, bat egiten du irteten hasten zaren adinarekin, alkohola probatzen hasten zaren adinarekin. Gimnasiarekin jarraitzen duenak egiten duena benetan atsegin duelako jarraitzen du, eta, batez

erre, kirol hori egiten duen jendea topatu duelako eta lagun egin direlako, eta batzuek eta besteek elkar motibatzen dutelako aurrera jarraitzeko. Pasio bera eta helburu berberak dituzten taldeak dira, bat egiten dute, eta hor adiskidetasun handiak sortzen dira. Intentsitate handiko harremanak sortzen dira.

Nieva Larraya:

Judoaren munduan, uste dut adin horretan, 13-14 urterekin, nerabeei konstantzia falta zaiela. Oso tentagarria eta deigarria da parrandara ateratzea, zure lagunak zenbat gauza egin ditzaketen ikustea, ez ordutegirik izatea, entrenatzera, lehiaketetara joan behar ez izatea, ez izatea edozein kirolek, behintzat judoak, eskatzen duen eskakizun maila hori.

Gure kasuan, badira hainbat judoka ononak, baina borondate hori, konstantzia hori ez izateagatik, utzi egin dute. Izan ere, benetan zaila dena ez da horra iristea, baizik eta bertan irautea. Lanik eta ahaleginik egin ez dutelako, azkenean utzi egiten dute. Badira oso argiak diren beste etsenplu batzuk, eta ondo-ondoan daukat bat; losuk esan duenaren kontrakoa gertatzen zaie kirolari horiei, hau da, txikitzen lotsa

pasatzen zuten, ez zuten borrokarik irabazten, eta, egindako lanaren eta esfortzuaren ondorioz, dauden lekura iritsi dira. Behintzat judoan hala da.

Ana Casares:

Garrantzitsua da adin horietan emaitzari ez ematea lehenetasuna, baizik eta alderantziz, garrantzia kentzea, babesa eta lagunen adiskidetasuna nabarmentzea, inor ez dela inor baino hobea edo okerragoa, hainbeste nabarmentzen ez diren horiek kirola egiten jarrai dezaten, giro onak erakarrita. Gainera, adin horietan asko aldatzen da gorputza, eta bakoitzaren bilakaera oso desberdina izaten da. Batzuk besteak baino lehenago heltzen dira; beraz, emaitzak lehenago edo geroago etortzen dira. Nik 14 urte nituenean ez nuen pentsatzen lortu dudan ezer lor nezakeenik. Hala ere, ahaleginarekin gauza asko lortzen dira. Nire kirolaren kasua da hori. Ulertzen dut gimnasian, beste kirol batzuetan bezala, oso goiz hasi behar dela, eta adin horietan kirol hori ondo praktikatu ez baduzu ez daukazula zereginik.

Javier Saralegui:

Mahai-inguru hau amaituko dugu dagoneko, eta eskerrak eman behar dizkiegu gurekin izan diren kirolariei. Eskerrik asko zuen esperientzia kontatzeagatik. Zorte onona opa dizuegu orain eta etorkizunean, kirola egiteko eta beste gauza guztiatarako. Kirolari osasuntsu eta orekatuen etsenplurik onenak zarete, bikain uztartu dituzue kirola eta ikasketak.

Espero dugu zuen lekukotza baliagarri izatea ikusteko kirolak balio duela bizitzarako pertsona handiak egin eta prestatzeko.





Amaiera

Carmen Maestro

Estatuko Eskola Kontseiluaren lehen-dakaria

Oso lan interesgarria iruditu zait Nafarroako Eskola Kontseiluak egin duena. Gaurko jardunaldian asko ikasi dut, eta espero dut zuek ere asko ikasi izana. Jardunaldia askotarikoa izan da.

Eskola kontseiluen gainean gogoeta egiten aritu naiz. Askotan oso eragin txikia izaten dugu hezkuntza politiketan, baina era honetako lanek eta jardunaldiek argi uzten dute zein den eskola kontseiluen esanahia: Ez dugu legeriarik egiten, ez dugu kudeatzen, ez dugu politikarik egiten, baina eskola kontseiluen barruan hezkuntza komunitate osoa dago, sentsibiltate guztiak daude, eta denok dugu interesa haurrenganako, gazteenganako, denontzako hezkuntza hobetzeko.

Alde horretatik, oso garrantzitsua da Nafarroako Eskola Kontseiluak oro har kirolaren egoerari buruz gogoeta egitea, nahiz eta Nafarroan ardaztua egon.

Uste dut ikuspegi orokor horretan, ez bakarrik kirol tituluen arloan baizik eta kirolaren

alderdi guztietan, oso interesgarria izan dela entzun dugun guztia.

Ziur nago ondorio argi horiekin, Kirol Irakaskuntzari buruzko Txostenean aurkeztu diren etorkizuneko proposamen zentzudun horiekin, administrazioek, hezkuntza administrazioak, kasu honetan Nafarroakoak, baina denek oro har, gogoan hartuko dituztela eta beharrezko baliabideak jarriko dituztela irakaskuntza berezi horiek aurrera eramateko.

Nik konpromisoa hartzen dut txostena eta arlo honetako hobekuntza proposamenak Hezkuntza ministroari eta, jakina, Estatu idazkariari helarazteko (hemen daude harekin lan egiten duten pertsonak ere).

Oso une berezia da kirol irakaskuntzarako, dekretuak onesten ari dira, egiten ari den guztia balioztatzen ari dira. Baita Nafarroan ere, kirola hain garrantzitsua den lurralde honetan, bai ikastetxeetan eta bai eskolaz kanpoko jardueretan, bai eta eliteko kirol profesionalean ere. Uste dut Komunitate honetan oin hori falta dela. Baina, hortik harago, prestakuntza oinarritzkoenetan pentsatzen nuen, hasiera-hasierakoetan, une jakin batean zailtasunak dituzten gazteak harrapatzeko modua izan daitekeela kirola.

Hemen esan da 12 urterekin utzi egiten

dela kirola. Kontrako kasuetan pentsatzen ari nintzen, alegia, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako gazteek garbi ez dutenean porrot egiten dutela eskolan DBHko 2., 3., 4. maila horietan. Une horietan has daitezke kirol prestakuntzan, eta aurrerago, kirolaren balioek harrapatuta geratzen direnean, konstantziaren balioak, taldean bizi-tzearenak, elkartasunarenak eta bai ikastetxean eta bai eskolaz kanpoko jardueretan kirolean hain garrantzitsuak diren antzeko balioek harrapatuta gelditzen direnean, kirola baliagarri gertatuko zaie beste ikasketak batzuetarako palanka gisa: kirol irakaskuntzako erdi mailako zikloak edo goi mailako zikloak.

Uste dut une hau ezin hobea dela hemen esandakoaren gainean denok batera gogoeta egiteko.

Niretzat plazer handia izan da hemen zuekin izatea; ziur nengoen jardunaldia interesgarria izanen zela. Nafarroako Eskola Kontseiluak edo Kontseiluko lehendakariak gonbidatzen nauten bakoitzean, hemen izaten naiz, bai baitakit interesgarria izanen dela, asko ikasiko dudala.

Hitz horiekin, amaitutzat ematen dut jardunaldi hau. Eskerrik asko denoi.

4/2010, Berezko ekimenaren txostena

KIROL IRAKASKUNTZAK

Lehen zatia: Kirol irakaskuntzak eskola irakas-kuntzetan. Heziketa Fisikoa eta Eskolaz Kanpoko Kirola Lehen Hezkuntzan, DBHn eta Batxilergoan

11. Heziketa Fisikoa Lehen Hezkuntzan. Curriculumaren analisia

- 1.1. Irakasgaiaren irakastordua Lehen Hezkuntzan
- 1.2. Edukien egitura
- 1.3. Oinarrizko eskumenekiko lotura
- 1.4. Helburuak
- 1.5. Irakasleei eskatutako titulua

2. Heziketa Fisikoa DBHn. Curriculumaren analisia

- 2.1. Irakasgaiaren irakastordua DBHn
- 2.2. Edukien egitura
- 2.3. Oinarrizko eskumenekiko lotura
- 2.4. Helburuak
- 2.5. Irakasleei eskatutako titulua

3. Heziketa Fisikoa Batxilergoan. Curriculumaren analisia

- 3.1. Irakasgaiaren irakastordua Batxilergoan
- 3.2. Edukien egitura
- 3.3. Helburuak
- 3.4. Irakasleei eskatutako titulua

4. Heziketa Fisikoa irakasgaiaren bitartez Lehen Hezkuntzan, DBHn eta Batxilergoan izandako kirol irakaskuntzei buruzko ondorioak

5. Eskolaz kanpoko kirola eskola adinean

- 5.1. Araudiari dagozkion aldeak
- 5.2. Eskola adinean izaten diren kirol ekintzen errealitatea Nafarroan

6. Ondorioak eta proposamenak

Bigarren Zatia: Kirol teknikarien prestakuntza-rako irakaskuntzak

1. Kirol irakaskuntzak Lanbide Heziketan: 'Kirol ekintza Fisikoak' lanbide-arloa

- 1.1. Kirol ekintza Fisikoak' lanbide-arloaren zikloak. Horien ezarpena Nafarroan
- 1.2. Irakaskuntzen Antolamendua eta Egitura
- 1.3. Sartzeko baldintzak
- 1.4. Irakaskuntzen iraupena
- 1.5. Titulazioak
- 1.6. Zikloak amaitzean dauden aukerak
- 1.7. Kirol teknikarien bloke komunarekin dauden baliozko-tzeak
- 1.8. Kualifikazioei eta Lanbide Heziketari buruzko 2002ko ekainaren 19ko 5/2002 Lege Organikotik eta Hezkuntzari buruzko 2006ko maiatzaren 3ko 2/2006 Lege Organikotik eratorritako trantsizioa

2. Araubide bereziko kirol irakaskuntzak

- 2.1. Modalitateak eta espezialitateak
- 2.2. Irakaskuntzen Antolamendua eta Egitura
- 2.3. Sartzeko baldintzak
- 2.4. Irakaskuntzen iraupena
- 2.5. Titulazioak
- 2.6. Zikloaren aukerak
 - 2.6.1. Erdi maila amaitzean dauden aukerak
 - 2.6.2. Goi maila amaitzean dauden aukerak
- 2.7. Kirol irakaskuntzen ezarpen-prozesua. Kirolari buruzko Legetik eta LOGSEtik Hezkuntzaren Lege Organikora arte (HLO)
 - 2.7.1. Behin-behineko aldia
 - 2.7.2. Kirol irakaskuntzak Hezkuntzari buruzko 2/2006 Lege Organikoaren ostean
- 2.8. Kirol teknikarien irakaskuntzen ezarpenaren errealitatea
- 2.9. Nafarroako Kirolaren Institutuaren jarduketa behin-behineko aldiaren esparruan
- 2.10. Irakaskuntzen ezarpenean dauden zailtasunak
- 2.11. Egungo problematika

3. Ondorioak eta proposamenak

Kirolak gure eguneroko ekintzen eta solasaldien barnean leku garrantzitsua betetzen du, informazioa, iritzia eta komunikazioa sortzen ditu, identitateak eta loturak, mitoak eta erritoak eratzen ditu, ezagutza, ikerketa, enplegua, teknologia, aberastasuna eta abar sortzen ditu... Gizarte, kultura eta ekonomia mailako fenomeno da eta zabaltzen ari da.

Azken hamarkadetan, aldatu egin da kirolak gizartean daukan balioa eta esanahia, kirol ikuskizunen kopurua, kalitatea eta ospea nabarmen areagotu da, arlo fisikoko eta kirol arloko jarduerak gauzatzea errazagoa da herritar guztientzat eta handitu egin da kirolaren munduarekin lotutako bitarteko pertsonalen eta materialen kopurua.

Nafarroako Eskola Kontseiluak ezagutzen ditu gizarte eta kultura mailako aldaketa horiek eta badaki kirolak maila guztietan gaur egun garrantzi handia daukela, bai garapen fisikoaren, ongizatearen, osasunaren eta bizi-

kalitatearen mailan, baita entretenimenduari eta aisialdiari eta haren maila profesionalari dagokionez ere. Beraz, gure Foru Erkidegoak etorkizuneko belaunaldiei hezkuntza egokia eta arlo horretan dauzkaten aukera guztiak garatzeko egokiera nahikoak zein neurrian eta nola eskaintzen dizkien ezagutu nahi du. Helburu horrekin, 2009ko irailaren 22ko osoko bilkuran onetsi zuen kirol irakaskuntzei buruzko txosten bat egitea bere ekimenez. Txosten horrek lehentasunezko bi ardatz izango ditu:

- Kirol irakaskuntzak eskola mailako heziketan, Heziketa Fisikoa eta Eskolaz Kanpoko Kirola Lehen Hezkuntzan, DBHn eta Batxilergoan.
- Kirol teknikarien prestakuntzara zuzendutako irakaskuntzak. Araubide bereziko kirol irakaskuntzak.

Lehen zatia: Kirol irakaskuntzak eskola irakaskuntzetan. Heziketa Fisikoa eta Eskolaz Kanpoko Kirola Lehen Hezkuntzan, DBHn eta Batxilergoan.

1. Heziketa Fisikoa Lehen Hezkuntzan. Curriculumaren analisisa

Heziketa Fisikoa irakasgaia Nafarroako Lehen Hezkuntzan ezagutzaren arlo gisa sartzeari Nafarroako Foru Erkidegoko Lehen Hezkuntzako irakaskuntzen curriculumaren ezartzeko 2007ko martxoaren 19ko 24/2007 Foru Dekretuak arautu zuen (2007/05/23ko NAO).

1.1. Irakasgaiaren irakastordua Lehen Hezkuntzan

Heziketa Fisikoa irakasgaiak irakastordua bi dira hizkuntza-eredu guztietan, 2007ko maiatzaren 23ko 51/2007 Foru Aginduen arabera, 74. NAO, 2007ko ekainaren 15ekoan, argitaratutakoa.

1.2. Edukien egitura

Heziketa Fisikoa irakasgaiak etapa horretan dauzkan helburu nagusiak gaitasun motorrak garatzea eta bizi-kalitatea hobetzea dira, besteak beste. Horri dagokionez, jarduteko ohitura osasungarriak sortu nahi dira, gorputza bera onartzeko erraztasunak eman nahi dira autoestimua hobetzen laguntzeko eta aisialdirako heziketa egokia eman nahi da.

Gainera, jarduera fisikoaren inguruan sortzen diren pertsonen arteko harremanak lagungarri dira zenbait balore nork bere egiteko, esaterako, errespetua, onarpena eta lankidetzak.

Planteamendu horretatik, eremua bost bloketan egituratu da.

1. blokea, *“Gorputza, irudia eta pertzepzioa”* izenekoak, bat dator gaitasun pertzeptibomotorrak garatzea ahalbidetzen duten edukiekin. Norberaren gorputzaren gaineko ezagutza eta kontrola lortzera zuzenduta dago, hori funtsezkoa baita bai norberaren gorputzaren irudia garatzeko, bai aurreragoko ikaskuntza motorretara heltzeko.

2. blokeak, *“Gaitasun motorrak”* izenekoak, ikasleei modu eragingarrian mugitzea ahalbidetuko dien edukia biltzen ditu. Menderatze eta kontrol motorrari lotutako jabetzeekin dauka lotura.

3. blokeak *“Arte-adierazpide mailako jarduera fisikoak”* du izena eta gorputzaren eta mugimenduaren bitartez adierazkortasuna sustatzera zuzendutako edukiei egiten die aipamena. Berezik, gorputzaren mintzairaren bitartez gauzatu-tako komunikazioa azpimarratzen du.

4. blokea *“Jarduera fisikoa eta osasuna”* izenekoak da eta jarduera fisikoa osasungarri izan dadin beharrezkoak diren ezagutzeak osatzen dute. Gainera, bizitza osoan jarduera fisikoaren mailako ohiturak ongizatearen iturri gisa hartzea oinarri duten edukia barneratzen dira.

Azkenik, 5. blokea *“Jokoak eta kirolak”* izenekoak da eta jokoak eta kirol ekintzak gizakion motrizitatearen kultura-adierazpide gisa hartzeari lotutako edukia biltzen ditu barnean. Jokoa estrategia metodologikoa gisa erabiltzea azpimarratzen du, baita horien balio antropologikoa eta kulturala ere. Gainera, jokoak pertsonen arteko harremanak bultzatzen ditu eta zenbait balore sustatzen ditu, besteak beste, elkartasuna, lankidetzak eta beste pertsonetikiko errespetua.

1.3. Oinarrizko eskumenekiko lotura

Heziketa fisikoaren arloa funtsezkoa da ondorengo gaitasunak garatzeko:

1. Ezagutzari eta mundu fisikoarekiko elkarrenergari lotutako gaitasuna.

Heziketa Fisikoa irakasgaiak aukera motorrak hobetzen ditu norberaren gorputzaren pertzepzioaren eta elkarrenergari egokiaren bitartez, bai mugimenduan, baita geldian ere. Gaur egungo gizarteak, ezinbestekoa da jarduera fisikoa erantzukizunez egitea, hori ikastea eta oreka psikofisikorako bide gisa, gutxi mugituzetik eratorritako arriskuak prebenitzeko faktore moduan eta aisialdia betetzeko aukera gisa balioestea.

2. Gizarte eta herritar mailako gaitasuna.

Heziketa Fisikoaren ezaugarriak, batik bat hura gauzatzeko inguruari eta eskolen dinamikari eta elkarrenergari lotutakoak, gizarte mailako gaitasunak sorrarazteko egoki bihurtzen dute. Jarduera fisikoak eta, bereziki, taldean gauzatzen direnak, harremanak, integrazioa eta errespetua errazteko bide eragingarria osatzen dute eta, gainera, lankidetzak eta elkartasuna garatzen laguntzen dute. Lehia handiko jarduera fisikoek sor ditzaketen gatazketan beharrezkoa da elkarrenergari oinarritutako negoziatzea, gatazka horiek konpontzeko.

3. Gaitasun kulturala eta artistikoa.

Gorputzaren aukerak eta baliabideak arakatzearen eta erabiltzearen bitartez, Hezkuntza Fisikoa irakasgaiak ideiak edo sentimenduak sormenez adierazten laguntzen du. Bestalde, kirolak, joko tradizionalak, adierazpen-jarduerak eta dantza, besteak beste, herrien ondare dira eta kulturaren ulermena eta hedapena bultzatzen dute.

Halaber, kirola ikuskizun gisa aztertzeak kirolaren munduan dagoen indarkeriari eta gizakien duintasunaren kontrako beste egoera batzuei buruzko hausnarketa kritikoa egiten laguntzen du.

4. Autonomia eta ekimen pertsonalaren gaitasuna.

Hezkuntza Fisikoa irakasgaiak ikasleei erabakiak hartzeko deia egiten die eta, erabaki horien bitartez, norbere burua gainditzeko gaitasuna, iraunkortasuna eta jarrera positiboa adierazi behar izaten dituzte.

5. Ezagutzaren bitartez ikasten ikasteko gaitasuna.

Heziketa Fisikoa irakasgaiak norbere burua ezagutzea ahalbidetzen du eta, beraz, baita norberaren aukerak eta gabeziak ere, ikaskuntza motorren abiapuntu gisa. Horri esker, lor daitezkeen helburuak jar ditzake norberak eta helburu horiek lortzeko norbere buruarekiko konfiantza sortzen du.

6. Informazioaren tratamenduari buruzko gaitasuna eta gaitasun digitala.

Arlo honek, oso txikitatik, gorputzari lotuta komunikabideetatik datozen mezuak modu kritikoa balioesten laguntzen du, mezu horiek norbere gorputzaren irudirako kaltegarriak izan baitaitezke.

7. Hizkuntza bidezko komunikaziorako gaitasuna.

Irakasgai horrek, besteak bezala, komunikaziorako elkartruke askotarikoak bultzatzen ditu, baita

horiek bideratzen dituzten arauak eta arlo horrek dakarren hiztegi espezifikoak ere.

1.4. Helburuak

Heziketa Fisikoa irakasgaiaren irakaskuntzak ondorengo helburuak ditu Lehen Hezkuntzan:

1. Arlo horrek berezkoak dituen ahozko, idatzizko, gorputzezko eta ikus-entzunezko dokumentuak eta mezuak egoki ulertzea eta adieraztea.

2. Gorputza eta jarduera fisikoa ezagutzea eta balioestea norberaren aukera motorrak arakatzeko eta horiez gozatzeko modu gisa, baita besteekiko harremanerako bide moduan eta aisialdiaren antolatze baliabide gisa ere.

3. Jarduera fisikoa ongizaterako baliagarria dela aintzat hartzea, norbere buruarekiko eta beste pertsonetikiko erantzukizunezko jarrera adierazita eta ariketa fisikoak, higieenak, elikadurak eta jarrerari lotutako ohiturek osasunean daukaten eragina aitortuta.

4. Gaitasun fisikoak, ahalmen motorrak eta gorputzaren egituraren eta funtzionamenduaren ezagutza erabiltzea mugimendua une bakoitzaren egoeretara eta baldintzetara egokitzeko.

5. Printzipioak eta arauak barneratzea, hautatzea eta aplikatzea arazo motorrak konpontzeko eta modu eragingarrian eta autonomoan jokatzeko jardura fisikoak, kirol ekintzak eta arte-adierazpideak gauzatzeko orduan.

6. Ahalegina erregulatzea eta neurtzea, norbere buruarekiko exigentzia maila norberaren aukeren eta zereginaren mailaren arabera izan dadin.

7. Gorputzaren adierazpen-baliabideak eta mugimendua estetikari eta sormenari lotuta baliatzea.

8. Jarduera fisikoetan parte hartzea proiektuak partekatuta, lankidetzak-harremanak finkatuta helburu komunak lortzeko eta elkarrenergari bidez sor daitezkeen gatazkak konpontzea inolako bazterketak ekidinez.

9. Jarduera fisikoaren, ludikoaren eta kirol jardueren aniztasuna ezagutzea eta balioestea kultura-elementu gisa, jarrera kritikoa izanda bai parte-hartzailearen ikuspegitik, baita ikuslearen ikuspegitik ere.

10. Liburutegia eta Informazioaren eta Komunikazioaren Teknologiak erabiltzera ohitzea, ikasteko eta ezagutzak partekatze baliabide gisa.

1.5. Irakasleei eskatutako titulua

Nafarroan Heziketa Fisikoko irakasle gisa jardun ahal izateko baldintzak Hezkuntza Ministerioak jarri zituen, 1994ko urriaren 11ko Ministerioaren Aginduen bitartez.

Zehazki, ondorengo profilak dauzkaten pertsonak izan daitezke Heziketa Fisikoko irakasleak:

A) Irakasle berriak (1994ko urriaren 19aren osteoak): Irakasle titulazioa, OHOn diplomadunak edo Lehen Hezkuntzako irakaslea, dagokion espezialitatearekin.

B) 1994ko urriaren 19a aurretik eskolak ematen ari baziren: horretan jarraitu ahal izango dute espezialitate gabe, ondorengo baldintzak betetzen badituzte (baldintza guztiak):

• Gutxienez, bi ikasturtez irakasgai hori ematea.

- 1994ko urriaren 11ko Ministerioaren Agindua indarrean jarri zenean eskolak ematen aritea.
- Ikastetxe berean eta orduan zegoen postu berean egotea.

C) Dagokion espezialiterik izan ezean edo lehendik deskribatutako egoeretakoren bat betetzen ez badute, Lehen Hezkuntzan eskolak ematen jarraitu ahal izango dute, betiere, ondorengo tituluetako bat badute edo ondorengo irakaskuntzarik jaso badute:

Heziketa Fisikorako:

- Heziketa Fisikoko lizentziatura edo lizentziatura horretako 3 ikasturte oso gaindituta izatea (diplomatura).
- Heziketa Fisikoko irakaslea, hezitzailea, hezitzaile nagusia, hezitzaile irakaslea.
- Hezkuntza eta Zientzia Ministerioaren Espezialitate Ikastaroak edo Erkidego Autonomoek antolatutako Espezialitate ikastaro homologatuak gaindituta izatea gaitasun guztiekin.

2. Heziketa fisikoa DBHn. Curriculumaren analisia

Heziketa Fisikoa irakasgaia Nafarroako Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan ezagutzaren arlo gisa sartzeari ondorengo legeek arautzen dute:

- 25/2007 Foru Dekretuak, martxoaren 19koa, Nafarroako Foru Erkidegoan derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako irakaskuntzen curriculumaz ezartzekoa.
- 51/2008 Foru Agindua, Hezkuntza kontseilariarena, Nafarroako Foru Erkidegoko ikastetxe publikoetan eta itunpeko pribatuetan ematen den derrigorrezko bigarren hezkuntzari buruzko Hezkuntza kontseilariaren beraren 2007ko maiatzaren 23ko 52/2007 eta 53/2007 Foru Aginduak aldatzekoaren arabera, alegia.

2.1. Irakasgaiaren irakastordua DBHn.

Heziketa Fisikoa irakasgaiaren irakastordua bi dira hizkuntza-eredu guztietan, Hezkuntza kontseilariaren 2008ko apirilaren 4ko 51/2008 Foru Aginduaren arabera, Nafarroako Foru Erkidegoko ikastetxe publikoetan eta pribatu itunpekoetan ematen den derrigorrezko bigarren hezkuntzari buruzko Hezkuntza kontseilariaren beraren 2007ko maiatzaren 23ko 52/2007 eta 53/2007 Foru Aginduak aldatzekoaren arabera, alegia.

2.2. Edukien egitura

Heziketa Fisikoa irakasgaiak etapa honetan daukan helburu nagusiak dira gaitasun eta abilezia motorrak eta gaitasun instrumentalak gara daitezen ahalbidetzea, jarduerak fisikoa egiteko ohitura jarraituak sortzea eta jarduerak fisikoa balore, jarrera eta arau eskala bati lotzea.

Halaber, ariketa fisikoa lagungarria da osasuna eta egoera fisikoa mantentzeko eta hobetzeko, zenbait gaixotasun eta disfuntzio prebenitzeko eta oreka psikikoa mantentzeko.

Heziketa Fisikoa irakasgaiak DBHn daukan edukiak lau bloke handitan banatuta daude: *Egoera fisikoa eta osasuna; Jokoak eta kirolak; Gorputz-adierazpidea eta dantza; eta Jarduerak inguru naturalean.*

Egoera fisikoa eta osasuna izeneko blokeak osasun fisikoari eta ariketa fisikoari eta kirol jardunari lotutako ohiturei egiten die aipamena, izan ere, horiek eragina daukate gizabanakoaren gaitasun fisikoaren garapenean, euren bizikaltatea hobetze aldera, eta aisialdiaren erabilerara konstruktiboan.

Jokoak eta kirolak izeneko blokeak nabarmentzen du Heziketa Fisikoa irakasgaiak lankidetzan, parte-hartzean eta jokoaren eta kirola egitearen bidez elkartasunera, lankidetzari eta bazterketa-rik ezari bideratutako jarrerak gauzatzean oinarritutako heziketa duela helburu.

Gorputz-adierazpidea eta dantza blokeak, irakasgai horren bitartez, gorputzaren bidez adierazpidea eta komunikazioa bultzatzera bideratutako edukiak barneratzen ditu.

Kirol ekintzak inguru naturalean izeneko blokeak aukera ematen die ikasleei naturarekin harreman zuzena izateko, jarduerak fisikoa, hein handi batean, esparru horretan gauzatzen baita. Gainera, natura zaintzen eta errespetatzen ere ikas dezakete.

2.3. Oinarrizko eskumenekiko lotura

Heziketa fisikoaren arloak modu zuzen eta garbian laguntzen du oinarrizko zenbait gaitasun gauzatzen:

1. Ezagutzari eta mundu fisikoarekiko elkarreraginari lotutako gaitasuna.

Giza gorputza pertsonak inguruarekin daukan harremanaren giltzarria da. Heziketa Fisikoak ahalbidetu egiten du ongizate fisiko, buruko ongizate eta gizarte mailako ongizate egoera ahalik eta onena izatea inguru osasungarrian.

Heziketa Fisikoa irakasgaiak, etapa honetan, zenbait ohitura osasungarri buruzko ezagutzak eta abileziak ematen ditu eta egoera fisikoa mantentzeko eta hobetzeko irizpideak ematen ditu, batik bat, osasunari lotutako gaitasun fisikoei dagokienez: erresistentzia kardiobaskularra, indar-erresistentzia eta malgutasuna. Bestalde, lagungarria da inguru naturala modu arduratsuan erabili ahal izateko naturan gauzatutako jarduerak fisikoen.

2. Gizarte eta herritar mailako gaitasuna.

Irakasgai honetako jarduerak fisikoen bitarteko eragingarria dira integrazioa bultzatzeko, erresetua sustatzeko eta lankidetzaren, berdintasunaren eta talde-lanaren alde egiteko.

3. Autonomia eta ekimen pertsonalaren gaitasuna.

Heziketa Fisikoa irakasgaiak ikasleei protagonismoa ematen die egunak eta kirol ekintza fisikoak banaka eta taldeka antolatzeari dagokienez.

Bestalde, irakasgai honek ikasleei planteatzen dizkien egoerek norbere burua gaintzea, iraunkortasuna eta jarrera positiboa adierazteko aukera ematen diete nolabaiteko zailtasun teknikoak daukaten egoeretan edo baldintza fisikoak maila hobetzerako orduan. Gainera, erantzukizuna eta zintotasuna eskatzen die arauak aplikatzerako orduan eta onarpenerako gaitasuna, berriz, taldearen barruko baldintza fisikoak eta gaitasun motorren maila lotuta.

4. Gaitasun kulturala eta artistikoa.

Gorputzaren aukerak eta baliabideak ustiatuta eta erabilia, Heziketa Fisikoa irakasgaiak ideiak edo sentimenduak sormenez adierazten laguntzen du. Bestalde, kirolak, joko tradizionalak, adierazpen-jarduerak edo dantza herrien ondarea dira eta kultura ulertzea eta zabaltzea bultzatzen dute.

Halaber, kirol fenomenoak ikuskizun gisa aztertzea lagungarria da modu kritikoan hausnarketa egiteko kirolaren baitan dagoen indarkeriari edo gizakion duintasunaren kontrako bestelako egoera posiblei buruz.

5. Ikasten ikasteko gaitasuna.

Heziketa Fisikoa irakasgaiak baliabideak eskaintzen ditu zenbait jarduerak fisikoren plangintza egiteko esperimentazio prozesu batetik abiatuta. Horrela, ikasleak gai dira euren ikaskuntza erregulatze eta denbora librean jarduerak fisikoren bat egiteko, modu antolatuan eta egokitan.

Bestalde, talde-lanerako gaitasunak garatzen ere laguntzen du.

6. Hizkuntza bidezko komunikaziorako gaitasuna.

Irakasgai honek, besteek bezala, komunikazio-elkartrukean, horien ardatz diren arauetan eta arlo horrek dakarren hiztegi espezifikoan aniztasuna sortzen laguntzen du.

2.4. Helburuak

Heziketa Fisikoaren irakaskuntzak ondorengo helburuak ditu etapa honetan:

1. Jarduera fisiko osasungarrien ezaugarriak eta norberaren osasunerako eta osasun kolektiborako dakartzaten onurak ezagutzea.

2. Jarduera fisikoaren ohiko jardun sistematikoa osasun baldintzak eta bizi-kaltatea hobetzeko bide gisa balioestea.

3. Errendimendu motorren aukerak areagotzea, egoera fisikoa hobetzea osasunari begira eta gorputzaren gaineko doikuntza, domeinu eta kontrol funtzioak hobetzea modu aktiboan parte hartuta eta norbere buruarekiko exijentziazko jarrera hartuta gauzatzerako orduan.

4. Ohitura osasungarriak eta arnasketako eta erlaxazioko oinarrizko teknikak ezagutzea eta finkatzea eguneroko bizitzan sortzen diren desorekak murrizteko eta tentsioak arintzeko, baita kirolaren mailako eta maila fisikoak jardunean ere.

5. Gaitasun fisikoari eta abilezia espezifikoari lotutako beharrak asebetetzea ahalbidetuko duten jardueren plangintza egitea, horien hasierako baliospenean oinarrituta.

6. Naturan eragin txikia daukaten kirol ekintzak eta jarduerak fisikoen gauzatzea eta, horrela, natura mantentzen laguntzea.

7. Banako, taldekako eta aurkakoen arteko jarduerak ezagutzea eta gauzatzea, jokoetako araudiak, oinarri teknikoak eta taktikoak aplikatuta eta horiek gauzatzerakoan gero eta autonomia handiagoa lortuta.

8. Errespetuan, talde-lanean eta kiroltasunean oinarritutako gaitasunak eta jarrera izatea jardueretan, jokoetan eta kirolean, kultura eta gizarte mailako eta sormen-adierazpideari lotutako desberdintasunak gorabehera.

9. Musika-oinarria daukaten edo musika-oinarririk gabeko jarduerak gauzatzea eta diseinatzea, gorputza erabilia komunikatzeko bide eta sormen-adierazpiderako modu gisa.

10. Kirolaren mailako eta maila fisikoko testuak eta mezuak adieraztea eta ulertzea (ahozkoak, idatzizkoak, gorputzari lotutakoak eta ikus-entzunezkoak), hiztegi espezifikoak eta arlo horretan funtsezkoak diren kontzeptuak erabilia.

11. Jarrera kritikoa izatea gizartearen testuinguruan gorputzaren tratamenduari, jarduera fisikari eta kirolari dagokionez.

12. Eskolako liburutegia eta informazioaren eta komunikazioaren teknologiak erabiltzea arlo horretako gaiei buruzko lanak oinarritzeko eta bideratzeko, eta ezagutzak ikasteko eta partekatzeko tresna gisa hartzea.

2.5. Irakasleei eskatutako titulua

Heziketa Fisikoko irakasle izateko eskatzen den titulazioa Hezkuntza Ministerioak zehaztu zuen Irakasleek Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan eta Batxilergoan izan behar duten gutxieneko Titulazioak arautzen dituen 1995eko uztailaren 24ko Aginduaren bitartez. Zehazki, ondorengo titulazioa daukatenek izan ahalko dute Heziketa Fisikoko irakasle:

- Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren Zientzietan, Heziketa Fisikoan, lizentziatuta daudenek.
- Unibertsitate mailako edozein lizentziatura izan eta aurreko puntuan zehaztutako tituluak lortzera bideratutako ziklo bat egina daukatela frogatzen dutenek.
- Medikuntzan lizentziatutakoek, Kirol Medikuntzako Espezialista diploma daukatela frogatzen badute.

Gainera, espezializazio didaktikoko edo pedagogikoko titulu profesionala eduki beharko dute (2009.10.1etik aurrera Unibertsitate Master titulu ofiziala).

Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako lehen zikloan ere eskola horiek eman ahalko dituzte ondorengo baldintzak betetzen dituzten maisuek eta gainerako irakasleek, betiere, ziklo horretan eskolak ematen 1997. urtea amaitu aurretik hasiak badira:

1.- OHOk irakaskuntzan diplomatutakoek, Heziketa Fisikoa espezialitatean.

2.- Irakasleek, ondorengo espezialitatearekin: Heziketa Fisikoa.

3.- Irakasleek, OHOk irakaskuntzan diplomatutakoek edo Lehen Hezkuntzako maisuek, betiere, hezkuntzan eskumen osoa daukaten Hezkuntza eta Zientzia Ministerioaren espezialitate ikastaroak edo autonomia erkidegoek deitutako espezialitate ikastaro homologatuak eginak badituzte edo Heziketa Fisikoa Lizentziaturako lehenbiziko hiru ikasturteak gaindituta dutenek, Heziketa Fisikoko irakasle, hezitzaile, hezitzaile orokor edo irakasle-hezitzaile titulua daukatenek edo 1994ko apirilaren 8ko 594/1994 Errege Dekretuak araututako Kirol teknikari titulazioa daukatenek.

4.- Maisu tituluaren iraupen bereko edo handiagoko unibertsitate-ikasketak berresten dituzten tituluak daukaten irakasleek, DBH ezarri ze-

nean Lehen Hezkuntzako baimendutako ikastetxe batean irakasten ari baziren, betiere, ondorengo baldintzak betetzen badituzte:

- a. Hezkuntza eta Zientzia Ministerioak edo autonomia erkidegoek deitutako espezialitate ikastaroak gaindituta izatea eta hezkuntza arloko eskumenak erabatean egikarrituta izatea, Hezkuntza eta Zientzia Ministerioak homologatuta, edo
- b. Heziketa Fisikoko Lizentziaturako lehenbiziko hiru ikasturteak gaindituta izatea, edo
- c. Heziketa Fisikoko diplomatura edukitzea, edo
- d. Heziketa Fisikoko irakasle, hezitzaile, hezitzaile orokor edo irakasle-hezitzaile titulua izatea, edo
- e. Heziketa Fisikoko Irakasleen Elkargo Ofizialaren baimen edo ahalmen espresua edukitzea, edo
- f. 1994ko apirilaren 8ko 594/1994 Errege Dekretuak araututako Kirol teknikari titulazioa izatea.

5.- Irakasle tituluaren iraupen bereko edo handiagoko unibertsitate-ikasketak berresten dituzten tituluak daukaten irakasleek, DBH ezarri zenean Lanbide Heziketako edo BBB-UBiko baimendutako ikastetxe batean irakasten ari baziren, betiere, ondorengo baldintzak betetzen badituzte:

- a. Heziketa Fisikoko Lizentziaturako lehenbiziko hiru ikasturteak gaindituta izatea, edo
- b. Heziketa Fisikoko diplomatura edukitzea, edo
- c. Heziketa Fisikoko irakasle, hezitzaile, hezitzaile orokor edo irakasle-hezitzaile titulua izatea, edo
- d. Heziketa Fisikoko Irakasleen Elkargo Ofizialaren baimen edo ahalmen espresua edukitzea, edo
- e. 1994ko apirilaren 8ko 594/1994 Errege Dekretuak araututako Kirol teknikari titulazioa izatea.

3. Heziketa Fisikoa Batxilergoan. Curriculumaren analisia

Heziketa Fisikoa irakasgaia Nafarroako Batxilergoko ezagutzaren arlo gisa sartzeari Nafarroako Foru Erkidegoan batxilergoko irakaskuntzen egitura eta curriculum auzartzeari buruzko 2008ko maiatzaren 12ko 49/2008 Errege Dekretuak arautu zuen, 2008ko ekainaren 6ko NAO n argitaratutakoak.

3.1. Irakasgaiaren ikastordua Batxilergoan

Heziketa Fisikoa irakasgaia Batxilergoko 1. mailan asteen bi orduz ematen da hizkuntza-eredu guztietan, Nafarroako Foru Erkidegoan Batxilergoa ezartzeari, haren egitura garatzeari, ordutegia finkatzeari eta hautatzeko irakasgaiari buruzko 2008ko maiatzaren 14ko 66/2008 Foru Aginduan, 2008ko ekainaren 9ko NAO n argitaratutakoan, zehaztutakoaren arabera.

3.2. Edukien egitura

Heziketa Fisikoa irakasgaia etapa honetan norberaren gorputzaren eta haren gaitasun motoren ezagutza sakontzera bideratuta dago. Hori

lagungarria da jarduera fisikoa modu erregularran egiteko ohitura finkatzeko eta aisialdia modu aktiboan betetzeko.

Halaber, irakasgai horrek ikasleak bidera ditzake etorkizunean jarduera fisikoaren, kirolaren eta osasunaren zientziekin lotutako goi mailako ikasketak egitera, nahiz unibertsitate mailakoak, nahiz maila profesionalekoak.

Heziketa Fisikoa irakasgaia Batxilergoaren 1. mailan hiru eduki bloke handitan egituratuta dago eta bloke horiek ezin dira bananduta ulertu, elkarrekiko lotura hertsia daukatelako.

Lehenengo blokea *Egoera Fisikoa eta Osasuna* izenekoa da eta ikasleei euren egoera fisikoa euren helburuen eta asmo pertsonalen arabera planifikatzeko aukera ematen die.

Bigarren *Kirol ekintzak eta Aisialdia* izenekoa da eta aisialdia modu aktiboan betetzeko dauden aukera anitzak garatzera bideratuta dago. Proposatutako jarduerak fisikokoak eta kirol ekintzak gauzatzea eta, bereziki, ingurune natural batean gauzatzea paregabea da ariketa osasungarria eta aisialdia norabide berean gauzatzeko.

Hirugarren blokea *Gorputz-adierazpidea eta Erritmoa* izenekoa da eta espazioa eta denbora adierazteko eta komunikatzeko bide gisa arakatzera eta erabiltzera bideratuta dago.

3.3. Helburuak

Heziketa Fisikoa irakasgaiak ondorengo helburuak ditu Batxilergoan:

1. Kirol ekintza fisikokoak modu erregularrean gauzatzeak osasun pertsonala eta soziala garatzeko eta bizi-kalitatea hobetzeko dakartzan onurak ezagutzea eta balioestea.

2. Jarduera fisikoko eta osasuneko programa bat eratzea eta martxan jartzea, horretarako behar diren ezaugarri fisikokoak areagotuta hasierako egoeraren ebaluazioarekin alderatuz, autonomia erakutsita eta norbere buruarekiko exijentziari dagokionez erantzukizuneko jarrera izanda.

3. Kirol ekintza fisikokoak antolatzea eta horietan parte hartzea denbora librean eta aisialdia betetzeko, pertsonen arteko harreman egokiak gauzatuta.

4. Kirol mailako egoera motorrei konponbidea ematea, erabakiak hartzeari lehentasuna emanda eta aurreko etapan ikasitako elementu teknikoak erabilia.

5. Kirol ekintza fisikokoak inguru naturalean gauzatzea, inguru natural hori mantentzeko eta hobetzeko lagungarria izan daitekeen jarrera izanda.

6. Jarrera kritikoa edukitzea banako eta taldeko osasunean eragin kaltegarria izan dezaketen gizarte mailako ohituren aurrean.

7. Talde txikitik, musika-oinarria daukaten edo musika-oinarririk gabeko konposizioak diseinatzea eta gauzatzea adierazteko eta komunikatzeko bide gisa.

8. Jarduera fisikoa eta erlaxatzeko teknikak modu autonomoan baliatzea ezagutza pertsonalerako bitarteko gisa eta eguneroko bizitzan sorturiko desorekak eta tentsioak murrizteko baliabide gisa.

9. Arlo honetako hiztegi espezifikoak erabiltzea eta, hori ohiko hiztegiaren barneratzerakoan, min-

tzairaren erabileraren zehaztasuna areagotu eta komunikazioa hobetu dadin.

10. Dauden iturrietatik lortutako informazioa bilatzea, hautatzea, ulertzea eta lotzea, inguru fisikoak eta gizarteak, ikastetxeko liburutegiak eta komunikabideek eta informazio-teknologiak emandakoa barne, informazio hori daukagun xedearen arabera erabiltzea eta gainerakoei komunikatzea, ahoz eta idatziz, ondo antolatuta eta erraz ulertzeko moduan.

3.4. Irakasleei eskatutako titulua

Heziketa Fisikoko irakasle izateko eskatzen den titulazioa Hezkuntza Ministerioak zehaztu zuen Irakasleek Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan eta Batxilergoan izan behar duten gutxieneko Titulazioak arautzen dituen 1995eko uztailaren 24ko Aginduaren bitartez. Zehazki, ondorengo titulazioa daukatenek izan ahaliko dute Heziketa Fisikoko irakasle:

- Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren Zientzietan, Heziketa Fisikoan, lizentziatuta daudenek.
- Unibertsitate mailako edozein lizentziatura izan eta aurreko puntuan zehaztutako tituluak lortzera bideratutako ziklo bat egina daukatela frogatzen dutenek.
- Medikuntzan lizentziatutakoek, Kirol Medikuntzako Espezialista diploma daukatela frogatzen badute.

Gainera, espezializazio didaktikoko edo pedagogikoko titulu profesionala eduki beharko dute (2009.10.1etik aurrera Unibertsitate Master titulu ofiziala).

4. Heziketa Fisikoa irakasgaiaren bitartez Lehen Hezkuntzan, DBHn eta Batxilergoan izandako kirol irakaskuntzei buruzko ondorioak

- Heziketa Fisikoa irakasgaira bideratutako irakastordu kopurua asteke bi ordukoa da hizkuntza-eredu eta hezkuntza-etapa guztietan, Lehen Hezkuntzan, DBHn eta Batxilergoan.
- Heziketa Fisikoa irakasgaiak eduki-bloketan egituratuta daude Lehen Hezkuntzan, DBHn eta Batxilergoan.
- Hiru hezkuntza-etapatan errepikatzen diren blokeak osasunari eta gorputz-adierazpideari eta adierazpide artistikoari lotutakoak dira. Zehazki, osasungarria eta bizitza osorako ongizate-iturri izango den jarduera fisiko motaren bat gauzatzea dute helburu. Halaber, gorputzaren eta mugimenduaren bidezko adierazpidea eta komunikazioa bultzatzen da, hau da, gorputz-hizkuntzaren erabilerara.
- Beste eduki-bloke bat ere errepikatzen da Lehen Hezkuntzan eta DBHn: "Jokoak eta kirolak". Jokoak eta kirol ekintzak gizakion motrizitatearen kultura-adierazpide gisa hartzeari lotutako edukiei egiten die aipamena. Jokoa estrategia metodologiko gisa erabiltzea azpimarratzen du, baita horien balio antropologikoa eta kulturala ere. Gainera, jokoak pertsonen arteko harremanak bultzatzen ditu eta zenbait balore sustatzen ditu, besteak beste, elkartasuna, lankidetzeta eta beste pertsonenikiko errespetua.
- Bi eduki-bloke errepikatzen dira DBHn eta

Batxilergoan: "Egoera fisikoa eta osasuna" eta "Kirol ekintzak inguru naturalean". Horien bitartez, gaitasun fisikoak, ohitura osasungarriak, bizi-kalitatea eta natura zaintzea, errespetatzea, ezagutzea eta elkarrekiko eragina garatu nahi dira.

Heziketa Fisikoa irakasgaiak ondorengo gaitasunak garatzearekin dauka lotura bi etapa horietan:

- Ezagutzari eta mundu fisikoarekiko elkarreraginari lotutako gaitasuna: jarduera fisikoa modu arduratsuan gauzatzeak oreka psikofisikoa lortzen laguntzen du, sedentarismotik eratorritako arriskuak prebenitzen laguntzen du eta aisialdia betetzeko aukera ematen du.
- Gizarte eta herritar mailako gaitasuna: Irakasgai honetako berezko jarduerak bide egokia osatzen dute integrazioa lortzeko, errespetua sustatzeko eta lankidetzeta, berdintasuna eta talde-lana bultzatzeko.
- Gaitasun kulturala eta artistikoa: Hezkuntza Fisikoa irakasgaiak ideiak edo sentimenduak sormenez adierazten laguntzen du. Bestalde, kirolak, joko tradizionalak, adierazpen-jarduerak eta dantza, besteak beste, herrien ondare dira eta kulturaren ulermena eta hedapena bultzatzen dute.
- Autonomia eta ekimen pertsonalaren gaitasuna: Hezkuntza Fisikoa irakasgaiak ikasleei erabakiak hartzeko deia egiten die eta, erabaki horien bitartez, norbere burua gainditzeko gaitasuna, iraunkortasuna eta jarrera positiboa adierazi behar izaten dituzte. Gainera, erantzukizunez eta zintotasunez jokatu behar izatea ekartzen die arauak aplikatzerako orduan eta taldearen barruan egoera fisikoari eta exekuzio motorrari lotuta egon daitezkeen mailak onartzeko gaitasunari dagokionez.
- Ezagutzaren bitartez ikasten ikasteko gaitasuna: Heziketa Fisikoa irakasgaiak ikasleei aukera ematen die irakaskuntza erregulatze eta aisialdian jarduera fisikoren bat modu antolatuan eta egituratuan gauzatzeko.
- Hizkuntza bidezko komunikaziorako gaitasuna: Irakasgai horrek komunikazio-elkartruke askotarikoak bultzatzen ditu, baita horiek bideratzen dituzten arauak eta arlo horrek dakarren hiztegi espezifiko ere.

Heziketa Fisikoa irakasgaiak dauden hezkuntza-etapetan daukzan helburuei dagokionez, ondorengo hauek errepikatzen dira:

- Kirol ekintza fisikoak modu erregularrean gauzatzeak osasun pertsonala eta soziala garatzeko eta bizi-kalitatea hobetzeko dakartzan onurak ezagutzea eta balioestea.
- Jarduera fisikoan parte hartzea proiektuak partekatuta, lankidetzeta-harremanak finkatuta helburu komunak lortzeko eta sor daitezkeen gatazkak elkarriketaren bidez eta printzipioak eta arauak barneratuz konponduta.
- Jarduera fisikoko eta osasuneko programa bat eratzea eta martxan jartzea, horretarako behar diren ezaugarri fisikoak areagotuta hasierako egoeraren ebaluazioarekin alderatuz, autonomia erakutsita eta norbere burua

rekiko exigentziari dagokionez erantzukizunezko jarrera izanda.

- Kirol ekintza fisikoak antolatzea eta horietan parte hartzea denbora libre eta aisialdia betetzeko, pertsonen arteko harreman egoiak gauzatzeko.
- Jarrera kritikoa izatea gorputzaren tratamenduari, jarduera fisikoari eta kirolari dagokionez gizartearen testuinguruan.
- Jarduera fisikoa eta erlaxatzeko teknikak modu autonomoan baliatzea ezagutza pertsonalerako bitarteko gisa eta eguneroko bizitzan sorturiko desorekak eta tentsioak murrizteko baliabide moduan.
- Liburutegia eta Informazio eta Komunikazio Teknologiak erabiltzen ikastea ikasteko eta ezagutzak partekatze baliabide gisa.

5. Kirola eskola adinean

5.1 Araudiari dagozkion aldeak

Kirol ekintza eskola adinean 15/2001 Nafarroako Kirol Legeak arautzen du Nafarroan. II. Kapituluaren definituta daude "Kirol ekintzak eskola adinean" eta "Eskolako Kirol ekintzak" kontzeptuak:

- Kirol ekintzak eskola adinean: eskola adinean diren haurrek eta gazteek eskola orduetatik kanpo gauzatzen duten kirol ekintza antolatu oro.
- Eskolako Kirol ekintzak: ikastetxeetan, nahiz publikoetan, nahiz pribatueta, Haur Hezkuntzan, Lehen Hezkuntza, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza, Batxilergo eta Lanbide Heziketa mailatan eskola orduetatik kanpo gauzatzen den oro.

Halaber, Legeak "Eskola adinean kirol ekintzak sustatzeko programak" aurreikusten ditu.

- Foru Erkidegoko Kirol administrazioak, Foru Erkidegoko Hezkuntza-administrazioarekin, toki erakundeekin, Nafarroako kirol-erakundeekin eta, kasuan-kasuan, bestelako erakunde pribatuarekin edo publikoekin batera, eskola adinean kirol ekintza sustatzeko programak gauzatzea bultzatuko du.
- Hezkuntza-administrazioak, kirol administrazioarekin, toki erakundeekin, ikastetxeekin, APYMASEkin eta bestelako erakunde pribatuarekin edo publikoekin batera, eskola adineko kirol ekintzak bultzatzeko programak sustatuko eta antolatuko ditu.
- Programak eskolako hezkuntza osoa, nortasunaren garapen harmonikoa, ezaugarri fisikoak eta prebentziozko osasun-ohiturak osatzera egongo dira bideratuta. Gainera, ikaskideak hezkuntza-behar bereziekin integratzea aurreikusiko eta sustatuko dute.
- Hezkuntza-administrazioa osasun arlokoarekin lankidetzan arituko da ikasleek kirol ekintzak gauzatzeko erabiltzen dituzten kirol jardueretarako eskaturiko baldintzak behar bezala bete daitezen.

5.2 Eskola adinean izaten diren kirol jardueren errealitatea Nafarroan

Nafarroan haurrek jasotzen duten kirol jardueren eskaintza gaur egun oso zabala dela esan daiteke, bai kopuruari, bai aniztasunari dagokionez.

Ikastetxeek, kirol klubek eta kiroldegiek, kirol federazioek eta Administrazioak berak, Nafarroako Kirolaren Institutuaren bitartez, kirol eskaintza interesgarria daukate, bai aisialdiari begira, baita lehiari begira ere. Bestalde, udalek eta kirol mankomunitateek txikienei zuzendutako irakaskuntza-eskaintza gauzatzen dute kirol eskolen eta aisialdirako txapelketen eta txapelketa ludikoen bitartez.

Alabaina, jarduera horietan izaten den parte-hartzea ez da maila berekoa. Oso handia da ikasleen zenbait segmentutan, gehien bat itunpeko ikastetxeekin edo Iruñeko edo Nafarroako udalerri handietako kirol anizteta klubekin lotuta. Parte-hartzea nahiko txikia da ikastetxe publikoei edo biztanleria handiko guneeetatik urrun dauden udalerriek dagokienez.

Halaber, biztanleria txikiko udalerrietan, parte-hartze txikia ez dator parte-hartzaileen edo instalazioen gabeziaren ondorioz, baliabide ekonomiko faltaren eta, batik bat, jarduera horiek antolatzen diharduten pertsonak falta izatearen eraginez baizik.

Lehen Hezkuntzako eta DBHko ikasleen %75k diote kirolen batean dihardutela. Alabaina, kirol gehiago egiten dute mutilek eta, bi generoetan, 12 urtetik aurrera murrizketa nabarmena izaten du kirola egiten dutenen kopuruak.

Nafarroako Kirol Jokoa

Programa hau errendimendu-hastapenerako ibilbidearen barruan koka daiteke eta 9 eta 18 urte arteko ikasle nafarrei zuzenduta dago. Ikasturtearen baitan gauzatzen da asteburuko norgehiagoken bitartez.

Administrazioak eskaintzen dituen eskola-kirol programa garrantzitsua da. Bertan, Nafarroako kirol federazioek (27 federaziok eta ordezkaritza batek) eta toki erakundeek hartzen dute parte eta 18.190 ikasleren parte-hartzea ahalbidetzen dute. Programaren helburua Nafarroako ikasle guztiek deitutako kategoria guztietan parte-hartzea da eta xede hezitzailea eta prestatzailea dauka. Gainera, indar txikiagoko edo izaera ludikoko kirol modalitateak ere sustatzen ditu eta etorkizunean oihartzuna izan dezaketen kirol talentuak antzematen laguntzen du.

Nabarmentzekoa da azken urtean neurri garrantzitsu bat ezarri zela: jardueraren ardura daukaten teknikariak prestatzeko plan berezia, horiek eskola-taldeak zuzentzera eta dinamizatzen bideratzeko.

Eskoletako Kirol Kanpainak

Kirol arloko parte-hartzearen ibilbidearen barnean daude. Inguru naturalean gauzatzen dira, ikasturtearen barnean, eskolako orduetan, eta, gutxi gorabehera, aste beteko iraupena izaten dute. 8.500 ikaslek hartzen dute parte. Horien helburuak ondorengoak dira: kirol minoritarioen hastapenak, eremu desberdinetako gazte nafarren arteko elkarkidetzak eta naturarekiko erres-

petua.

- Iraupen-eskiko eskola-kanpaina, Belagua eta Zaraitzu bailaretan.
- Naturan gauzatutako jardueren eskola-kanpaina, Baztan bailaran. Hainbat kirol minoritarioen hastapenak: piraguismoa, raftinga, arroila-jaitziera, hidrospeeda.
- Belako eskola-kanpaina, Allotz urtegian.
- Izotz gaineko irristaketako eskola-kanpaina, Uharteko izotz jauregian.

Kirola sustatzeko eskola-programa

Ikastetxeetan kirol ekintzak sustatzeko programa bat da. Aurrekoen osagarria da eta kirola egitearen heziketa-baloreak sustatzea du helburu.

Aisialdiko jarduera ludikoak egin daitezten sustatzea da programa honen xede nagusia, irakastorduetatik kanpo, heziketa eta aisialdi osagaiak nabarmenduta. Horrekin, aurreragoko adinetan kirola egiten jarraitzea erraztuko duen ohitura fisikoa sortzen da, bizimodu osasungarria garatzea lortzen da eta sedentarisismoa, haurren obesitatea eta antzeko fenomenoak ekiditen dira.

Ikastetxea da programa sostengatzen duen ardatza, programan parte hartzen duen ikastetxe bakoitzak eratzen baitu eta jartzen baitu martxan ikasturtean gauzatu beharreko jarduera fisikoen eta kirol jardueren berezko proiektua.

Programa honen I. urtean 14 ikastetxeek hartu dute parte guztira eta 50 kirol ekintza fisiko baino gehiago jarri dira martxan 2.000 ikasleren parte-hartzearekin. Aipatu beharra dago handia izan dela nesken parte-hartzea.

Haurren obesitatea prebenitzeko kanpaina

Haurren obesitatea prebenitzeko "Jolastu, Jan eta Jokatu Trankirekin" kanpaina 6 eta 12 urte arteko haurrei zuzenduta dago ikasturteak irauten duen bitarteko. Gaur egun 15 ikastetxetan gauzatzen da eta 825 haurrek hartzen dute parte bertan.

Haurrak eta euren familiak elikadura osasungarriaren eta ariketa fisikoen arloan heztean datza kanpainaren helburua, gurasoei zuzendutako heziketa-hitzaldien bitartez, neurketa antropometrikoen bitartez (pisua, neurria eta gantz-tolesdurak), ikastetxeetako menuen azterketaren bidez, jangelaz arduratzen diren langileen prestakuntzaren bitartez eta hezkuntza-materiala banatzearen bidez.

Kiroltasun Kanpaina

Nafarroako Kirolaren Institutuak "Kiroltasun Kanpaina" planteatu du kirol jardunari lotutako baloreak gauza daitezten bultzatzeko eta sustatzeko, pertsonaren garapen osorako funtsezko elementu gisa eta edozein kirol jardun gauzatzeko elementu espezifiko moduan.

Balore pertsonalak: ahalegina, norbere burua gaingintzea, autoestimua, autokontrola, diziplina, jarrera etikoa, erantzukizuna.

Gizarte mailako baloreak: talde-lana, integrazioa, elkartasuna, adiskidetasuna, lankidetzak, komuni-

kazioa, tolerantzia, berdintasuna, joko garbia, kontrakoekiko errespetua, ezarritako arauak errespetatzea.

Kirol baloreak lantzen dituzten ikastetxeek gauzatzen dituzten proiektuek Nafarroako Kirolaren Institutuaren errekonozimendua daukate. 11.000 ikasle inguruk hartzen dute parte programa honetan.

Beste programa batzuk

Aurretik aipatutako programez gain, ondorengo federazioek adingabeei zuzendutako jarduerak gauzatzen dituzte, eskola-adinean diren 400 bat kirolariren parte-hartzearekin: automobilismoa, espeleologia, golfa, halterofilia, kick boxinga, motoziklismoa, piraguismoa, arrauna eta arku-tiroa.

Nafarroako Igeriketa Federazioak, zenbait udalen laguntzarekin, nagusiki, Iruñekoarekin eta haren eskualdekoekin batera, Eskolako Igeriketa Kanpaina antolatzen du Lehen Hezkuntzako 2. eta 3. mailako ikasleei zuzenduta. Ikasleek uretan moldatzeko oinarritzko maila izatea eta igeriketako modalitateetarako hastapena (igeriketa, waterpolo, igeriketa sinkronizatua) dira horren helburu nagusiak. Azken kanpainan 3.000 bat ikaslek hartu dute parte.

Halaber, Nafarroako Futbol Federazioak benjamin mailako aretoko futbol txapelketak, 66 talderen parte-hartzearekin, eta 10-11 urteko mutilentzat futbol txapelketak antolatzen ditu, azken horretan, 68 talderen parte-hartzearekin.

Futbito Txiki txapelketan, 6 eta 11 urte bitarteko haurrei zuzendutakoan, arau bereziak aplikatzen dira parte-hartzea eta entretenimendua bultzatzeko arerioen arteko norgehiagokaren eta lehia-aren gainetik. 257 taldek hartzen dute parte bertan.

Osasuna Fundazioak campusa antolatzen du Aste Santurako eta udarako eta Futbol-eskola, berriz, 6 eta 12 urte arteko mutikoei eta nesketoei zuzenduta.

Txapelketek dagokienez, Eskolen arteko Txapelketak futbolaren jarraipen kontrastatua egitea ahalbidetzen du. Bertan, Nafarroa osoko 62 taldek hartzen dute parte.

6. Ondorioak eta proposamenak:

1. Jarduera fisikorako eta kirolerako prestakuntzak goiz hasi beharra dauka, derrigorrezko eskolatzeko garaian. Halaber, pertsonaren heziketa osoaren osagai gisa hartu beharra dago eta bizitza osasungarriarako eta kirol jardunerako ohiturak barneratzen laguntzen du.
2. Kirolak hezkuntza mailako testuinguru egokia ematen du pertsonen heziketarako oso garrantzitsuak diren banako eta gizarte mailako baloreak barneratzeko: ahalegina, norbere burua gaingintzea, autoestimua, autokontrola, diziplina, jarrera etikoa, erantzukizuna, talde-lana, integrazioa, elkartasuna, adiskidetasuna, lankidetzak, tolerantzia, errespetua, berdintasuna... Beraz, eskola-adinean kirola irakasteak eta egiteak, bai eskolaren baitan, baita eskolatik kanpo ere, balore horiek bar-

- nera daitezen sustatu behar du eta lehentasuna eman behar die kirolaren alde hezitzaileari eta jolasari, lehiari lotutako elementuen gainetik. Eskolaz gain, familiek eta kirol ekintzak antolatzen dituzten erakundeek eskola-adinean kirola egiteari buruzko ikuspegi horri heldu behar diote.
- Eskaintza handia dago ikasleei zuzendutako jarduera fisikoen eta kirol jardueren programei dagokienez. Alabaina, zenbait arrazoi direla medio, Nafarroako ikasle guztiek ez daukate horiek egiteko aukera bera. Programa horiek antolatzen dituzten erakunde publikoek eta pribatuek kontuan hartu behar dituzte kirolerako sarbidea eragotzen duten egoerak eta horiek konpentsatzen ahalegindu behar dute. Zehazki, gomendagarria izango
 - litzateke ezintasun-egoerei, baliabide ekonomikoan faltari, dinamizazioan diharduten pertsonen gabeziari eta kirol instalakuntzen erabileraren eskuragarritasun ezari lotutakoak konpentsatzera zuzendutako neurriak hartzea.
 - Beharrezkoa da aztertzea 12 urtetik aurrerako Nafarroako ikasleek kirola egiteari zergatik uzten dioten eta neskek zergatik daukaten kirolarekiko interes txikiagoa.
 - Ikastetxeak izan behar du eskolan kirola sustatzeko programen ardatza, betiere, bertako hezkuntza-proiektuarekiko koherentzia mantenduta.
 - Eskola-adineko kirolean prestakuntza-profil eta kirol esperientzia anitzeko pertsonen
 - hartzten dute parte entrenatzaile edo monitore gisa. Beharrezkoa da eskola-kirolean barnertzea pertsona horiek euren zereginetarako daukaten prestakuntza hobetzera bideraturiko planak, bai entrenamenduari lotutakoak hobetzeko, baita animaziora eta eskola-taldeak zuzentzeari lotutakoak hobetzeko ere. Prestakuntza mota hori beharrezkoa da, bereziki, monitore nerabeen kasuan.
 - Gomendagarria litzateke eskola adineko ikasleei zuzendutako jarduera fisikoko eta kirol ekintzetako programei lotuta dagoen araudia- ren zenbait alde garatzea eta zenbait gai zehaztea, esaterako, izan beharreko ezaugarriak, jardueren tipologia, mediku-zainketa, segurtasuna edo teknikarien prestakuntza.

Bigarren Zatia: Kirol teknikarien prestakuntzarako irakaskuntzak

Hezkuntza sistemak bi bide aurreikusten ditu kirol teknikarien prestakuntzarako: Lanbide Heziketa, ‘Kirol ekintza fisikoak’ lanbide-arloa eta Araubide bereziko kirol irakaskuntzak.

1.- Kirol irakaskuntzak Lanbide Heziketan: ‘Kirol ekintza fisikoak’ lanbide-arloa

Lanbide Heziketak ondorengo definizioa dauka hezkuntza sisteman: ikaslea zenbait lanbide modu kualifikatuan gauzatzea eta enplegurako sarbiderako, autonomia eta garapen pertsonalerako eta ezagutzan eta etengabeko ikaskuntzan oinarrituriko gizarte honen aldaketetara egokitzeko prestatzen duen irakaskuntza blokea da eta gizarte, kultura eta ekonomia mailako bizitzan parte-hartze aktiboa izatea ahalbidetzen du.

Hezkuntza sisteman dauden Lanbide Heziketako tituluak ondorengoak dira: teknikaria eta goi teknikaria. 26 lanbide-arlotan banatuta dago Lanbide Heziketa eta horien artean dago ‘Kirol ekintza fisikoak’ familia. Teknikari eta goi teknikari tituluak lortzera bideraturiko irakaskuntzak erdi mailako eta goi mailako heziketa-ziklotan antolatuta daude, hurrenez hurren. Erdi mailako lanbide heziketako irakaskuntzak derrigorrezko hezkuntzaren osteko bigarren hezkuntzaren barnean daude eta goi mailako lanbide heziketakoak, berriz, goi mailako heziketaren barnean.

‘Kirol ekintza fisikoak’ lanbide-arloaren barnean, ondorengoak daude:

- “Natur Ingurunean Kirol Ekintza Fisikoak Bideratzeko Erdi Mailako Zikloa” eta
- “Animazio Soziokulturaleko Goi Mailako Zikloa”.

Gaur egun, Lanbide Heziketako irakaskuntzak trantsizio-fasean daude Kualifikazioei eta Lanbide Heziketari buruzko 2002ko ekainaren 19ko 5/2002 Lege Organikoan eta 2006ko maiatzaren 3ko Hezkuntzari buruzko Lege Organikoan aurreikusitakoaren arabera. Fase horrek ezarrita dauden titulazioetan oinarritutako titulazio berriak eratzea ekarriko du, baita antzemandako eta horretarako argitaratutako lanbide-kualifikazio berrietatik abiatuta ere.

1.1. ‘Kirol ekintza fisikoak’ lanbide-arloaren zikloak. Horien ezarpena Nafarroan.

Gaur egun, Lanbide Heziketako ondorengo tituluak daude ezarrita ‘Kirol ekintza fisikoak’ lanbide-arloaren barruan:

‘Natur Ingurunean Kirol Ekintza Fisikoak Bideratzeko Erdi Mailako Zikloa’ Nafarroako hiru ikastetxetan ematen da:

- Lekaroz – Elizondo BHI.
- Sierra de Leyre BHI, Irunberrin.
- ETI Ikastegi Bateratu Politeknikoan, Tuteran.

“Animazio Soziokulturaleko Goi Mailako Heziketa-zikloa” ikastetxe batean ematen da Nafarroan: Sierra de Leyre BHI, Irunberrin.

Animazio Soziokulturaleko Goi Mailako Teknikaria	2048/1995 E.D.	273/2004 F.D.
Animatzeko jokoak eta jolas-ekintza fisikoak	65 ordu	66 ordu
Kirol ekintza fisiko indibidualak	130 ordu	165 ordu
Taldeko kirol ekintza fisikoak	160 ordu	165 ordu
Tresna bidezko kirol ekintza fisikoak	100 ordu	132 ordu
Egokitze fisikoaren oinarri biologikoak eta hastapenak	115 ordu	1329 ordu
Astaldiko eta gizarte-heziketako enpresa txikien antolamendua eta kudeaketa	65 ordu	66 ordu
Lehen laguntzak eta uretako sorospena	65 ordu	99 ordu
Taldean dinamika eta animazioa	60 ordu	66 ordu
Kirol ekintzen fisikoen metodologia didaktiko	65 ordu	66 ordu
Pertsona desgaituentzako jarduera fisikoak	30 ordu	66 ordu
Lanerako Prestakuntza eta Orientabidea	35 ordu	44 ordu
Lantokiko Prestakuntza	210 ordu	350 ordu
Berezkoa 1		264 ordu
Berezkoa 2		286 ordu

Natur Ingurunean Kirol Ekintza Fisikoak Bideratzeko teknikaria	2049/1995 E.D.	111/1998 F.D.
Lurreko ibilaldiak, egonaldiak eta segurtasuna	135 ordu	192 ordu
Txirrindulari-taldeak gidatzea	85 ordu	128 ordu
Zaldizkoen taldeak gidatzea eta zaldien oinarriko zaintza	125 ordu	160 ordu
Enpresa txikien administrazioa, kudeaketa eta merkaturatzea	50 ordu	96 ordu
Oinarri biologikoak, osasuna eta lehen laguntzak	60 ordu	96 ordu
Pertsona desgaituentzako jarduera fisikoak	30 ordu	64 ordu
Talde-dinamika	45 ordu	64 ordu
Lanerako Prestakuntza eta Orientabidea	30 ordu	64 ordu
Lantokiko Prestakuntza	210 ordu	440 ordu
Berezkoa:		96 ordu

1.2. Irakaskuntzen Antolamendua eta Egitura

Teknikari eta goi teknikari tituluak lortzera bideraturiko irakaskuntzak erdi mailako eta goi mailako heziketa-ziklotan antolatuta daude, hurrenez hurren, eta horiek, era berean, iraupen aldagarria daukaten lanbide-modulutan daude antolatuta.

Teknikari eta goi teknikari titulua lortzeko, beharrezkoa da heziketa-zikloa osatzen duten lanbide-modulu guztietan ebaluazio positiboa izatea.

Nafarroan 'Kirol ekintza fisikoak' lanbide-arloaren baitan dauden zikloen curriculumak gutxieneko irakaskuntzak ezartzen dituzten horiei buruzko errege dekretuek eta Foru Erkidegoaren baitan curriculumak ezartzen duten foru dekretuek arautzen dute.

1.3. Sartzeko baldintzak

Erdi mailako ziklora sartzeko, beharrezkoa da Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako graduatu titulua edukitzea. Halaber, baldintza akademiko hori eduki gabe ere sartu ahal izango dute 17 urte beteta dauzkatenek, erdi mailako heziketa-zikloetara sartzeko proba gaindituz gero.

Goi mailako ziklora sartzeko, beharrezkoa da Batxilergoko titulua edukitzea. Halaber, Batxilergoko titulua ez izanda ere sar daiteke, betiere, 19 urte izanez gero eta 18 urte izanda eta horri lotutako titulu bat edukita, eta goi mailako heziketa-zikloetara sartzeko proba gaindituz gero.

Unibertsitatera sartzeko 25 urtetik gorakoentzako proba gaindituta daukatenez ez dute heziketa-zikloetara sartzeko proba egin beharrik izango.

1.4. Irakaskuntzen iraupena

Irakaskuntzen iraupena 1.400 ordukoa da Natur Ingurunean Kirol Ekintza Fisikoak Bideratzeko teknikari titulua lortzeko eta 2.000 ordukoa, berriz, Animazio Soziokulturaleko Goi Mailako teknikari titulua lortzeko.

1.5. Titulazioak

'Kirol ekintza fisikoak' lanbide-arloko erdi mailako zikloa gaindituta, **Natur Ingurunean Kirol Ekintza Fisikoak Bideratzeko teknikari** titulua lortzen da.

'Kirol ekintza fisikoak' lanbide-arloko goi mailako zikloa gaindituta, **Animazio Soziokulturaleko Goi Mailako teknikari** titulua lortzen da.

1.6. Zikloak amaitzean dauden aukerak

Natur Ingurunean Kirol Ekintza Fisikoak Bideratzeko teknikari tituluak aukera ematen du Batxilergoko edozein modalitatara sartzeko edo goi mailako zikloetara sartzeko probetarako Prestakuntza-ikastaroa egiteko.

Lan-aukerek turismoarekin eta aisialdiarekin daukate lotura eta inguru naturalean gauzatzen diren jolas- eta kirol ekintzak gauzatu nahi dituzten bezero partikularrei edo taldeei laguntzeko zerbitzuak eskaintzen dituzte titulu hori daukatenez: lurrian, oro har, behe mailako eta goi mailako mendian...

Ondorengo enpresa motatan gauza ditzakete euren lanak titulazio hori daukatenez, bai esparru pribatuan, baita maila publikoan ere:

- Abentura-ekintzetako enpresak.
- Turismo-enpresak: hotelak, kanpinak, ostatuak edo udaleku-egoitzak, aterpetxeak.
- Bidaia-agentziak.
- Parke naturalak edo eremu babestuak kudeatzen dituzten enpresak.
- Klubak edo kirol elkarteak.
- Ikastetxeak (curriculumetik kanpoko ekintzetan).
- Denbora-dititiki kanpo eskaintza osagarria daukaten eski-estazioak.
- Inguru naturalean ekintza-programak eskaintzen dituzten erakunde publikoak.

Animazio Soziokulturaleko Goi Mailako teknikari tituluak unibertsitate mailako ikasketetarako sarbidea ahalbidetzen du.

Lanerako aukerak lotura zuzena daukate 'Kirol ekintza fisikoak' lanbide-arloaren esparruarekin eta kirol ekintza fisikoak gauzatzeko programaziko, animazio eta taldeen edo erabiltzaileen zuzendaritzako zerbitzuak ematen dituzte titulu hori daukatenez.

Ondorengo enpresa motatan gauza ditzakete euren lanak titulazio hori daukatenez, bai esparru pribatuan, bai maila publikoan ere:

- Kirol zerbitzuetako enpresak.
- Kirol patronatuak edo udaletako kirol erakundeak.
- Klubak edo kirol elkarteak.
- Izaera sozialeko klubak edo elkarteak.
- Turismo-enpresak: hotelak, kanpinak, bainutxeak...
- Langileei kirol zerbitzuak eskaintzen dizkieten enpresa handiak.
- Abentura-ekintzetako turismo-enpresak.
- Inguru naturalean kirol ekintza programak eskaintzen dituzten erakunde publikoak.
- Parke naturalak edo eremu babestuak kudeatzeko enpresak.
- Kirol federazioak.
- Kirol erakunde publikoak (aldundiak, kirol zuzendaritza nagusiak, eta abar).

1.7. Kirol teknikarien bloke komunarekin dauden baliozkotzeak

1997ko abenduaren 19ko 1913/1997 Errege Dekretuaren babesean ezarritako kirol irakaskuntzen garapen-arauen iraualdiari buruzko 2007ko urriaren 24ko 1363/2007 Errege Dekretuaren hirugarren Xedapen iragankorrak zehaztutakoaren arabera, ordezkatzeko dituzten beste arau batzuk argitaratu ezean eta 2007ko urriaren 24ko 1363/2007 Errege Dekretuan aurreikusitakoaren kontrakoak ez badira, indarrean jarraituko dute 2004ko irailaren 21eko ECI/3224/2004 Aginduak, irakaskuntza ofizialen eta kirol teknikari irakaskuntzen arteko baliokotze jakin batzuk eragin akademikoetarako ezartzeari buruzkoak, eta hori aldatzen duten 2004ko urriaren 8ko ECI/3341/2004 Aginduak eta 2005eko azaroaren 18ko ECI/3830/2005 Aginduak.

Agindu horiek zehazten dituzte kirol teknikarien irakaskuntzetan, eragin akademikoetarako, kirol ekintza fisikoari lotutako Lanbide Heziketako ikasketa ofizialak gaindituta dauzkatala frogatzen dutenei aplikatu beharreko baliozkotzeak.

Beraz, Natur Ingurunean Kirol Ekintza Fisikoak Bideratzeko teknikari titulua lortzen duenak araubide bereziko kirol irakaskuntzetako ondorengo moduluak izango ditu baliozkotuta:

Gorputz eta Kirol Ekintzen Animazioko Goi Mailako teknikari titulua lortzen duenak Araubide bereziko kirol irakaskuntzetako ondorengo moduluak izango ditu baliozkotuta.

1.8. Kualifikazioei eta Lanbide Heziketari buruzko 2002ko ekainaren 19ko 5/2002 Lege Organikotik eta Hezkuntzari buruzko 2006ko maiatzaren 3ko 2/2006 Lege Organikotik eratorritako trantsizioa.

Gaur egun, 'Kirol ekintza fisikoak' lanbide-arloko curriculumak Kualifikazioei eta Lanbide Heziketari buruzko 2002ko ekainaren 19ko 5/2002 Lege Organikotik eta Hezkuntzari buruzko 2006ko maiatzaren 3ko 2/2006 Lege Organikotik eratorritako trantsizio-fasean daude. Bi lege horiek gida gisa har daitezke lanbide-arlo honetako titulazio berriak eratzeko, lehendik dauden eta antzemandako lanbide-kualifikazio berrietan oinarrituta.

Kualifikazioen eta Lanbide Heziketaren Sistema Nazionala Lanbide-kualifikazioen Katalogo Nazionalaren bitartez lanbide heziketako eskaintzen integrazioa sustatzen eta garatzen duten tresnen eta ekintzen blokea.

Lanbide-kualifikazioen Katalogo Nazionalak ekoizpen sisteman identifikatutako lanbide-kualifikazioak lanbide-egikaritzapenerako egoiak diren gaitasunen arabera antolatzen ditu. Espainiako ekoizpen sistemako lanbide-kualifikazio garrantzitsuenak hartzen ditu barnean, lanbide-arlotan eta mailatan antolatuta.

26 lanbide-arlo definitu dira, antzemandako okupazioen eta lan-postuen lanbide-lehiaren bateragarritasun-irizpideak kontuan hartuta eta bost kualifikazio maila ere definitu dira, lan-jarduera hori gauzatzeko beharrezkoa den eza-gutza mailaren, ekimenaren, autonomiaren eta erantzukizunaren arabera.

Ondorengo hauek dira bost kualifikazio mailen ezaugarriak:

1. maila: Jarduera soilen bloke murriz baten mailako gaitasuna. Ezagutza eta ahalmen muga-tuak.

2. maila: Autonomiaz egikaritu daitezkeen jardueren mailako gaitasuna. Tresnak eta berezko teknikak erabiltzeko gaitasuna. Prozesuaren eta jardueren oinarri teknikoak eta zientifikoak ulertzea.

3. maila: Teknikak menderatzea eskatzen duten eta autonomiaz egikaritzen diren jardueren mailako gaitasuna. Lan teknikoaren eta espezializatuaren gainbegiraketari dagokion erantzukizuna. Prozesuaren eta jardueren oinarri teknikoak eta zientifikoak ulertzea.

4. maila: Jarduera konplexuen bloke zabal baten mailako gaitasuna. Testuinguruaren aniztasuna eta aldagai teknikoak, zientifikoak, ekonomikoak eta antolakuntzaren mailakoak. Lan-gainbegiraketaren eta baliabideen esleipenaren gaineko erantzukizuna. Berritzeko gaitasuna ekintzei buruzko plangintza egiteko eta proiektuak, prozesuak, produktuak edo zerbitzuak gauzatzeko.

Natur Ingurunean Kirol Ekintza Fisikoak Bideratzeko teknikaria	Kirol teknikaria
Oinarri biologikoak, osasuna eta lehen laguntzak	Ondorengo moduluetakoko bakoitzarekin: - Kirolaren oinarri anatomikoak eta fisiologikoak, I eta II. maila. - Lehen laguntzak eta higieña kirolean, I. maila
Animazio Soziokulturaleko Goi Mailako teknikaria	Araubide bereziko kirol irakaskuntzak
Egokitze fisikoaren oinarri biologikoak eta hastapenak.	Ondorengo moduluetakoko bakoitzarekin: - Kirolaren oinarri anatomikoak eta fisiologikoak, I eta II. maila. - Kirol entrenamendua, I. eta II. maila.
Lehen laguntzak eta uretako sorospena.	Lehen laguntzak eta higieña kirolean, I. maila
Ondorengo 2 moduluak batera: - Taldearen dinamika eta animazioa - Kirol ekintza fisikoaren metodologia didaktikoa.	Ondorengo moduluetakoko bakoitzarekin: Kirol irakaskuntzaren eta entrenamenduaren oinarri psikopedagogikoak, I eta II. maila.

5. maila: Autonomia handiz egikaritutako jardura oso konplexuen bloke zabal baten gainera gaitasuna. Sarritan aurreikusi ezin diren testuinguru aniztasuna. Ekintzei buruzko plangintza eta produktuen, prozesuen edo zerbitzuen diseinua. Zuzendaritzaren eta kudeaketaren gainera erantzukizuna.

26 lanbide-arloen artean dago ‘Kirol ekintza fisikoak’ lanbide-arloa eta, horretarako, ondorengo lanbide-kualifikazioak deskribatu dira:

2. mailako Lanbide-kualifikazioak

- Lehen laguntzak eta uretako sorospena
- Behe eta goi mailako mendiko ibilbideetako gida
- Bizikleta gaineko ibilbideetako gida
- Ur-amiletako gida
- Arroila lehorretako edo ur-arroilatako gida
- Inguru naturaletako zaldi gainera ibilbideetako gida
- Ur-espazio naturaletako sorospena

3. mailako Lanbide-kualifikazioak

- Egokitzapen fisikoaren erabilera anitzeko entrenamendu-aretoetan
- Egokitzapen fisikoaren taldean, musika-euskarriarekin
- Igeriketako ekintzak
- Kirol jarduerari eta dibertimenduari lotutako animazioa (argitaratzeko)
- Uretako fitnessa eta hidrokinesia (argitaratzeko)

Berri horietan eta zehatz daitezkeen beste batzuetan oinarrituta, ‘Kirol ekintza fisikoak’ lanbide-arloko egungo curriculumak berrikusteko prozesua ari da gauzatzen eta titulazio berriak ere eratzen ari dira.

2. Araubide bereziko kirol irakaskuntzak

Derrigorrezko hezkuntzaren osteko ikasketak dira eta araubide berezia daukate. Horien helburua zenbait kirol modalitateetako edo espezialitateetako kirol teknikarien prestakuntza profesionala da eta prestakuntza zientifikoa, teknikoak eta praktikoa aurreikusten dute. Gainera, horien eskaintza malguago bihurtu daiteke ikasketak kirol mailako, lan-arloko edo bestelako ekintzeekin bateragarritasuna lortzeko, bereziki, pertsona helduentzat eta errendimendu handiko kirolarientzat. Horretarako, osorik edo modu partzialan eskaini daiteke, blokeen edo moduluen arabera, bertaratu beharreko erregimenean edo urrutiko ikasketa gisa.

2.1. Modalitateak eta espezialitateak.

Gaur egun tituluak ezarrita eta dagozkien irakaskuntzak zehaztuta daude ondorengo modalitateetan eta espezialitateetan:

Gainera, ondorengo tituluak eratzekeo prozesuan dira:

- Bela eta hipika: Hezkuntza Ministerioak bideratzeko zain.
- Judoa eta defentsa pertsonala: kontsultako izapidean.
- Urpekaritza, Salbamendua eta Sorospena: amaitzeko fasean.
- Esgrima, Tenisa eta Golfa: aditu-talde batek eratzekeo prozesuan.
- Piraguismoa, Taekwondo, Errugbia, Karatea eta Tiro Olinpikoa: dagozkien irakaskuntzen antolamenduan sartu dira.

2.2. Irakaskuntzen Antolamendua eta Egitura

Titulu ofizialak lortzeko bideraturiko irakaskuntzek bi gradu dituzte:

Goi Mailako kirol teknikari titulua lortzeko, kirol modalitate edo, kasuakasu, espezialitate batean, goi mailako graduoko moduluak dagozkien irakaskuntzak eginak izateaz gain, amaierako proiektua gainditu beharra dago.

Gradu bakoitzeko irakaskuntzak blokeen edo moduluen arabera antolatuta daude:

- Bloke Komuna: Kirol modalitate eta espezialitate guztietarako berdina eta derrigorrezkoa da. Maila zientifiko eta tekniko orokorreko zeharkako moduluz osatuta dago.
- Bloke espezifikoak: Tituluan zehaztutako kirol modalitate eta espezialitate bakoitzarekin lotura daukaten maila zientifikoko eta teknikoko kirol prestakuntzako moduluak hartzen ditu barnean.
- Modulu osagarria, baliabide teknologikoak erabiltzeko bideratutakoa.
- Prestakuntza praktikoko moduluak: maila edo gradu bakoitzean aurretik daudenak gainditu ostean egingo da.

Irakaskuntza horien funtsezko ezaugarri bat sarbide-proba espezifiko bat eskatzen datza. Proba horretan, kirol modalitatea edo espezialitatea menderatzeko maila nahikoa erakutsi beharra dago irakaskuntzeekin aprobetxamenduz eta segurtasunez jarraitu ahal izateko.

Irakaskuntza horiei dagozkien ikasketak dagokion erkidegoak baimendutako ikastetxe publikoetan eta pribatuetan egin daitezke.

2.3. Sartzeko baldintzak

Irakaskuntza horien erdi mailako graduaren sartzeko, beharrezkoa da Bigarren Hezkuntzako graduatu titulua edo akademikoki horren parekoa den bat edukitzea eta proba espezifiko bat gainditzea. Halaber, betekizun akademiko hori izan gabe ere sar daiteke, betiere, 18 urte beteak izanik, proba espezifikoaren aurretik heldutasun-proba bat gaindituz gero.

Goi mailako graduaren sartzeko, beharrezkoa da dagokion modalitateko edo espezialitateko kirol teknikari titulua izatea, Batxilergoko titulua edo akademikoki horren parekoa dena izatea eta, dagokien modalitateetan eta espezialitateetan proba espezifiko bat gainditzea. Batxilergoko titulua ez edukita ere sar daiteke, betiere, 20 urte beteak izanik eta dagokion heldutasun-proba gaindituz gero.

Sartzeko baldintza espezifikoak:

Betekizun orokorreaz gain, kirol irakaskuntzako zikloaren batean sartzeko, proba espezifiko bat gainditzea edo kirol meritua frogatzea eskatu ahal izango da.

Proba espezifiko bat gainditzeak edo proba hori ez egin behar izateko kirol meritua frogatzeak bermatuko ditu, hori lotutako moduluarekin batera, eskatutako kirol gaitasunak eta, kasuakasu, dagozkien Lanbide-kualifikazioen Katalago Nazionalako gaitasun-unitateak.

Betekizun espezifikoak lurralde nazional osoan izango dira baliagarriak.

Goi mailako edo errendimendu handiko kirolariek ez dituzte betekizun espezifikoak bete beharko dagokien modalitatean edo espezialitatean.

2.4. Irakaskuntzen iraupena

Erdi mailako graduoko irakaskuntzen iraupena, modalitatearen edo espezialitatearen arabera, 950 ordu eta 1.100 ordu artekoa izango da (gehieneko eta gutxienezko ordu kopurua) bi mailatan banatuta eta goi mailako graduaren iraupena, berriz 750 ordu eta 1.100 ordu artekoa izango da (gehieneko eta gutxienezko ordu kopurua) maila bakarrean.

2.5. Titulazioak

Erdi mailako graduaren hasierako zikloa gairatzen duten ikasleek ziurtagiri akademiko ofiziala lortuko dute eta, ziurtagiri horrekin, kirol modalitate edo espezialitate bereko erdi mailako graduaren azken zikloan ikasten jarraitu ahal izango du eta Lanbide-kualifikazioen Katalogo Nazionalari lotuta lortutako lanbide-gaitasunak bermatuko ditu.

Erdi mailako gradua gairatzen dutenek **kirol teknikari** titulua lortuko dute dagokion modalitatean edo espezialitatean.

Goi mailako gradua gairatzen dutenek **goi mailako kirol teknikari** titulua lortuko dute dagokion modalitatean edo espezialitatean.

Titulu horiek Lanbide Heziketako erdi mailako eta goi mailako graduetakoen parekoak dira eragin guztietarako.

2.6. Zikloaren aukerak

2.6.1. Erdi maila amaitzean dauden aukerak

Kirol teknikari tituluak batxilergoko edozein modalitateko sarbidea ahalbidetuko du, edozein izanik ere kirol irakaskuntzetara sartzeko baldintza akademikoa.

Lan-aukerek titulu bakoitzaren lanbide-esparruarekin daukate lotura. Orokorrean hitz eginda, kirol teknikariak arlo publikoan zein pribatuan gauza ditzake bere funtzioak:

- Kirol hastapenetarako eskolak eta ikaste-

txeak.

- Klubak edo kirol elkarteak.
- Kirol federazioak.
- Kirol patronatuak edo kirol zerbitzu publikoak.
- Kirol zerbitzuetako enpresak.
- Ikastetxeak (eskolaz kanpoko ekintzetan).

2.6.2. Goi maila amaitzean dauden aukerak

Dauden kirol modalitate eta espezialitateetako goi mailako kirol teknikari tituluak, orain arte argitaratutakoek, ondorengo unibertsitate-ikasketeterako sarbidea ahalbidetzen dute:

- Irakaslea (espezialitate guztietarako).
- Gizarte-hezkuntzan diplomaduna.
- Erizaintzan diplomaduna.
- Turismo enpresetan eta jardueretan diplomaduna.
- Fisioterapien diplomaduna.
- Terapia Okupazionalen diplomaduna.
- Gizarte-lanean diplomaduna.
- Turismoan diplomaduna.
- Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren Zientzietan lizentziaduna.

Lan-aukerek titulu bakoitzaren lanbide-esparruarekin dauka lotura. Orokorrean hitz eginda, kirol teknikariak arlo publikoan zein pribatuan gauza ditzake bere funtzioak:

• Modalitate edo espezialitate bakoitzeko errendimendu handiko ikastetxeetan.

• Modalitate edo espezialitate bakoitzeko kirol teknifikazioen ikastetxeetan.

• Modalitate edo espezialitate bakoitzeko eskoletan.

• Klubetan edo kirol elkarteetan.

• Modalitate bakoitzeko kirol federazioetan.

• Kirol patronatuak.

• Kirol zerbitzuetako enpresetan.

• Dagokion modalitate edo espezialitateko kirol teknikariak prestatzeko ikastetxe publikoetan edo pribatuak.

2.7. Kirol irakaskuntzen ezarpen-prozesua. Kirolari buruzko Legetik eta LOGSEtik Hezkuntzaren Lege Organikora arte (HLO).

Kirolaren Legea eta LOGSE 1990. urtean onetsi ziren arte, Espainian, kirol irakas-

kuntzak federazio nazionalak ematen zituzten Kirol Batzorde Gorenak gainbegiratuta. Bi hamar-kada hauetan, kirol irakaskuntzek eta euren titulazioek aldaketa handia izan dute Espainian eta hainbat arau eratu dira horiek arautzeko.

Hezkuntza mailako kirol irakaskuntzak arautzeko lehen urratsa Kirolari buruzko 1990eko urriaren 15eko 10/1990 Legearekin egin zen. Lege horren VII. Tituluaren, Kirol ikerketa eta irakaskuntza izenekoaren, 55. artikuluan, ondorengo dago adierazita:

1. *Gobernuak, Hezkuntza eta Kultura Ministeriaren proposamenari jarraiki, kirol teknikarien irakaskuntzak arautuko ditu, dauden hezkuntza-mailek dauzkaten eskakizunen arabera, baita zehaztuko diren sartzeko baldintzak, programak, ildoak eta ikasketaplanak ere.*
2. *Kirol teknikarien prestakuntza Estatuak edo, kasuan-kasuan, hezkuntza arloko eskumenak dauzkaten erkidego autonomoek baimendutako ikastetxeetan gauzatu ahal izango da, baita irakaskuntza militarreko sistemako ikastetxeetan ere, Hezkuntza eta Kultura Ministerioaren eta Defentsa Ministerioaren artean egindako hitzarmenen arabera.*
3. *Kirol teknikari tituluak egiteko baldintzak Hezkuntza eta Kultura Ministerioak zehaztuko ditu.*
4. *Artikulu honetan adierazitako irakaskuntzak lurralde nazional osoan izango dira baliagarriak eta eragingarriak.*

Jarduera teknikoak gauzatzeko titulazio-baldintzak ezartzen dituzten kirol federazio espainiarrek, txapelketa ofizialekin parte hartzen duten klubei dagokienez, lege baimendutako ikastetxeek egindako tituluak onartu beharko dituzte.

Hurrengo pausoa 1994ko apirilaren 8ko 594/1994 Errege Dekretuarekin eman zen, kirol teknikarien irakaskuntzak, hau da, kirol modalitate edo espezialitate jakinetan hasteko, perfektionatzeko eta entrenatzeko funtzioak gauzatzen dituztenenak, zentzu hertsian arautu zituen Errege Dekretuarekin. Alabaina, Errege Dekretu hori irakaskuntza horiek LOGSEren esparruan barneratzera mugatu zen. Horren ondorioz, indargabetu egin zuten eta 1997ko abenduaren 19ko 1913/1997 Errege Dekretuak ordezkatu zuen hura, kirol teknikari titulua lortzera bideratutako irakaskuntzak araubide bereziko irakaskuntza gisa eratu zituenak, alegia. Horren ondorioz, aldaketa garrantzitsua egin zen, Hezkuntza Ministerioak maila bakarra eman baitzuen kirol irakaskuntzei, arteari, dantzari eta hizkuntzari lotutako irakaskuntzetan bezala.

2.7.1. Behin-behineko aldia

1913/1997 EDren lehen xedapen iragankorrak zehazturikoa araberak, Araubide bereziko kirol irakaskuntzak ezartzen diren arte, kirol modalitate edo espezialitate bakoitzean, autonomia erkidegoen kirol arloko organo eskudunek emandako prestakuntzek edo, kasuan-kasuan, kirol prestakuntzaren arloan eskudunak direnek eta kirol federazioek emandakoek errekonozimendua izan dezakete aipatu berri dugun EDren 18.2 artikuluan aurreikusitako kirol prestakuntzari dagokion bateragarritasunaren eraginetarako.

Kirol Modalitatea	Onespen-Dekretua	Erdi Mailako Gradua	Goi Mailako Gradua
		Ondorengoetan Espezializatutako Kirol Teknikaria:	Ondorengoetan Espezializatutako Goi Mailako Kirol Teknikaria:
Mendia eta Eskalada	318/2000 ED	Goi-mendia Amildegia Eskalada Media Mendia	Goi-mendia Eskalada Mendiko eskia
Neguko kirolak	319/2000 ED	Eski alpetarra Iraupen-eskia Snowboarda	Eski alpetarra Iraupen-eskia Snowboarda
Futbola eta Areto-futbola	320/2000 ED	Futbola Areto-futbola	Futbola Areto-futbola
Atletismoa	254/2004 ED	Atletismoa	Atletismoa
Eskubaloia	361/2004 ED	Eskubaloia	Eskubaloia
Saskibaloia	234/2005 ED	Saskibaloia	Saskibaloia
Espeleologia	64 /2010 ED	Espeleologia	

Graduak	Zikloa	Ziurtagiriak eta titulazioak
Erdi mailako gradua 1.000 ordu	Hasiera-gradu zikloa (I. Maila) 400 ordu	Hasiera-zikloko ziurtagiria
	Amaiera-gradu zikloa (II. Maila)	Kirol teknikari Titulua dagokion modalitatean edo espezialitatean
Goi mailako gradua 750 ordu	Goi mailako gradu zikloa (III. Maila)	Goi mailako Kirol teknikari Titulua dagokion modalitatean edo espezialitatean

Horri dagokionez, 2002ko abenduaren 16ko ECD/3310/2002 AGINDUAK 1913/1997 ED argitaratu zenetik erabat garatu eta ezarri zen arteko trantsizio-epea arautu zuen, hau da, kirol modalitate bakoitzerako errege dekretu espezifikoak argitaratu ziren arteko epea. Agindu horrek zehaztu zituen kirol arloko prestakuntzari lotutako alde kurrikularrak, baldintza nagusiak eta eraginak.

2.7.2. Kirol irakaskuntzak Hezkuntzari buruzko 2/2006 Lege Organikoaren ostean

Kirol irakaskuntzak araubide bereziko irakaskuntza gisa hartzea Hezkuntzaren Kalitateari buruzko 2002ko abenduaren 23ko 10/2002 Lege Organikoan dago aurreikusita baina Hezkuntzari buruzko 2006ko maiatzaren 3ko 2/2006 Lege Organikoaren bidez teilakatu zen hezkuntza sisteman behin betiko, irakaskuntza horiei hezkuntza sistemak eskaintzen dituen gainerako irakaskuntzen pareko tratamendua ematen dien Lege Organikoaren bidez, alegia.

Bestalde, Kualifikazioei eta Lanbide Heziketari buruzko 2002ko ekainaren 19ko 5/2002 Lege Organikoak Kualifikazioen eta Lanbide Heziketa-

ren Sistema Nazionala ezarri zuen ekoizpen-sektorearen eskaerei erantzutera zuzendutako prestakuntza-ekintzetarako testuinguru gisa eta, beste zenbait ekintzaren artean, ekintza fisikoa eta kirola hartzen ditu barnean. Beraz, Hezkuntzari buruzko 2006ko maiatzaren 3ko 2/2006 Lege Organikoak kirol irakaskuntzak Lanbide-kualifikazioen Katalogo Nazionalari lotzeko aukera ezarri zuen.

Testuinguru berri horrek beharrezko egiten du 1913/1997 ED indargabetzea eta 2007ko urriaren 24ko 1363/2007 Errege Dekretu berria argitaratzea, Araubide bereziko kirol irakaskuntzen antolamendu orokorra ezartzeari buruzkoa.

Errege Dekretu horrek kirol teknikari eta goi mailako kirol teknikari tituluak lortzera zuzendutako irakaskuntzen antolamendua ezarri zuen. Irakaskuntza hierarkizatutako ziklotan antolatuta dago eta Kirol Batzorde Nagusiak aitoritutako modalitateak eta espezialitateak hartzen ditu oinarri gisa.

1363/2007 Errege Dekretuaren ostean, behin-behineko aldirako zehaztutako araudia mantendu da errege dekretu espezifikoen argitalpenaren bidez oraindik ezarrita ez dauden kirol modalitateetarako. Behin-behineko aldia araubide bereziko irakaskuntzen sarbide-baldintza beren mende egongo da (akademikoak, proba espezifikoak).

Behin-behineko aldian gauzatutako ikastaroak dagokion erkidego autonomoak kirol arloan daukan organo eskudunaren baimenaren mende daude eta, aurretik, hezkuntza-arloan eskuduntza daukan organoaren aginduzko txostena eduki behar da. Gainera, organo horrek izango du ebaluazio-agirien eta diplomen erregistroa eta zaintzaren ardura. Kontrol horrek ahalbidetu egingo du ondoren hezkuntza-bateragarritasunak aitorzea eta ezartzea araubide bereziko irakaskuntzekiko.

2.8. Kirol teknikarien irakaskuntzen ezarpenaren errealitatea.

Titulu berriak garatzeko prozesua luzea izaten ari da eta aldea dago kirol modalitate batetik bestera (ikusitako modalitateen eta espezialitateen taula). Bistakoa denez, garapen azkarragoa izan dute gizarte mailako ezarpen handiagoa daukaten modalitateek edo profesionalizatze probabilitate handiena daukatenean.

Titulu bat onartu ostean, autonomia erkidegoetako Hezkuntza departamentuek izango dute horiek dagokien lurraldean garatzeko ardura.

Gaur egun, Kirol Batzorde Nagusiak emandako datuen arabera, ondorengoak da araubide bereziko kirol titulu berrietarako irakaskuntzak ematen dituzten ikastetxeen banaketa:

Erkidego guztiek daukate, Kantabriak, Extremadurak, Errioxak eta Nafarroak izan ezik, araubide bereziko irakaskuntzen barruan kirolari lotutako irakaskuntza

arautuak ematen dituen ikastetxeren bat.

Gaur egun, Errioxa aztertzen ari da Futbol-irakaskuntzak emateko ikastetxe bat irekitzeko aukera Rioja Deporte Fundazioaren bitartez. Kantabriak Espeleologia titulua lortzeko ikasketak emango dituen ikastetxe bat irekitzeko proiektua dauka eta Extremaduran, berriz, laster onartuko diren Hipikako ikasketak emateko ikastetxe bat irekitzea planteatzen ari dira.

Guztira, 74 ikastetxe daude 13 autonomia erkidegotan. Kopuruari dagokionez, Katalunia nabarmendu beharra dago, 21 ikastetxe baitaude bertan; hurrengoak, berriz, Galizia da, 9 ikastetxekin. Ikus daitekeen moduan, baimendutako ikastetxe pribatuak gehiago dira publikoak baino, Katalunian izan ezik; eta Aragoi soilik dago formula mistoa (ikastetxe publiko-pribatuak).

Kirol modalitateei dagokienez, Futbola eta Aretofutbola dira nagusi, horrelako irakaskuntzak gauzatu dituzten erkidego guztietan baitaude ezarrita.

2.9. Nafarroako Kirolaren Institutuaren jarduketa behin-behineko aldiaren esparruan

Behin-behineko aldian, kirol federazioek eta autonomia erkidegoek sustatu ditzakete kirol teknikariak prestatzeko ikastaroak. Nafarroaren kasuan, Foru Erkidegoan kirol arloan agintea daukan erakundeak, Nafarroako Kirolaren Institutuak (NKI), dauka arlo horretako hezkuntza-prozesuen gaineko erantzukizuna eta hark baimentzen ditu kirol federazioek sustatutako ikastaroak, Hezkuntza departamentuari aginduzko txostena igorrita.

Gainera, 2006an, NKIk konpromisoa hartu zuen

Urtea	1. Maila	2. Maila	3. Maila
2000	Bela (18)	Futbola (53) Ar.Futbola (17)	
2001	Piraguismoa (25)		Futbola (65) Areto-F (11)
2002	Hipika (6)		
2003	Hipika (4) Taekwondoa (10) Eskubaloia (15)	Hipika (4)	
2004	Piraguismoa (20) Saskibaloia (20) Eskubaloia (16) Taekwondoa (10)		Irristaketa(15)
2006	Atletismoa (7) Txirrindularitza (15) Bela (15)	Taekwondoa (7) Karate (5)	
2007	Taekwondoa (10) Karatea (16) Piraguismoa (7) Gimnasia (14) Bela (20) Hipika (19)		
2008	Triatloia (10) Bela (17) Piraguismoa (12)		
2009	Piraguismoa (15) Txirrindularitza(20) Bela (16)		
2010	Taekwondoa (8) Karatea (25) Kenpoa (17) (*) Kick-boxinga (11) (*) Tenisa (21) (*)	(*) Baimen horiek bideratzeko prozesuan daude. Hizi loditan dauden modalitateak bloke komunak emateko Kirol Azterlan, Ikerketa eta Medikuntzako Ikastetxearen parte-hartzea izan duten ikastaroei dagozkie.	
Ikasleak	439	86	91

behin-behineko aldiaren garapenarekin eta dagozkien federazioek sustatutako zenbait ikastaroren bloke komuna eman zuen. 2009tik aurrera, ikastaro horiek urrutiko ikastaro formatuan ere ematen ditu, ikasgela birtualaren bitartez.

Behin-behineko aldiaren lehen Agindua indarrean jarri zenetik, NKIk ondorengo ikastaroak baimendu ditu:

2.10. Irakaskuntzen ezarpenean dauden zailtasunak

Irakaskuntzen eta tituluen mapa berriak hazkunde nabarmena dakar kirol teknikarien prestakuntzari lotutako exigentzia mailari dagokionez: eskolkarga handiagoa, eduki gehiago eta berme handiagoa sarbidean, irakaspean, ebaluazioan, eta abar. Bestalde, administrazioek (hezkuntzakoak, kiroltakoak) arautzen dute orain arte tradizional kirol federazioen mende egon diren irakaskuntza horien hezkuntza-prozesua. Errealitate berri horretarako egokitzapen-prozesua motela eta konplexua ari da izaten, ondorengo arrazoiak direla medio:

- Errealitateen arteko aldea: kirol modalitateen gizarte-ezarpen mailen arteko aldea, profesionalizatzeari buruzko ikuspegi desberdinak, harrera maila desberdina autonomia erkidegoetan.
- Garatu beharreko tituluen bolumena (modalitate eta espezialitate asko, erdi maila eta goi maila).
- Katalunia salbuespen gisa izanik, gaur egun ez dago kirolaren arloan titulazioen mailako lanbide-egikaritzapenaren araudirik.

Halaber, behin-behineko aldiko prestakuntzen garapena, aldi horretan egonik oraindik ere modalitate gehienak, konplexua izan da orain arte, teknikarien prestakuntzaren kontrolaz arduratu diren kirol federazioetako zenbaiten aurkakotasunagatik.

Nabarmendu beharra dago gaur egun 24 titulu daudela onartuta 7 kirol modalitatetan eta, horien behin-behineko aldia amaituta egon arren, ez daukatela ikastetxerik gure Erkidegoan irakaskuntza horiek gauzatu ahal izateko. Modalitate horietako batzuk dira Futbola, Saskibaloia eta Eskubaloia, gizartean ezarpen nabarmena daukaten hiru kirol. Modalitate horiek gaur egun hezkuntza-hutsune batean daude bide arautuari dagokionez eta, beraz, arlo pribatura mugatuta daude. Egoera hori epe laburrean edo ertainean areagotuko da, eratzeko prozesuan dauden hamahiru modalitateen tituluak onartzearekin batera.

2.11. Egungo problematika

Araubide bereziko kirol irakaskuntzen egungo antolamendurekin, jarduketaren eremu berri bat sortu da eta malgutasun handiagoa eman zaio kirol teknikarien prestakuntza sistemari:

- Ikasleek blokeen edo moduluen arabera matrikulatu ahal izango dute.
- Modulua edo blokea egiteko epeak luzatu ahal izango dira.
- Urrutiko irakaskuntza gisa egin ahal izango dira bloke komunezko irakaskuntzak eta bloke espezifikoak beste batzuk.
- Ikastetxeen modeloei eta baimenei dagokionez, baimendutako ikastetxeen eta Espainiako federazioen artean hitzarmenak egin ahal izango dira bloke komuna baimendutako ikastetxeen egiteko eta espezifikoak, berriz, Federazioaren zentroan egiteko.
- Behin-behineko aldiko irakaskuntzen bloke komunak irakaskuntza ofiziala izango duela eta administrazio eskudunek baimendutako ikastetxeetan emango dela dago aurreikusita. Xedapen horrek bloke komun bakar baten eraketa sostenga dezake eta baliagarria izango da bai araubide bereziko kirol irakaskuntzetarako, bai behin-behineko aldiko irakaskuntzetarako.

Ministerioaren Agindu-proiektu bat bideratzen ari da 1363/2007 Errege Dekretuan zehazturiko behin-behineko aldia arautzeko eta, dauden aurreikuspenen arabera, datoen hila batean onetsiko da. Proiektuaren testuan ondorengoa dago zehaztuta:

- Bloke komunak irakaskuntza ofiziala izango du.
- Hezkuntza administrazio eskudunak bloke komuna emateko baimena eman ahal izango die ondorengoei:
 - Autonomia erkidegoetan kirolen arloan eskumena daukaten organoek sustatutako ikastetxe publikoei.
 - Araubide bereziko kirol irakaskuntzak emateko baimenduta dauden ikastetxeei.

3. Ondorioak eta proposamenak

Nafarroan ez dago araubide bereziko kirol irakaskuntzak eskaintzen dituen baimendutako ikastetxerik, ez kirol teknikari titulua lortzera bideratutako irakaskuntzak araubide bereziko irakaskuntza gisa eratu zuen 1997ko abenduaren 19ko 1913/1997 Errege Dekretuan araututakoaren arabera, ezta araubide bereziko kirol irakaskuntzen antolamendu nagusia ezarri zuen 2007ko urriaren 24ko 1363/2007 Errege Dekretuan araututakoaren arabera ere. Beraz, gure Foru Erkidegoan ezin dira egin Futbol, Aretu-futbol, Saskibaloia, Eskubaloia, Atletismo, Neguko Kirol, Mendi eta Eskalada eta Espeleologia tituluetarako irakaskuntzak.

Kirol teknikarien prestakuntzarako irakaskuntzen eskaintza oso mugatua da. Lanbide Heziketako hiru ikastetxetan (Irunberrikoan, Lekarozekoan eta Tuterakoan) egin daiteke "Natur Ingurunean Kirol Ekintza Fisikoak Bideratzeko Erdi Mailako Zikloa" eta batek soilik (Irunberrikoak) eskaintzen du "Animazio Soziokulturaleko Goi Mailako Zikloa". Bestalde, Nafarroako Kirolaren Institutuak eta kirol federazioek 1913/1997 EDn aurreikusitako behin-behineko aldiaren araudiaren mende dauden ikastaroak eta oraindik dagoen modalitatearen ED espezifikoko bidez ezarrita ez dauden modalitateak soilik aurreikusten dituzte (taekwondo, karatea, kenpo, kick-boxing, tenisa, piraguismoa, txirrindularitza, bela). Logikoki, kirol modalitate minoritarioen eskaintza da eta lanbide-egikaritzarako probabilitate txikiagoa daukate.

Araubide bereziko kirol irakaskuntzak nahiko ezezagunak dira Nafarroako hezkuntza sistema arruntan. Irakaskuntza horietarako sarbidea interes edo dohain berezia daukaten ikasleetara mugatuta dago. Ez dakigu zenbat ikasle nafar ari diren kirol irakaskuntzak jasotzen beste erkidego batzuetan. Halaber, irakaskuntza horiek Nafarroan erabatean edo partzialki egin ahal izatekotan, ez dago eskaera potentzialari buruzko estimaziorik.

Nafarroako Eskola Kontseilua ziur da kirol teknikarien prestakuntzak interes handia izan dezakeela Foru Erkidegoan, bai prestakuntzari dagokion eskaintza zabaltzeari eta pertsona askoren lanbide-garapenari dagokionez, baita lurraldearen aurrerabiderako jardura ekonomiko berriak, enplegua eta aberastasuna sortzeko ikuspegi estrategikotik begiratuta ere.

Ondorioz,

1.a Administrazio eskudunei eskatu nahi die modu koordinatuan, azkar eta zuzen joka dezatela ikasle nafarrek kirol teknikarien prestakuntzarako zenbait aukera izan ditzaten baldintzarik onenetan, bai Foru Erkidegoan bertan, bai beste autonomia erkidego batzuekin lankidetzako eta baliabideen errentagarritasuneko formulak adostuta.

Horretarako, beharrezkoa izango da araubide bereziko kirol irakaskuntzak ezartzen hastea:

- Hezkuntza Ministerioak Nafarroaren baitan onetsitako tituluei eta gutxieneko irakaskuntzei buruzko Errege Dekretuak eratzea.
- Ikastetxeak zabaltzeko eta horien funtzionamendurako baimen administrazioa lortzeko prozedura arautzea.
- Ikasketa horiek egingo dituzten ikasleen ebaluazio-prozesua, berme akademikoa eta mugigarritasuna arautzea.
- Erdi eta goi mailako irakaskuntzetara Bigarren Hezkuntzako graduatua eta Batxilergoa izan gabe, hurrenez hurren, sartzeko heldutasun-probak arautzea.

2.a Nafarroako Eskola Kontseiluak uste du eratu beharreko kirol irakaskuntzen eskaintzaren plangintzak gaur egungo egoera izan behar duela abiapuntu eta baliatu egin behar direla tradizional kirol irakaskuntza horien ardura izan duten ikastetxeen eta erakundeen esperientzia eta baliabideak.

Txosten hau zuri igorri zaizu onespenean eman dezazun.

Iruñean, 2010eko maiatzaren 26an

Idazkaria, Antonio Iriarte Moncayola

Ikus-onespena, Presidentea, Teresa Ucar Echagüe